

purua
 Aitor Arregi
 zinemagileari
 elkarrizketa

+

Ziklisten arriskuak
 Debagoieneko
 errepideetan



Gure moda

Erakustaldia egingo dute zapatuan
 Bergaran, Udal Pilotalekuko pasarelan / 26

Zapatuan Udal Pilotalekuan Bergarako moda erakutsiko duten herritar batzuk.

XABIER URZELAI

Gureak tailerrak Candyra

Datorren urteko apirilerako jarduera industrialia abiatuko du taldeak Candyren lantegia izandakoan / 4

Arrasateko heroina kasuak kontrolpean daudela eta gazte gutxi batzuen kontua dela dio alkateak / 11

70eko hamarkadan Aramaioko alkate izan zen Julian Unzueta omenduko dute domekan / 23

SINADURAK

	MARIA IZAGA / 22
	IÑAKI GOITIA / 8
	SAIOA GARITANO / 26
	ENERITZ URRUTIA / 16
	MIEL GURIDI / 35
	XABIER OTXOA / 18
	ANDER ETXEBERRIA / 48

MODA ERAKUSTALDIA

**GOIENA TELEBISTA
 ETA GOIENA.EUS,
 ZUZENEN SAIOA**
 URRIAREN 21EAN, 22:00ETAN
 BERGARAKO UDAL
 PILOTALEKUTIK ZUZENEAN

goiena
 Zu hemen zaude.



Touran berria

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



Das Auto



Amaia Txintxurreta Oñatiko Ilunpetan Argazki Taldeko kideekin erreportajea lantzen *Hemen Debagoiena* saiorako.



Imanol Beloki *Hemen Debagoiena* saiorako erreportajea lantzen. Maita Zubia zinegotzi eskoriatzarrarekin..



Imanol Gallego, *Hemen Debagoiena* saiorako erreportajea lantzen, Anton Azpiazurekin.



Larraitz Zeberio. Arrasateko Olgetan baliabide zerbitzuko Itsaso Pagoagarekin, albistea lantzen.



Maidar Arregi eta Mikel Ezkerro. Arrasate Rugby Taldekoekin, *Harmaitatik* saiorako erreportajea lantzen.



Miren Arregi eta Aitor Agiriano, *Jaiak* saiorako lanean, eskualdeko beste kazetari batzuekin.



Hemen Debagoiena-ko aurkezle Txomin Madina, saiora gonbidatutako Jon Berasategirekin.



Harira saioko aurkezle Eneko Azkarate, Arrasate Zientzia Elkarteko Jabier Bengoarekin.



Xabier Urzelai #HRMT saioa grabatzen Añatzen, Mirian eta Joxean aita-alaba eskalatzailerekin.

Zu hemen zaude.

GOIENA TELEBISTA UDAZKENEKO PROGRAMAZIOA

goiena[“]
Zu hemen zaude.



Cuixarten eta Sanchezen espetxeratzeak salatzeke egindako elkarretaratzea, martitzenean, Oñatiko plazan. ENEKO AZURMENDI

"Gure etorkizuna ere jokoan dago Katalunian"

Angel Oiarbidek, Gure Esku Dago herri ekimeneko bozeramaileak, adierazi du "euskarri herritarren eskubideak" ere jokoan daudela Katalunian, eta gaineratu du demokrazia batean herritarren borondateak ez duela mugarik, betiere, "errespetuz" jokatzuz gero

Eneko Azurmendi DEBAGOIENA

Atzo, eguena, Carles Puigdemontek adierazi zuen urriaren 10ean ez zuela independentzia "modu formalean" deklaratu, eta Espainiako Gobernuak jarriera aldatzen ez badu, Kataluniako Parlamentuak deklarazio formala bozkatuko duela berretsi zuen. Rajoyk, berriz, bereari eutsi, eta Puigdemonti ohartarazi zion Konstituzioaren 155. artikulua ezarriko duela -bihar, zapatua, bilduko da Espainiako Ministro Kontseilua, hartuko dituen neurriak erabakitzeko-.

Gaiaren harira, bi trenen arteko talka aipatu du Angel Oiarbidek, Gure Esku Dago (GED) herri ekimeneko bozeramaileak:

"Bat iraganeko trena da, eta iraganean herritarren borondateak ez du pisurik eta baliorik izan, pisu handiagoa izan dute ezpata batek edo tanke batek. Beste trena etorkizuneko da eta hau herritarren borondatean oinarrituta egon behar da, demokrazian". Gaineratu du herri ekimenaren esperantza dela etorkizuneko trenak aurrera egitea. "Ezin dugu irudikatu etorkizun bat herritarren borondatean oinarritzen ez dena".

Oiarbideren esanetan, kataluniarrak "Espainiako demokraziaren kalitate maila frogatzen" ari dira, eta prozesu honetan Espainiako Gobernuak izaten ari den jarriera gaitzetsi du. "Zer da

garrantzitsuagoa, legalitatea edo herritarren borondatea? Legeak ezin dira muga izan herritarren borondatearendako, legeak errealitate egokitu behar dira. Orain dela 40 urte ez zen errealitate bera Katalunian, ezta duela hamar urte ere. Baina legeak ez dira estatikoak, eta gizartea aldatzen doan heinean, legeak ere egokitu egin behar dira".

Kataluniarrak eskema asko apurtzen eta dimentsio berri bat irekitzen ari direla azaldu du herri ekimeneko bozeramaileak. "Dimentsio hori da XXI. mendean demokraziaren oinarria izan beharko lukeena. Herritarren borondatea oinarri hartuta, horren arabera errealitate bat

eraikitzen ari dira, eta hori ezinbestekoa da guretzat", dio.

Hori dela eta, azpimarratu du honek guztiak ez diola Kataluniako herriari bakarrik eragiten. "Euskal herritarren erabakitzeko eskubidea ere jokoan dago. Hasiera batean, sinpatia bat edo elkartasun bat sentitzen genuen Kataluniarekiko. Urriaren 1etik hona, aldiz, ez da elkartasun keinu bat bakarrik, gure eskubideen defentsa irmo bat ere bada", adierazi du.

Elkarretaratzeak

Martitzen honetan hainbat elkarretaratze egon dira Jordi Sanchezen -ANCKo burua- eta Jordi Cuixarten -Omniumeko burua- espetxeratzeak salatzeke. Oiarbidek dio atxiloteta horiek ulertezinak direla. "Bi eragile hauei esker, herritarrek protagonista bihurtu dira Katalunian. Ze aukera gelditzen zaigu herri mugimenduoi demokrazia izeneko honetan, ezin badugu gure etorkizuneko protagonistak izan era baketsu eta errespetuzko batean?", aldarrikatu du.

'Ikustenda', Katalunian

Julen Iriondo kazetaria Katalunian izan da *Ikustenda* ekimenarako grabaketak egiten, aste-betez. 2009an lehen aldiz kontsulta egin zen herritik -Arenys de Munt- abiatu eta beste zenbait herritan barrena ibili da Iriondo; hango zenbait eragileren, politikoren eta herritarren iritzia jaso ditu. "Entzuten diren elkarrizketen ehuneko handi bat prozesuari buruzkoak dira, gai bakarra da", dio. Jasotako iritzia aintzat hartuz, azaldu du ardura nabaria dela kaleetan. "Dena den, elkarrizketatutako jende gehienak egoera gizarte zatiketara iristen ez dela dio".

Bruno della Chiesa hitzaldia eskainiko du hilaren 23an, Huhezin

Bruno della Chiesa hizkuntzalaria, ikerlari eta Harvardeko Universityko irakasleak hitzaldia emango du urriaren 23an -astelehena-, Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. Della Chiesa hezkuntzarako neurozientziaren bultzatzaile nagusietako bat da.

Gai hauek jorratuko ditu adituak: *Nola lagundu dezake neurozientziak hezkuntzan?; Burmuinaren funtzionamendua ikaste-irakaste prozesuan; Emozioak; Sinapsia; Buruz ikastea; Empatia; Etika; eta abar.*

Ekitaldia 10:00etan hasiko da, baina aurrez eman behar da izena, Huheziren webguneko formularioa beteta.

Kooperatibismoaren gaineko jardunaldiak egingo dituzte gaur

Arizmendiarraren Lagunak Elkartearen hamargarren urteurrena dela eta, XXI. mendeko gogoeta eta lanari buruzko jardunaldiak egingo dituzte gaur Bilbao Berrikuntza Faktorian, Bilbon. Jardunaldi horien helburua da lankidetzak eta elkarlanak egungo egoeraren inguruko hausnarketa egitea. 10:00etan hasiko dira jardunaldiak, eta 10:20an aurkezpena egingo du Zigor Ezpeletak, Gestio Sozialeko zuzendariak. Gero, hainbat hitzaldi izango dira -ikerketa, industria, berrikuntza, hezkuntza, ekonomia sozial, eta abarri buruzkoak-. Vicente Atxak, MUko errektoreak, eman- go die amaiera jardunaldiei.



Innovation that excites

AUKERA HONEKIN EZ DUZU MAHATSAK JAN ARTE ITXARONGO



GAURSAN SOILIK GAMA OSORAKO DESKONTU BEREZIAK LOR ITZAZU URTE AMAIERA BAINO LEHEN

GAURSA Gamarrako Atea, 46 A-B - 01013 - Gasteiz - Araba - Tel. 945 262 501

Kontsumo mistoa: 3,2 - 9,5 l/100 km. CO₂ isurpenak: 85 - 172 g/km. Kontsumo homologatua europar legeriaren arabera.

Candyren eraikinean lanean hasiko da Gureak

Gaur egungo Bergarako lantegia mantendu egingo dute, baina ekoizpenaren zati bat eskuratu duten plantara pasatuko dute. 2018ko apirilera industria jarduera martxan izatea aurreikusten dute; kableak prozesatzeko lanean, zehazki

Maite Txintxurreta DEBAGOIENA

Gureak enpresak Candy izandako Artabila guneko eraikuntza guztiak eskuratu ditu, eta bertan lan jarduna martxan jartzeko gertu daude. Datorren urteko apirilean produkzioaren zati bat bertan ezarrita egotea aurreikusten dute.

Gaur egun ere taldeak badu lantegi bat martxan Bergaran, Labegarietako industrialdean, zehazki, eta hura mantendu egingo dute. Hortaz, Candyren eraikinak etorkizunean lanpostu berriak sortzeko aukera emango lioke taldeari. "Aurreikuspena da bost urteko epean 75-80 lanpostu berri inguru sortzea", azaldu du Gureak taldeko ordezkari Jose Ignazio Galarragak. Gureak taldeak ahalmen desgaitasuna duten pertsonen eta, bereziki, Gipuzkoan adimen desgaitasuna dutenei egokitutako lan-aukerak sortu eta kudeatzen ditu, eta Bergara guneko estrategiko bilakatu nahi dute.



Candyren itxieraz geroztik ez dago jarduera industrialik lantegian. GOIENA

Fasekako prozesua

Galarragak azaldu du 2018ko apirilera 75 langile inguru jada Candyren lantegian izango direla lanean, kablea prozesatzeko aktibitatean. 4.000 metro koadro erabiliko dituzte horre-

tarako. Prototipoak garatzeko 500 metro koadroko guneko bat erabiliko dute, eta hamabi langile arituko dira bertan. Datorren urtetik 2010ra ekipamendu eta makineria berria eskuratzeko 1,8 milioi euroko inbertsioa au-

rreikusten dutela ere jakinarazi du.

Bigarren fasea 2020an abiatuko lukete: "Bigarren pabiloia okupatuko genuke; hor, teiltua aldatu beharra dago, e-estruktura ere pixka bat ukituta dago... Hortaz, seguruenik, hori eraitsi egin beharko da eta urbanizazioa garatu beharko da". Bada, fase horretan, muntaia tailerra eramango dute Artabilako lantegira, 120-130 lanpostu inguru.

Guneok lantegiaren alderik berrienean kokatuko dituzte. Eraikuntza zaharrenari dago-kionean, zehazteke dute oraindik nola jokatu duten horrekin, hainbat ideia badituzte ere.

Galarragak azpimarratu du Gureak taldearen asmoa Bergara garapenerako guneko bihurtzea da. "Gure automozioko aktibitateak Bergaran garatuko da estrategia berririk", esan du. Besteak beste, Valeo, Volkswagen, Audi eta Seat dituzte bezero.

Mayc-Candyren itxiera

Artabilako lantegiak pisu handia izan du Bergaran urte luzez, Mayc izenez hasieran, eta Candy izenez ondoren. Duela hiru urte itxi zuen Candyk Bergarako lantegia; 150 langile inguru ka-lean geratu ziren.

Elena Leta alkateak nabarmendu duen moduan, enpresaren itxiera "kolpe handia" izan zen herriarentzat. "Halako kolpeak beti dira latzak, guztioi eragiten digutelako, eta gure

indarrak zuzendu ditugu esparru hori berriro balioan ipintzeko eta erabilera industrial berriro ezartzeko", azaldu du Letek. Era berean, adierazi du Udalaren asmoa udalerrian "enpresen etorrera erraztea" dela. Hori kontuan izanda, "pozik" eman dute berria, gogoraraziz 2016ko udaberrian mozio baten bitartez Candyko esparruak erabilera publikoan izan zezan konpromisoa hartu zutela.

Artean konpromisorik zehaztu ez badute ere, bitartekaritza Udalaren helburuetako bat izango litzateke Candyren itxieraren ondorioz langabezia jarraitzen duten zenbait langile ohirendako lanpostuak eskaintzea. Taldeak proposamena aztertuko duela esan du, eta Galarragak nabarmendu du langile ohien ordezkariekin harremanetan daudela azkenaldian.

Gunearen transformazioa

Alkateak gogorarazi du Candyren lantegiaren ondoan Miguel Altuna institutuaren eraikin berria ere bukatzen dihardutela, eta, hortaz, nabarmendu du denbora gutxi barru gunearen itxura asko aldatuko dela.

GUREAK TALDEAREN ASMOA BERGARA GARAPENERAKO GUNE ESTRATEGIKO BIHURTZEA DA

Kooperatiben arteko lasterketa: aurten, antxintxika edo oinez

Mundukidek antolatzen duen probaren hirugarren edizioa domekan izango da, eta nobedadeak daude

M.T. DEBAGOIENA

Mundukidek hirugarrenez antolatu du kooperatiben arteko lasterketa solidarioa. Domekan izango da, urriak 22, Urkulun.

Nobedadez beteta dator oraingo edizioa; batetik, lasterka ez ezik, oinez eta *nordic walking* modalitateak ere badaude, eta, bestetik, Rikardo Abad nafarra korrika etorriko da Tafallatik lasterketarekin bat egiteko.

Mundukideren lana gizarteratzea eta proiektua zurrera eramateko babesak lortzea da xedea, "kooperatiben izaeraren

ezaugarri gisa, talde lanaren balioa agerian jarritz", diote.

Aurten, Mundukiderentzat eta Gernarentzat (Nafarroako gaitasun arraroen elkarte) dirua batzeko erronka jarri dute abian Mundukidek, GERNAk eta Fagor Ederlan Taldeak (Tafallako lantokia). Hala, Rikardo Abad etorriko da Tafallatik Urkuluraino (145 kilometro) lasterketan parte hartzeko, eta bizikletan itzuliko da. Bidean, Nafarroako kooperatiba industrialak bisitatuko ditu. Silvia Trigueros eta Beñat Arnaiz korrikalariek ere



lasterka edizioan egindako talde argazkia. MUNDUKIDE

Abadekin bat egingo dute. Domekan, Markel Irizar ziklista izango du bidelagun Abadek.

Zazpi kilometro

Zazpi kilometroko ibilbidea du Urkuluko urtegiak, eta aurten

ere lasterka emango diote horri buelta kooperatibetako langileek osatutako hirukoteek.

10:30ean abiatuko dira *nordic walking* modalitatean egingo dutenak. 11:00etan, berriz, korrikalariak.

24,7 milioi itzuliko dizkiete udalerriei

Kupoa dela-eta Espainiako Gobernuarekin izandako desadostasunei aurre egiteko hornidurak erabilgarri dituzte Gipuzkoako udalerriek. Udalen Finantzaketarako Foru Funtzak ere urtea inoizko hornidura handienarekin amaitzea aurreikusten da, eta hazkundearekin jarraitzea 2018an. Hala, 24,7 milioi euro gehiago izango dituzte erabilgarri udalerriek.

Aurreikuspenak betez gero, bailarako herri gehienek aurrekontuek %3tik gorako hazkuntza izango dute. Udalek biztanleko 660 euro inguru jasoko dituzte 2018an; Leintz Gatzagaren kasuan herri txikia delako, zifra handiagoa da: 958 euro.



Asteleheneko prentsaurrekoa Garagartzako plantaren aurrealdean. MAITE TXINTXURRETA

CNAren EREa inpugna dezakete langileek

Enpresak Edesa Industrialeko eta Geysler Gastecheko 142 langile kaleratuko ditu. 163 izango dira, hortaz, erregulazio espedientearekin kanpo geratu diren langileak. Aste honetan dihardute kaltetutako langileei kaleratuak izango direla jakinarazten

Maite Txintxurreta DEBAGOIENA
Edesa Industrial eta Geysler Gastecheko langile batzordeak prentsaurrekoa eman du CNAREN 142 langile kaleratzeko erabakiaren berri emateko. "Borondatezko irteerak sustatzea" eta "suspentsiozko EREa luzatzea" eskatu dute. Kontsulten periodoa bukatuta, astelehenean helara-

zi zien zuzendaritzak langileen ordezkarietara lana mantenduko dutenen zerrenda, eta asteon dihardute langileei jakinarazten. Langileen ordezkariak salatu dutenez, zuzendaritzaren planaren inguruan hainbat galdera daude erantzuteke. Hala, plan hori, batetik, "oraindik aurrakordiorik ez dagoelarik", artean

zeintzuk diren jakinarazi ez duten bi inbertsorerekin oinarritzen dela azpimarratu dute. Bestetik, proposamen juridikoa zein den ere ez dakitela diote; sozietate bakarra edo bi izango diren, euren arteko konexioa... "Ez da fabrikazioaren aldeko apustua egiten", esan du enpresa batzordeko bozeramaile Ri-

cardo Perezek, "balio erantsi handiena ematen dioten produktuak egiteari uzten baitzaio".

Planak Fagor markaren erabilpenerako aurrakordia ere aipatzen du, "artean ez daukatena". Finantziarioa ere lortzeko dagoela nabarmendu du. Hala, Edesa eta Geyslerreko proiektua "arriku larrian" jarri ei dute.

Kudeaketarekin haserre

Salatu dute enpresa "hasieratik gezurretan" aritu dela. Adjudikazioaren unean 700 lanpostu sortzeko asmoa agertu bazuten ere, gaur-gaurkoz sozietateak hartzekodunen konkurtsoaren aurrekoan daudela gogorarazi dute, eta, hala, "borondatezko irteerak sustatzea eta gainontzekoei suspentsiozko EREa luzatzea" eskatu dute, inbertsoeraren proiektua jakin arte.

Hiru aldeko akordioa posible ikusten dute langileen ordezkariak -Fagor, Edesa, alde soziala-, baina horretarako borondaterik egon ez dela azpimarratu dute.

Prozesua "irregulartasunez beterikoa" izan dela uste dute: "Sozietate hauek CNA taldearen parte direla ukatzen digute, eta ez digute aurkeztu taldearen dokumentazioa. Ziurtatuta daukagu Edesa Industrial CNAREN parte dela, eta hala jakinaraziko diogu Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzari. Suntsitze ERE hau inpugnatzeko aukera handiak ikusten ditugu". Enpresak "fede

txarrez" jokatu duela diote, dokumentazioa berandu banatuz eta borondatezko irteeren proposamena periodoz kanpo eginaz.

"Iniziatiba" eskatu diote zuzendaritzari, Fagor S. Coop-i eta Eusko Jaurlaritzari.

Enpresaren adierazpena

Zuzendaritzak adierazi du 163 langileen lanpostua mantentzea "industria jarduera mantentzearen aldeko apustua" dela.

55 urtetik gorakoek lanean jarraituko lukete, eta, horrez gain, diotenez, "langileen polibalentzia" izan da zerrenda hori osatzeko irizpidea.

Udalaren gaitzespena

Azken berriei jarraiki, Arrasateko Udalak ere oharra kalera-tu du, esanez ez datorrela bat zuzendaritzaren erabakiaz, eta langileei "elkartasuna eta babesa" adierazi die. Kaleratzeok ekiditeko "bide guztiak agortzea" eskatu du, eta jakinarazi du CNA Group taldeko langileen eskura jarriko dituela udal enplegu programak. Era berean, lanpostuak mantentzeko instituzioekin elkarlanean aritzeko prestutasuna adierazi du.

ENPRESAK "FEDE TXARREZ" JOKATU DUELA DIOTE LANGILEEN ORDEZKARIEK

Akordioa lortuta, hondakinen bilketako greba eten egin dute

Mankomunitateko zerbitzua eskaintzen hasi berri den enpresak iragarritako kaleratzeak ez dira gertatuko

M.B./M.T. DEBAGOIENA

ELA eta LAB sindikatuek Debagoieneko Mankomunitateko hondakinen bilketako langileen greba deitu zuten urriaren 16tik 25era bitartean, zortzi kaleratze zirela eta. Bada, akordioa lortuta, ez dute grebarik egin. Alde biak "gustura" agertu dira negoziazioen emaitzarekin.

Greba deitzeko arrazoia izan zen zerbitzua enpresa berri bati esleitzean -Enviser-, hark zortzi langile kaleratuko zituela jakinarazi zuela, eta lan baldintzak ere eskatu egingo zirela.

Egunotan, langileen ordezkariak eta Mankomunitateko kideak negoziaketetan aritu dira, eta, azkenean lortu dute akordioa. "Zortzi pertsona horiek enpresara bueltatuko dira; horietako bi lehengo baldintza berberetan eta beste sei lan jardunaren %50 bermatuko zaie", dio ELA-ko Ane Romeok: "Bi erretiro aurreratze erraztuko dituzte, eta hortik ateratako jardunaldia kaleratuen artean banatuko da".

Horrez gain, jardunaldi murrizketa izan duten langileei begira hobekuntzak lortu dituz-

te: jardunaldi osoaren %50 itzuliko zaie eta %75 bermatu.

Zerbitzua kontrolatzeko eta hobetzeko batzorde bat sortzea ere adostu dute. Astero batzartuko da, Gabonak arte.

Akordioarekin gustura

Enpresa batzordeak azpimarratu du alde guztiek onartu dutela hitzarmena errespetatzearen aldeko konpromisoa.

Mankomunitateko ordezkariak ere pozik azaldu dira auziak izandako bukaerarekin. Zerbitzua hobetzeko batzordea osatu izana ontzat jo dute, eta azpimarratu dute Mankomunitateak eginda-ko ahalegina.

Bestalde, zabor bilketa zerbitzuan dauden ordezkariak zerbitzu bereko langile ohiekin betetzeko konpromisoa berretsi du Mankomunitateak.



MIREIA LARRAÑAGA

Merkatari aplikazioa martxan

Arrasateko merkatarien jarduna bultzatuko duen *Merkatari* aplikazioa martxan da, eta egunotan presentzia berezia izango du kalean. Gaur goizean, egubakoitza, informazio-gunea izango da Garibain, baita datorren astean ere. Herritarrak animatu dituzte komertzioetan galdetu dezaten, eta triptikoak eskuragarri izango dira dendetan eta hainbat lekutan.

Sobietar Iraultzak, 100 urte

ALBERTO KABIKETA
ALTERNATIBAKO KIDEA
ARRASATE

Errusiako Iraultzaren 100. urteurrena dela eta, Alternatiba erakundeak mundua aldatuko zuen gertaera haren gaineko ekitaldia antolatuko du.

Hain zuzen ere, *Octubre* (Serguei Eisenstein, 1927) filma proiektatuko da, eta, horren ondoren, ikusleen arteko foruma zabalduko dugu.

Ekitaldi hori urriaren 25ean izango da, Jai Zale elkartean, arrasaldeko sei eta erdietan, Arrasaten. Izan ere, esan bezala, Errusiako Iraultzak munduaren historia aldatu zuen goitik behera, eta, jendartearen aldaketarako bidean eta mundu justuago baten bila, ezkerreko jendearendako erreferentzia

eta ikasbide bihurtu zen hura.

Bada, XIX. mendean izandako askatasunaren aldeko iraultzen ondorengoa dugu.

Parisko komunaren (1871) esperientzia, adibide bat jartzearen.

Iraultza sozialisten lehertzearen zergatiak eta garapenak eztabaidagai izan dira beti ezkerrean baita.

Errusiako Iraultzaren beraren lehenengo faseak eta geroago Sobiet Batasunak Stalinen gidaritzapean izandako garapen odoltsuak, kritikarien hilketekin eta errepresioaren aurrean, ezker mugimenduaren baitan eztabaida luzeak eragin zituen eta zatiketen eragile ere izan zen.

Geroago, beste iraultza batzuk etorri ziren; Kubakoa eta Nikaraguakoa, esate baterako.

Horien guztien helburua zen boterea hartzea armen

bidez, horiek eta hamaika eztabaida-bide zabaldu izan dituztenak.

XXI. mendean, aldiz, eta, batez ere, Venezuelako Iraultza Bolibarianoaren esperientziatik abiatuta, boterera heltzeko eta sozialismoaren ideietan oinarritutako jendarte baten antolaketa ereduaren eboluzioa gertatuko da, gogoeta berriak edo berriak ekarri.

XXI. Mendeko Sozialismoa bezala ezaguna egin den gogoeta-bidea, hain zuzen, iraultza eredu berri horri oinarri sendoa emateko asmoz azaldu zen.

Sobietar Iraultza lehertu zenetik gaur egungo iraultzetara 100 urteko tarte historikoa joan da.

Octubre filmaren aitzakiarekin, Alternatiba erakundetik, jendarte berri baterako bide horretaz gogoeta egitea proposatzen dugu, jendarte justuagoa,

askeagoa eta pertsonen berdintasunean oinarritua lor dezagun.

Biolentzia, hemendik urrun!

LEIRE ARRIZABALAGA, NEREA KABUE
ETA LEIRE AXPE
DEBAGOIENA

Denok dakigun moduan, Euskal Herriko eta Catalunya pertsona ugari aspalditik nahi dute independentzia.

Urriaren leian ikusi ahal izan genuen moduan, Catalunya erreferenduma egin nahi zuen.

Batetik, batzuek asko eskatzen zuten; bestetik, berriz, Espainiako Estatuak erreferendum hori ilegala zela adierazten zuten.

Hala ere, bertako gobernuak aurrera jarraitzea erabaki zuen.

Hain zuzen ere, herri bakoitzeko hainbat eskolatan

hautetsontziak jarri zituzten, jendeak bozkatu zezan.

Espainiako Gobernuak guardia zibilak eta polizia bidali zituen, hori aurrera ez ateratzeko asmotan. Orduan, Catalunya jendearen eta guardia zibilen artean biolentzia erabiltzen hasi ziren.

800 baino zauritu gehiago izan ziren, eta, horien artean, umeak eta pertsona nagusiak ere izan ziren.

Gure ustetan, gertatutakoa ez da onargarria.

Biolentziaren kontra gaude gu.

Gu pertsonak gara, eta, hain zuzen, biolentzia erabiliz ezin ditugu arazoak konpondu.

Hitza erabili behar da. Izan ere, biolentziarekin zer lortzen dugu?

Horrela, nora ailegatuko gara?

Ezerk ez du justifikatzen biolentzia erabiltzea.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otlalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

**ABOKATUAK**

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

**ATXEN MUNGIA /
NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)**
ARETXABALETA / Basabe industrialdea F-0-10
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.eus

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

GARRAILAN
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK
ARETXABALETA / Basabe industrialdea F-0-10
Tel.: 943 71 21 12
www.zenbaki.eus
zenbaki@zenbaki.eus


ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@uribesalgo.es

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.



13. UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA *egin klik!*

Banatu ditugu **Udako Argazkien XIII. Goiena Lehiaketako** sariak. Lau saridun izan ditugu. **Arnaitz Eraso** aretxabaletarrak, *Hossegorreko zubitik eguneko azken jauzia* argazkiarekin, **lehen saria** irabazi du – tableta-. **Jone Uribetxebarria** aretxabaletarrak, *Goiena irakurtzen Santa Cruz de Cuerragosan* argazkiarekin, **Goiena Saria** irabazi du –Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean bi pertsonarendako bazkaria edo afaria-. **Ibai Martin** arrasatearrak, *Garazi Neak Pean tenpluaren sarreran* argazkiarekin, **Publikoaren Saria** irabazi du – Zumaiako Zelai talasoterapian bi pertsonarendako spa zirkuitua eta asteburuko menua-. Publikoaren Sarian parte hartu dutenen artean egin dugun zozketan, berriz, **Txari Biain** oñatiarrak irabazi du Loramendi Kirolak dendak emandako 100 euroko erosketa-txartela. Zorionak guztioi eta hurrengo urtera arte!

SARI NAGUSIA



GOIENA SARIA



PUBLIKOAREN SARIA



PUBLIKOAREN SARIAREN ZOZKETA



ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:





ZABALIK

IÑAKI GOITIA

Aquilesean samina eta sumina

Maite al du Aquilesek Briseida? Edo, aitzitik, bere apetari jarraiki egiten al du uko Agamenon erregeak borrokara deitzean?

Auziak hutsala dirudi, baina Troyaren zein greziarren halabeharra Aquilesean erabakiaren gorabeheran dago, baita honen izaeraren inguruan egin daitekeen epaia.

Iliada-k Aquilesi egiten zaion irainarekin ematen du hasiera, greziar batek pairatu dezakeen irainik handienarekin, zehazki: ohoreari egiten zaiona.

Zertan datza baina?

Agamenonek Criseida, bere esklaboa, honen aitari itzuli behar izan dio, baina ordainetan Aquilesean esklaboa den Briseida exijitu du.

Irain honek Aquilesean sumina eta gerrarako ukoa dakar, baita greziarren ezinbesteko porrota ere, Aquilesek Zeus

jainkoari eskatu bide baitio, Tetis bere amaren bitartez, greziarrak gudan eror daitezten.

Troyaren garaipena eta greziarren porrota aurreikusia dago, beraz, baina horra non agertzen den hamar urte luzeko gerra aztoratuko duen

bigarren mailako pertsonaia, Patroclo, Aquilesean lagun mina.

Hectorrek Patroclo hiltzen du borrokaren harrabotsean, Aquiles dela itsuki sinetsita –honen armadura soinean baitarama–.

Bere lagunaren galerak samina eta sumina dakarkio Peleoren semeari, eta Hector gupidagabe hiltzen du, baita honen gorputza profanatu ere.

Kontua da Aquilesean erabakia epaitzeko orduan informazioa falta zaigula; Homerok ez digu argitzen Aquilesek Briseidarekiko duen sentimendua –nabarmena dena gehiago nabarmenzerik nahi izan ez balu bezala–, eta gauzak horrela, ohoreaz hausnartzea besterik ez dagokigu.

Antzina ohore kontuak hil edo bizi baziren, gaur egun apeta hutsari erantzungo liokete. Honi jarraikiz, Aquiles miserable bat da, bere apetak hamaika hildako eragin baitu. Baina gauzak ez dira hain sinpleak. Inoiz. Are gutxiago maitasunean. Nola Briseidarekikoa, hala Patroclorekikoa.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



z i u r g a b e t a s u n a

Unai
17/20

ANTZINA OHORE KONTUAK HIL EDO BIZI BAZIREN, GAUR EGUN APETA HUTSARI ERANTZUNGO LIOKETE

HANDIK ETA HEMENDIK

Lantokiko sexu gehiegikeriei aurre egiteko, protokoloa

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

[HTTPS://LABUR.EUS/HFG1G](https://labur.eus/hfg1g)

'ARGIA'-N ARGITARATUA

Harvey Weinstein produktoreak emakume aktoreen aurka urte luzez eta industriaren konplizitateaz egindako sexu jazarpen eta gehiegikeriak azaleratu ostean, bere produktoratik eta Hollywoodeko Akademiatik kanporatu dute. Gurean ere badira botere-harremana baliaturik lan munduan sexu-erasoak egiten dituztenak, ez ordea halakoak atzeman eta neurriak hartzeko protokoloa duten enpresa askorik.

Euskal Herrian Sortuk (ondoren hainbat herri mugimenduk) kanporatutako militantearen kasua ezagun egin bada ere, ez da bakarra. Pertsona hori bota baina bere identitatea ezkutuan mantentzea erabaki zuen Sortuk, beste alde batera begiratzea edo afera isilpean "konpontzea" nahiago duenik ere bada. Protokolo argiak behar ditugu: zein prebentzio neurri hartuko dira? Nola salatu dezakete biktinek, anonimoki ez bada, ondorio txarrik ez izateko adinako bermekin? Zeintzuk izango dira protokoloaren arduradun, independente jokatzeko eta ez agintarien konplize? Nolako izango da

salatua izan den erasotzaileari egingo zaion galdeketa? Nola landuko da kasua lankideekin eta nola talde osoaren babesa biktimarekiko? Zein zigor aurreikusiko zaizkio erasotzaileari lantokian? Eta sozialki? Judizialki? Publikoki salatuko al da erasotzailea? Eta hala egiten ez bada, kanporatzen den pertsonaren identitatea ez azaleratzea ez al da arazoa gainetik kendu eta beste norabait bidaltzea?...

Ziurrenik, arlo honetan ere ugari daukagu ikasteko herri mugimenduetatik eta zehazki mugimendu feministetatik. Adibiderako, Lizarrako jaietan sexu-erasotzailea txosnagunetik bota zutenekoa.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Sailtetako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea
Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza, Jokin Uribebeberria.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.
Erredaktore burua
Ubane Madera.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Ubane Madera,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna Marta Leturia.

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Arebaleteko Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

PROTAGONISTA

"Ez dauka preziorik egun bizi dugun lasaitasunak"

MIGUEL LAZPIUR CONFEBASKEKO PRESIDENTE OHIA

Mireia Bikuña BERGARA

Euskal enpresariaren aldeko oroimen eta aitortza ekitaldia egingo dute gaur, egubakoitza, Euskalduna jauregian.

"Terrorismoak zigortutako" hainbat laguni egingo diete aitortza. Adibidez, Miguel Lazpiur bergararrari.

Ekitaldi hunkigarria izango da, duda barik.

Bai. Halako aitortzak beti dira politikak, eta, jasandako sufrimenduari egindako aitortza bada, askoz politagoa. Gainera, enpresaburuekin, lagunekin, egoteko aukera izango dut. Ez dakit, zehatz-mehatz, zeintzuk egongo diren Euskaldunan.

Omenaldia jasoko duzuenok parte-hartzerik izango duzue?

Badakit berbaldi batzuk egongo direla. Batzuek hitza hartuko dute, baina ezin dut gehiago zehaztu.

Gaur, sei urte bete dira ETAK su-etena iragarri zuela, eta egun berean omenaldia. Beranduegi?

Ez dut uste. Gauza eta egoera guztiak behar dute



Miguel Lazpiur bergararra. GOIENA

egonkortzeko eta sendotzeko denbora. Orain erabaki dute, eta nik, behintzat, eskertzen dut.

Izan ere, terrorismoaren jazarpena eta mehatxua sufritu dugunon gauzarik

zailena bakardadea izan da. Isilean sufritu dugu. Gutxi batzuei kontaktuta. Ahalik eta sufrimendu eta kalte txikien eragite aldera. Orain iritsi da garaia: jakin dezatela guztiak zer izan zen orduko hura eta

nola sufritu genuen. Nortzuk egon ginen egoera hartan. **90eko hamarkadan jaso zenuen lehen gutuna etxean. Atzera begiratu, zer datorkizu burura?** Gauza asko. Etxeko egunerokotasuna goitik behera aldatu zitzaigun. Ezinegona, beldurra, bakardadea... Guk erabaki genuen etxe barruan aztertzea mehatxuen gaia. Eskatzen zigutena ez ordaintzea erabaki genuen. Jakitun ginen erabaki hark zein ondorio izango zituen, baina aurrera egin behar genuela erabaki genuen. Aztertu, erabaki eta ekin.

Mehatxuak eta heriotzak ere bai.

Zalantza barik. Nire egoera baino askoz okerragoa bizi izan zutenak egon ziren. Bereziki, hil egin zituztenak. Joxe Mari Kortaren eta Iñaxio Uriaren erailketak oso gertutik bizi izan nituen, eta muturreko egoera izatera heldu ziren.

Egoera asko aldatu da.

Bai, horixe. Atzera begira ipintzea kostatu egiten da, baina egoera guztiz aldatu da. Egun bizi dugun lasaitasunak ez dauka preziorik. Lasai bizi, lasai lan egin... Eta, lasaitasun horrek ematen duen ikuspuntutik, asko eskertzen dira omenaldiak, aitortzak eta oroimen egunak.

HAU BE BADOGU!

Cuixarten eta Sanchezen alde



Jordi Sanchez eta Jordi Cuixart ANC eta Omnium elkartetako presidentetako atxilotu ditu Espainiako Auzitegi Nazionalak, urriaren 1eko erreferendumean herritarrak mobilizatzeari, eta sare sozialak kataluniarrak askatzeko mezuekin bete dira. Horrela, *#LlibertatJordis* edota *#Junts* traolak *trending topic* izan dira Euskal Herrian ere.

Galiziako suteek haserrea piztu dute



Ehunka sute izan dira azken asteetan Galizia eta Asturias inguruetan, eta gehienak gizakiek probokatuak izan litezke. Haserrea eta elkartasuna nagusitu da sarean, eta *#ArdeGaliza* traola erabilienetakoa izan da. *@alauzirika*: "Elkartasuna gutxi batzuen utzikeria eta negozioagatik sugarretan kiskaltzen ari den Galizako herriarekin *#LumeNuncaMais* *#ArdeGaliza*".

#TosuBetirako, ortu okupatuaren alde

Getxoko Ibarbengoako ortu okupatua hustu du Ertzaintzak. Proiektatutako garapen urbanistikoaren aurkako sinbolo bilakatu izan da *#Tosu* eta bertako ortuak, eta gaiak oihartzuna izan du sarean:

@Tosu_Betirako: "2007an gelditu genuen, oraingoan be geldituko dugu! Zapatuan 12:30tan manifestazioa Telletxetik! Andra Mari ez ikutu! *#TosuBizirik*"

ITURRI ONETIK

Bizikletak garbitzeko gunea Aretxabaletan

Herriko bizikletazaleek hainbatetan egindako eskaerari erantzunez, bizikletak garbitzeko gunea jarriko du Aretxabaletako Udalak, Markole auzoan. Hondakinak botatzeko larrialdigunea zegoen lekuan kokatuko dituzte ura eroateko tutu malguak eta gainerako tresnak. Lantxo batzuk egin beharko dituzte aurretik, hara ura eroateko eta erabilitako ura isurtzeko. Udala ordezkariak jakinarazi dute urtea bukatu aurretik eginda egongo dela.

GORA ETA BEHERA



Zubillagan "legerik ez"

"Oñatiko Zubillaga auzoan legeak betearazten dira?", galdetzen du irakurle batek. Gehitzen du edozein tokitan aparkatzen dela; autobusak eta kamioiak abiadura handian dabiltzala, nahiz eta 30 km/h den gehienezko abiadura; bidegorrian kamioiak daudela... "desgrazia bat pasa arte...". Hilaren 13ko irudi hori bidali du: "Erdi jai, eguraldi ona, bidegorrian jende pilo...".



GOIENA

"Zuei esker bakean hartuko du atsedena"

Urriaren 12an galdu zen Juan Alvarez mendizale arrasatearra, eta astelehenean aurkitu zuten haren gorpua, Anboton. Tarte horretan bilaketa lanetan inplikatu diren herritarrentzako eta profesionalentzako esker oneko hitzak izan ditu familiak

Xabi Gorostidi ARRASATE

Luze joan zen asteburua Juan Alvarez arrasatearraren familiarentzat, baita haren bilaketan parte hartu zutenentzat ere. Jende asko inplikatu zen arren, bilaketak amaiera goibela izan zuten, baina herritarrek eta profesionalak egindako lana esker-tu nahi izan dute Alvarezen familiakoek.

"Juanen bilaketan bizi izandako momentu gogor eta larri-garrien ostean, eta amaiera ikusita, haren familiak eta lagunek bihotz-bihotzez eskertzen eta aitortzen dugu profesional eta boluntarioek egin duzuen lana, eta emandako babesa. Zuen laguntzak eta gizatasunak argi utzi digu bizitzan balio handien duena pertsonak direla. Eskerrik asko".

Pasa den ostegunean eman zuten abisua Juan Alvarezen familiak, mendira joan ostean etxera itzuli ez zelako. Ordutik astelehenera arte, egunero irten



Herritar talde bat Kobate aldean bilaketa lanak egiten. XABI GOROSTIDI

ziren arrasatearraren bila, aditu taldeak, baita boluntario ugari ere.

Egubakoitzean Udalatx eta Besaide mendien artean bilaketa hasi ondoren, lekuko batek emandako arrastoari esker, bi-

laketa Anboto mendirantz biderratu zuten zapatuan.

Domekan, Iturripetik 250 bat boluntario abiatu ziren mendira, eta, hiru taldetan banatuta, Anbotoste, Tellamendi eta Kobate inguruetan ibili ziren.

Lurreko miaketa taldeez gainera, eta DYAk jakinarazi zenez, Ertzaintzaren helikopteroa ere ibili zen bilaketa lanetan laguntzen.

Amaiera goibela

Egunak pasa ahala, Juan Alvarez bizirik aurkitzeko aukerak gutxituz zihoazen, eta astelehen arratsaldean konfirmatu zen haren heriotza. 17:00 inguruan, Juan Alvarezen bila zebilen helikopteroak gorpu bat atzeman zuten Anboto mendiaren ipar-ekialdeko magalean, Durangoko partean. Ertzaintzak konfirmatukoaren arabera, hilik aurkitu zuten Juan Alvarez, 56 urteko mendizale arrasatearra; buruan kolpe handi bat zuen.

Izan ere, astelehenean beste bi pista berriren atzetik aritu ziren: alde batetik, ostegunean harekin topo egin zuten Elorriko udaltzain baten testigantza; eta bestetik, egunean bere baserritik gertu oihu edo kexu batzuk entzun zituen baserritarrarena.

Esker oneko hitzak

Juan Alvarezen gorpua aurkitu osteko egunean, familiako kideek esker oneko gutuna helarazi zuten komunikabideetara, Udalaren bitartez.

Lehenik eta behin, Arrasateko Udalak izandako portaera eskertu zuten. "Lanek izan duten zailtasun logistiko eta emozionala kontuan izanik, alkateak erakutsi digun gertutasuna,

konpromisoa eta prestutasuna eskertu nahi ditugu. Era berean, Udaltzaingoaren lana ere azpimarratu nahi dugu, kasu askotan euren zeregin profesional-tatik harago joan direlako".

Bilaketan lanetan inplikatu ziren Ertzaintzaren, Gurutze Gorriaren, DYaren, basozainen eta mendirako sekzio berezien, helikoptero zerbitzuaren eta Arrateko txakur trebatuen unitate bereziaren lana goraipatu zuten, baita herritarrek eta Besaide Mendi Elkarteak izandako inplikazioa ere. Azken horiei buruz zera esan zuten: "Jendea mendian gidatzeko lana egiteagatik, eta beste mendi elkarte batzuen laguntza lortzeagatik: Atxondo, Elorrio, Durango... Baita euren ezagutza sakona, ardura, elkartasuna eta balioak erakusteagatik".

Azkenik, mendian ez egon arren distantziatik euren alea jarri zutenen ekarpenak ere aipatu zituzten: "Arrasate Opinari sare sozialen bidez informazioa eta animoak helarazteagatik, euren ibilgailuak laga dituztenei, eta janaria eta edaria eskaini duten taberna, komertzio eta etxe partikularrei".

**"BIHOTZ-BIHOTZEZ
ESKERTZEN DUGU
BOLUNTARIOEK ETA
PROFESIONALEK
EGINDAKO LANA"**

Urriko baserritarren azoka bihar, tailer berezirik gabe

Hileko hirugarren zapatuetako ohiturarekin jarraituz, Seber Altube plazan egingo dute topo bertako zein kanpotik etorritako ekoizleek. Gaztainarekin lotutako tailerren bat lotzen ahalegindu dira antolatzaileak, baina, azkenean, ez da posible izan.

Betiko legez, sasoiko produktuak ekoizleei zuzenean erosteko aukera izango dute bertarantzen direnek. Produktu hauek egongo dira zapatu honetako azokan: porruak, zerbak, kalabazak, kalabazinak, piperrak, espinakak, gaztainak, intxaurrak, hurrak, sagarrak eta babak, hain zuzen ere. Guztira, zazpi postu izango dira.

Ludotekarako eta gazte txokoetarako hezitzaile bila

Txatxilipurdi elkarte lan-poltsa handitzeko nahian dabil, ludoteka eta gazte txokoetan aisialdi hezitzaile gisa aritzeko. Hautagaien zereginak haur eta nerabeekin harremanak sortzea eta lan hezitzaile eta euskalduna egitea dira.

Hezitzaile profila betetzeko, besteak beste, kontuan izango dute euskarazko EGA titulua edo baliokidea izatea, begirale titulua izatea, Arrasatekoa edo ingurukoa izatea, antzeko lanean esperientzia izatea eta talde lanerako gaitasuna.

Interesatuok, bidali curriculum idadzkaritza@txatxilipurdi.com helbidera. Zalantzarik izanez gero, deitu: 943 79 54 46.



NEKANE GARDOKI

Shanghain ere Maritxu Kajoi

Maritxu Kajoi ospatzeko ez dago distantziarik, eta, kilometroen mugak alde batera utzita, asiar kontinentera egin zuen salto urriaren 14an.

Shanghaiko euskal etxean ospatu zuten festa. 50 lagun inguru batu ziren han, eta irudian, festan parte

hartu zuten arrasatearrak daude. "Shanghaitik eskerrak eman nahi dizkiogu Maritxu Kajoi Komisiñuari, beste urte batez eskapularioak lepotik eraman ahal izan ditugulako, eta Paulari, Arrasateko kartel berberaz iragarri ahal izan dugulako Shanghaiko Maritxu Kajoi".

"Heroina kontsumoa ez da arazo orokor bat"

Mezu hori eman zuen alkateak, herrian gai horri buruz sortu den ezinegonaren aurrean. Udaltzainen buru diren Iñaki Arriagarekin eta Amaia Frontaurarekin egindako prentsa agerraldian, kontsumitzaileak identifikatuta dituztela jakinarazi zuen

Goiatz Arana ARRASATE

Azken boladan, xiringak eta heroina kontsumo arrastoak azaldu dira hainbat tokitan, eta horrek kezka eragin du arrasatearren artean.

Hori ikusita, prentsaurreko agerraldia egin zuten martitzenean Arrasateko udaletxean, eta bertan, Maria Ubarretxena alkateak, Iñaki Arriaga udaltzainburuak eta Amaia Frontaura udaltzainburu-ordeak hartu zuten parte.

Udalarentzat lehenastuneko gaia dela eta, lehen momentutik euren eskuetan dagoen guztia egiten ari direla azaldu zuen Maria Ubarretxena alkateak.

Horren harira, bi esparrutan ari dira lanean: prebentzioan eta jarduketan. Lehenengoari dagokionez, batetik, Ai Laket! eta Agipad elkarteekin ari dira lanean; eta bestetik, identifikatuta dituzten kontsumitzaileen gurasoekin harremanetan daude. Jarduketei dagokienez, hainbat zerrendatu dituzte: 2016ko irailean ezker, ia hileroko egon dira atxilotetak edo konfiskatu dituzte drogak.

Sei droga saltzaile

Droga saltzen duten sei pertsona identifikatuta dituzte eta atxilotuta ere egon dira, baina, sarritan, aske geratzen dira: "Kontua da atxilotuak izan ostean epailearen eskuetara pasatzen direla eta hor bukatzen dela gure esku-hartzea. Tamalez, ez dago gure eskuetan epaitegiaren gertatzen dena, eta askotan gertatzen dena da pertsona horiek libre geratzen direla".

22-23 urteko hiruzpalau gazte

Ubarretxenak aditzera eman duenez, heroina kontsumitzaileak identifikatuta daude. 22-23 urteko hiruzpalau mutil dira, nahiz eta horrek ez duen esan nahi herrian heroina kontsumitzaile gehiago egon ezin daitekeenik. Gaineratu dutenez, identifi-



Maria Frontaura, Maria Ubarretxena eta Iñaki Arriaga prentsaurrekoan. GOIATZ ARANA

IDENTIFIKATUEK ZERIKUSIA DUTE HERRIAN IZANDAKO HAINBAT GERTAKARIREKIN

tutako gazteek zerikusia dute herrian azkenaldian izandako gertakariarekin.

"Zerikusia dute Musakolan eta Erguingo eliza atzean azaldu diren xiringekin, baita Monterongo komunetan azaldu diren droga arrastoekin ere, eta eurak dira azokako komunetan ziztatzeko harrapatu zituztenak. Pertsona berdinak dira guztiak. Eta eurak dira, era berean, orain gutxi Erguingo erretiratuen etxean izandako lapurretaren egileak, Biterin-labana batekin mehatxatuta-egindako lapurretaren egileak eta pasa den zubian Musakolan egindako lapurretaren egileak. Psikiatrikoan egon dira eta desintoxikazio zentroan ere bai, baina berriz erori dira. Arazo larri bat dute eta euren gurasoekin egon gara".

Gai zaila da, Maria Ubarretxena alkateak azaltzen duena-

gatik: "Ertzaintzarekin koordinatuta ari gara lanean, ikerketak zabalik daude eta informazio asko dugu, baina ezin dugu publiko egin, ikerketak ez oztzatze aldera. Aldiz, jendauraren ezer esaten ez baduzu, herritarrei iruditzen zaie ez duzula ezer egiten, eta gauza biak ez dira bateragarriak".

Eskaera herritarrei

Eskaera berezia egin diete herritarrei: droga kontsumo arrastoren bat edo zerikusia izan dezakeen beste zerbaitekin ikusten badute, 943 25 20 10 telefono zenbakira edo 112ra deitzeke. "Deia anonimoa izan daiteke, gainera", azaldu dute. Eta horri gehitu diote BAZen kexa jartzearena bigarren urrats bat litzatekeela: "Kexa jarri gura duenak jarri dezake eta ongi dago. Baina garrantzitsuena da guri lehenbailehen jakinaraztea".

"Egia da heroina beste droga batzuk baino merkeagoa dela eta bere kontsumoak gora egin duela apur bat, baina ezin dezakegu gorakada nabarmen batez hitz egin, ez Arrasaten, ezta orokorrean ere", azaldu dute.



NIRE USTEZ

ENERITZ URRUTIA

Altxorrak

Hain zaila egiten zaigu "maite zaitut" bat esatea; kantuan, idatziz, mezu bidez... bai, noski, askotan baina benetan urrea balio izaten du barrutik atera eta egiazkoa izateak.

Nik ez dakit esaten, *kursia* iruditzen zait; agian, txoratuta nagoela pentsatuko duzue, edo ez, auskalo! Hitzak baino gehiago, ekintzak dira. Maitatzen duzuna; zaintzea, entzutea, aholkatzea, zigortzea, laguntzea, erakustea, jolastea, elkar bizitzea, konpartitzea, errespetatzea, ulertzea... zenbat eta zenbat hitz gehiago idatz ditzakedan. Bai, horrela bizi dut nik, gehiago esan edo emateagatik ez dut gehiago maiteko, ez hobeto maitatuko. Bakoitzak bere aukerak zein mugak ditu. Beraz, ez gehiago ez gutxiago, dakizun bezala adierazi, konpartitu, demonstratu, oraindik bada denbora erlojuaren orratzak martxan badabilta.

Maitatzea bizitzak eman digun opari bat da; beraz, ikas dezagun hitzez baino gehiago, ekintzez ematen. Maitatzea zaintzea da, beharrezkoa bada tristurak elkarbanatzea eta poztasunak batera ospatzea. Ruper Ordorikak kantuan guztiokin konpartitzen duen bezala: zaindu maite duzun hori!

Ibilbide gidatua domekan, burdinaren ustiatzeari buruz

Ondarearen Europako Jardunaldiek geldialdia egingo dute domekan Arrasaten, herriak burdingintzarekin izan duen harreman historikoan sakontzeko.

Bisita gidatua Arbolapetan hasiko da, domekan, 09:30ean, eta, gutxi gorabehera, lau ordu iraungo du. Bertan, burdinaren ustiatzeak herriko paisaia izan duen eragina aztertuko dute, Arrasate Zientzia Elkartearen gidaritzapean.

Horretarako, herriko hainbat bazter bisitatuko dituzte, eta hau izango da jarraituko duten ibilbidea: Arbolapeta, Monterron, San Kristobal, Iturritxipi, Anporreta eta Antoña.

Musika grabazioarako laguntzak azaroaren 30a baino lehen

Beste urte batez, Arrasateko Udaleko Gazteria Sailak deituta, musika grabazioak egiteko dituzten laguntzak eskatu ahal izango dira.

Horretarako, baldintza hauek bete behar dira: taldekideen %50 gutxienez Arrasaten erroldatua izatea, azken bi urteetan laguntzarik ez eskatu izana eta 2016ko azarotik 2017ko azarora grabatutako lanak izatea.

Gazteria Sailatik, aurkeztutako ordainagirien %50 ordainduko da; betiere, 700 euroko mugarekin.

Diskoa kaleratu gabe izan arren aurretik aipatutako tartean grabatu bada, diru laguntza eska daiteke.

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta
Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra
Kontxi Lazkano - Pedagogoa
Ion Astigarraga - Psikologoa

Diagnostikoa - Orientazioa
•
Psikoterapia:
umeak, gazteak eta helduak
•
Arreta psikologikoa
genero indarkerian

Laguntza eskolarrak
•
Estimulazio goiztiarra
•
Logopedia
•
Ikasketa teknika eta ohiturak

Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 295/13

EH Bilduk autokarabana gunea abiatzea nahi du

Markuleten zerbitzu-gunea ezartzeko egitasmoa 2015a ezker datorrela gogoraraziz, oposizio alderdi nagusiak salatu du ia urtebetean ez zaiola lehentasunik eman, eta Udal Gobernuari eskatu dio bide eman diezaion 10-12 plazako gunearen eraikuntzari

Maite Txintxurreta ARRASATE

Arrasateko EH Bilduk Udal Gobernuari eskatu dio Markuleten autokarabanentzako gunea eraikitzeke egitasmoa bultzatzea.

Gogorarazi dute 2015eko abendua ezker datorrela gaia. Garai hartan, Hirigintza Sailak azterketa egin zuen, autokarabanendako gunea kokatu zitekeen hainbat leku iradokituta. Handik aurrera, Merkataritza, Turismo, Teknologia Berri eta Ekonomiaren Sustapenerako batzordeak bultzaturik, Udaleko sail batzuen artean eta autokarabana erabiltzaileekin batera kontsulta teknikoak eta batzarrak egin direla ekarri du gogora EH Bilduk.

Proposatutako gunea

Hirigintza Sailak, 2016ko maiatzaren 10ean, bigarren kontsulta batean, Markuleteko orubea proposatu zuen. Olandixoko tunelaren ezker aldean dagoen 3.900 m²-ko partzela hori Udalarena da, eta aisialdi-gunea egiteko aukera ematen du.

"Merkataritza, Turismo, Teknologia Berri eta Ekonomiaren Sustapenerako batzordeak 2016ko ekainaren 20an proposatu zien bai Hirigintzari, bai Obra eta Zerbitzu Sailari, proiektua egiteko Markuleteko partzelan", azaldu du EH Bilduk. 10-12 plazako gunea egitea proposatzen zen bertan, 900 m²-ko hesiarekin,

ur garbiarekin, ur zikinak botatzeko guneekin, loseta zulo-dunekin, komunekin, argiztapen egokiarekin eta piknik-gunearekin. Abentura jolas parkea ere egongo litzateke.

"Gaia Obra eta Zerbitzuetara bideratu zen 2016an, baina ez da aurrerapausorik eman ia urtebetean, ez zaiola lehentasunik eman", salatu dute. "EH Bilduk Gobernuari eskatzen dio aintzat hartzeko egitasmoa eta bide emateko Merkataritza, Turismo, Teknologia Berri eta Ekonomiaren Sustapenerako batzordearen proposamenari, ekipamendu interesgarria delako gure herriarentzat".

Sexualitatea lantzeko tailerrak azaroan

Udaleko Sexologia Zerbitzuak emakumezkoen eta gizonezkoen zuzendutako sexualitate eta trebatze erotikoko tailerra antolatu du. Azaroaren 7an, 14an eta 21ean 18:00etatik 20:00etara izango dira tailerrak. Emakumezkoen saioak Kulturateko Jokin Zaitegi gelan izango dira eta gizonezkoenak, berriz, Loramendi gelan. Euskal Herriko Sexu Heziketa Eskola Kooperatibak bideratuko ditu tailer biak.

Tailerrok "bizipenezko espazioak eraikitzea" ahalbidetuko dute, antolatzaileek azaldu dutenez. Metodologia honako hau izango da: tertulia dialogikoak, formakuntza sexologiko magistrala eta formakuntza ludikoa.

"Sexualitatearen eta hazkunde erotikoen inguruan esku-hartze bat burutzean, jabeak eta autonomia sexuala sustatzen da, trebatze erotikoa eta ongizate pertsonalerantz gidatu eta laguntzen duena, sexualitatea balio gisa landuz", azaldu dute antolatzaileek.

OHARRAK

1958koen kintada

Azaroaren 4an Oñatiko unibertsitatea bisitatuko dute eta bazkaria egingo dute Zumeltzegi dorrean. Gero, dantzaldia eta mokaduak izango dituzte Kajoin. 12:30ean batuko dira, unibertsitatean, eta nahi duena autobusez joan daiteke -11:30ean, Arrasaten-. Izen-ematea, azaroaren 1a aurretik. 60 euro sartu Laboral Kutxan: 30350001590011144438.

1934koen kintada

Urriaren 28an elkartuko dira Al-Andalus elkarteak. Izen emateko: 943 04 38 86 (Al-Andalus) edo 943 79 48 45.

1952koen kintada

Sarako haitzuloak bisitatu -Iparraldean- eta hango jatetxean bazkaria egingo dute. Aldez aurretik, goizean, 08:30ean izango dute hitzordua Garibai geltokian. Bidean, Pasaia Albalde museo bisitatuko dute.

RENAULT AUTOBERRIN DENA EMANGO DUGU HILABETE HONETAN ZURI AUTOA ALDATZEN LAGUNTZEKO.

Izan ere,

8.000 EURO BITARTEKO BEHERAPENA egingo dizugu Renault MEGANE berria erosiz gero.

Ez galdu aukera paregabe hau. Etorri eta informa zaitez **AUTOBERRIn**.

Renault Mégane berria: kontsumo mistoa (l/100 km), 3,7 eta 6 bitartean. CO₂ isuriak (g/km), 95 eta 134 bitartean. 8.000 eurora bitarteko beherapena Mégane modeloan Autoberrin osoan. Eskaintza hau baliagarria izango da izakinak agortu arte, edo 2017/20/31ra arte partikular eta autonomoentzat. Kontsultatu modelo kontzesionarioan. RCI Banque SAK (Espainiako sukurtsala) finantzatua. Zergak, garraioa eta sustapenak barne. Finantzatu beharreko gutxieneko zenbatekoa: 6.000 €. Gutxieneko epea, 24 hilabete. Ez da bateragarria beste finantza-eskaintza batzuekin. Irudiko modelo: Renault Megane Zen EnergyTce 97kW (130 ZP), pintura metalizatua, fullLED argiak, Head-updisplay, 46 cm-ko (18") aleazio-hagunak, Easy Park Assistpack-a eta 22,1 cm-ko (8,7") pantaila. PSP gomendatua, zergak, promozioak eta Reprise akzioa barne: 19.348 €.

Renaultek **elf** gomendatzen du

f @ YouTube renaul.es

AUTOBERRI San Andres Auzoa, 8. Tel. 943 71 24 72. ARRASATE www.autoberri.com

ARRASATEKO BASERRIKO PRODUKTUEN AZOKA

09:00-14:00 Seber Altube Plaza

HILEKO 3. ZAPATUA

Urriak 21 | 2017



Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

■ Enplegu eta Garapen
Ekonomikoaren Saila

Laguntzailea:



Arrasateko baserriek eta
merkatariak **konfiantza,**
hurbiltasuna eta kalitatea
eskaintzen dizkizute.

"Ea lortzen dugun falta diren horiek animatzea"

IGOR ISASI KANPANZAR ART-KO ENTRENATZAILEA

Ekainean aurreikusi zuten 25 jokalarik izango zutela fitxa denboraldi honetarako, eta gaur egun, horietako bostek ez dute fitxaririk; haiek konbentzitu nahian dabil taldea

Eneko Azurmendi ARRASATE

Pasa den asteburuan atsedena izan ostean, liderraren aurka jokatu du bihar, 16:00etan, Mojategin.

Hasi eta berehala asteburu bateko atsedena eskertuko da, ezta?

Bai. Halako atsedendaldi gehiagok mesede egingo ligukete. Izan ere, jendez justu gabilta eta errekuaratzeko oso ondo etortzen zaigu.

Lehenengo bi jardunaldietan, bata irabazi eta bestea galdu.

Bai. Positiboki baloratzen dut denboraldi hasiera hau, batez ere, jokalariek eman duten mailagatik. Lehenengo partidua Baztanen jokatu genuen. 16 jokalarirekin joan ginen, eta eurak ere justu zebiltzan jendez. Irabaztea lortu genuen, bonusarekin, eta sentsazio onekin, gainera. Beldur apur bat geneukan, lehenengo partidua zelako kategoriatan berri batean. Baina motibazio eta indar handia eman zigun irabazteak.

Bigarrena galdu.

Bigarrena Maritxu Kajoi asteburuan izan zen, horrek dakarren guztiarekin. Hala ere, jokalariek zentratuta etorri ziren, eta zuten guztia eman zuten zelaian. Partidu osoan zehar egon ginen lehiatzen, aurretik ere joan ginen zenbait momentutan, baina az-



Igor Isasi, Mojategin. GOIENA

keneneko minutuetan ihes egin zigun partidua.

Hala ere, denboraldia hasi besterik ez da egin.

Bai. Gure helburua, orain, taldeak ezagutzea da, ez ditugu eta ezagutzen. Kategoriatan berri hau oraindik ezezaguna da guretzat eta astez aste etorriko zaigunaren esperoan egoten gara. Aste honetan liderra dator, maila bat gorago ere egon izan dira; beraz, badakigu talde indartsua izango dela eta oso partidua zaila izango dela. Hori jakinda, helburua jenderik ez lesionatzea izango

da, larri gabiltzala kontuan hartuta.

Erronkaz beteriko denboraldia duzue aurretik. Aipatu duzu talde berriak direla. Horrek nola eragiten du zuen egunerokotasunean?

Entrenamenduetara ahalik eta jende gehien etortzea ezinbestekoa da. Batzuek ezin izaten dute, lana edota ikasketak direla eta. Hala ere, astez aste baikorrak izatea eta gogor lan egitea tokatzen zaigu. Debekak daukate kexatzea. Egoera zailenetan umore ona ateratu behar dugu, eta elkar animatu.

Gogorra izango da denboraldia.

Bai. Batez ere, daukagun jokalarik kopuru aldetik. Horrek asko markatuko gaitu. Hasiera batean, ekainean, txapelketa amaitu ostean, batu egin ginen eta aurre fitxa ateratzeko izenak eman ziren. 25 jokalarik inguru genituen, baina horietako lauk edo bostek diote oraingoz ez dutela fitxa egin gura, eta horrek asko mugatzen gaitu. 20 fitxa ditugu, baina orain arteko bi partiduetara 16 jokalarirekin joan gara, aldaketa bakarrarekin. Gordina badirudi ere, orain, sufritzen ari gara eta izena eman zuten horiek kontuan hartuko behar ko lukete hori, gainontzeko jokalarientzat bada ere.

Eta hori, talde indartsuen aurka, gehiago nabarituko duzue.

Bai, argi eta garbi. Lau aldaketarekin nahiko eroso zabilta, aldaketak nahi direnean egiten direlako errugbian eta horrek aukera handiak ematen dituelako. Baina jokalariek guztiek partidua osoa jokatu beharra izaten badute, nekea asko nabaritzen da. Beraz, ekainean izena eman zuten horien atzetik gabilta, matraka ematen, ea animatzen diren.

Jokalarik kopuru horrengatik -25- animatu zineten kategoriatan berri honetan hastea?

Bai, noski. Jakin izan bagenu 20 jokalarik izan behar genituela, bi aldiz pentsatu behar izango genuen. Azken finean, jendea lesionatzen doa, partidua bakoitzean karga handitzen joaten da eta hori asko nabaritu da denboraldia aurrera joan ahala. **Hori guztia kontuan hartuta, disfrutatu ahal izango duzue?**

Bai. Aurreko astean, galdu arren, jendeak disfrutatu egin zuen. 12-13 jokalarik ditugu entrenamendu eta partidua guztietara

etortzen direnak eta horiek nahi izaten dute partidua lehiatu bat jokatu, erraz irabazi baino. Beraz, alde horretatik, disfrutatu egin dugu orain arte.

Partiduetan lehiatzea garrantzitsua izango da zuentzat.

Badakigu sei bat talderi, gutxienez, aurre egin diezaiekegula seguru; etxean, behintzat. Gero, beste lau bat talde daude maila bat gorago daukatenak.

Beraz, helburua da liga baten barruan dagoen bestelako liga horretan lehiakor izatea.

Hori da. Sei talde horien aurka partidua irabazten saiatzea izango da helburua, eta beste partiduetan ahalik eta jende gutxienez lesionatzea.

Mojategi da zuen indargunea?

Argi dago baietz. Entrenatzen den lekuan beti abantaila duzu, eta, gure kasuan, belar artifiziala izanda, areago. Belar naturalean askoz joko motelagoa da; euria eta lokatza egoten bada, orduan eta motelagoa, eta horrek guri kalte egiten digu, talde ari eta bizkorra daukagulako.

Asteburu honetan liderra hartuko duzue etxean, La Unica taldea. Oso partidua zaila.

Talde honek Ohorezko Mailan jokatu izan du. Oso indartsuak dira eta haien helburua maila igotzeko *play-off*-a jokatzeko da. Beraz, ahal den heinean, disfrutatzen saiatuko gara, baina garrantzitsuenak, lehen esan bezala, inor ez lesionatzea izango da, kontuan izanda oso zaila izango dela irabaztea.

"EGOERA ZAILNETAN UMORE ONA ATERA BEHAR DUGU ETA ELKAR ANIMATU; BESTELA, AKABO"

Quiron Askartza taldea hartuko du Ford Mugarrik Iturripen

Etzi, domekan, izango da partidua, 11:30ean, eta lidergoari eusten saiatuko dira Patxi Garciaeren mutilak

E.A. ARRASATE

Lau jardunaldi jokatu ostean, saillapeneko lehen postuan dago Ford Mugarri. Oraindik ez dute partidurik galdu arrasatearrek: hiru irabazi dituzte eta bat berdindu, hain zuzen.

Hala ere, espero baino denboraldi hasiera zailagoa izaten ari dela adierazi du Josu Herrero, taldeko kapitainak. "Oraindik ez dugu galdu eta emaitza aldetik ondo gabilta. Hala ere, jokalariek asko ditugu lesionatuta,

jendez justu gabilta, eta horrek asko baldintzatzen gaitu. Izan ere, entrenamenduetan ezin izaten ditugu jokaldi asko landu, eta hori partiduetan nabaritu egiten dugu", azaldu du.

Domekan, Quiron Askartza taldea izango dute aurkari. Lehen Nazional Mailatik jaitsi berri den taldea da eta Herrero aitortu du ez dutela taldea ezagutzen. "Ez dakigu nolako maila izango duten, baina guk etxean jokatu behar dugu eta irabaztera irtengo gara".



Kepa Zelaia, Ford Mugarriko jokalaria, jaurtiketa batean. IMANOL SORIANO



Asun Agiriano, Arrasateko Udal Bibliotekako liburuzaina. GOIENA

Bibliotekaren Egunaren bueltan, hainbat hitzordu

Urriaren 24an izango den Bibliotekaren Egunaren harira hainbat ekintza antolatu dituzte: giza biblioteka, 'Iraungorriko Marimiri' itzal-txotxongilo antzezlan eta Mursegoren eskutik Gloria Fuertes idazlearen gaineko emanaldia, hain zuzen ere

Imanol Beloki ARRASATE

Bibliotekaren Eguna urriaren 24an da, eta 1997a ezker ospatzen da Estatu osoan. Horren harira, hainbat hitzordu antolatu dituzte, Arrasateko gizarte irakurtzearen garrantzia gogorarazteko eta bibliotekari lana go-raipatzeko asmoz, besteak beste.

Urriaren 24an, martitzenean, Ekin Emakumeek, Gizarte Zerbitzuek eta Udal Bibliotekak elkarlanean egindako giza biblioteka izango da Kulturaten, 18:00etatik 20:00etara bitartean. "Kulturaten hainbat herritar batuko dira, eta beraien bizipenak kontatuz liburu bat egingo dute. Hala, pertsonak liburuak izango dira; izan ere, pertsona-liburuak ez dira irakurtzeko, entzuteko baizik...", adierazi du Asun Agirianok, Udal Bibliotekako liburuzainak.

Pertsona bakoitzak bere historiari izenburu bat jarriko dio, eta, oraingoz, hauek dira liburuen izenburuak eta bertan izango diren pertsona batzuk: *Diario*

de una inmigrante empoderada, Djamilia Zereiby –gaztelaniaz eta arabieraz–; *Urrutira joan, gertuago egon: familia ugari baten bidaiak*, Juanma Urrutia –euskaraz eta gaztelaniaz–; *Koruetako auzo eskola 1947tik 1954ra*, Esther Goikolea –euskaraz eta gaztelaniaz–...

Auzo-bibliotekan antzezlanak

Urriaren 26an, Zurrunka Teatro taldeak *Iraungorriko Marimiri!* itzal-txotxongilo antzezlan eskainiko du Santa Marinako auzo-bibliotekan. 18:00etan izango da, eta 3 urtetik gorako haurrentzat eta helduentzat zuzenduta dago. "Beti saiatu izan gara auzo-liburutegira ekintzaren bat eramaten. Apirilean, Zurrunka

URRIAREN 24AN EGINGO DUTEN GIZA BIBLIOTEKAN, PERTSONAK LIBURUAK IZANGO DIRA

taldeak tailerra eskaini zuen Santa Marinan, eta antzerki hau tailer horren jarraipena da", adierazi du Agirianok.

Gloria Fuertes: 100 urte jaio zela Amaitzeko, urriaren 27an, egubakoitzean, Maite Arroitauregi eibartarrak, Mursegok, Gloria Fuertes idazlearen gaineko emanaldia eskainiko du Kulturateko areto nagusian. Idazlearen *Historias de Gloria: amor, humor y desamor* laneko poemak hartu ditu ekitaldi horretarako. 19:30etik 21:30era arte iraungo du emanaldiak, eta helduentzat zuzendutako hitzordua izango da. Gloria Fuertes idazle madrildarra omentzeko antolatu dute ekimen hori. Izan ere, jaio zenetik 100 urte betetzen dira.

Bibliotekaren Eguna literaturarekin lotutako ekintza ezberdinekin antolatu dute, eta, hain zuzen ere, antolatzaileek herritarrei gonbidapena egin diete bertara daitezen.

"Bakarrizketa eta bertsoak uztartzen ditugu saio honetan"

ANE LABAKA BERTSOLARIA

'Erradikalak gara!' saioa izango da gaur, Kulturaten

I.B. ARRASATE

Ane Labaka bertsolaria eta Beatriz Egizabal antzerkilari eta ipuin kontalaria izango dira gaur, Kulturateko areto nagusian, bertso eta bakarrizketa formatuan, 19:00etan. *Erradikalak gara!* saioa eskainiko dute. Bi lasarterek elkar ezagutu zuten herriko kulturagintza sarearen eta mugimendu feministaren barruan eta elkarri zioten miresmenetik sortu dela ideia azaldu du Ane Labakak.

Ikuskizunarekin hasi zinetenetik, zer moduz doa?

Ia urtebeteko sorkuntza prozesuaren ostean, aurreko martxoan estreinatu genuen. Aste Kulturaren barruan. 23.a izango da gaur arratsaldeko emanaldia, eta aurreikusi baino arrakasta handiagoa izan du. Ez bakarrik emanaldi kopuruan, izan dugun feedbacka ere ona izan da eta. **Zer ikusiko du bertaraten denak?** Bakarrizketa eta bertsoak uztartzen dituen ikuskizuna izango da. Oinarrian, elkarrizketa bat dago bi pertsonaren artean. Hasieran, nahiko bertso-saio estandarra da, eta gero, hori deseraikitzen joaten gara, saioari bilakaera emanda.



Ane Labaka. BERTSOZALE ELKARTEA

Feminismoaren ikuspuntutik lantzen dituzue gaiak, ezta?

Beti galdetzen digute feminismoa den gai nagusia, eta beti esaten dugu ezetz. Feminismoa transbertsalki ikuskizun osoan dagoen osagai bat da, baina beste hainbat gai jorratzen ditugu: bertsolaritza, bertsolaritza emakumeen presentzia, euskalgintza, amatasuna, kultur aniztasuna, biolentzia...

Beti umore ukituarekin?

Bai, umorea arma politiko bat dela sinisten dugu biok, eta hori dugu ikuskizunaren oinarri.

Porco Bravoren emanaldia, urriko egitaraua ixteko

Glaukoma, Los Amantes eta Willis Drummond taldeen ostean, Kooltur Ostegunetako urriko egitaraua ixteko Porco Bravo Barakaldoko taldea izango da Arrasateko gaztetxean.

Zuzeneko zikin, basati, lotsabako eta dibertigarria eskaintzera etorriko dira bizkaitarrak. Ez da lehenengo aldia Arrasatera etortzen direna; izan ere, 2015ean ere izan ziren gaztetxean, eta orduan izan zuten arrakasta errepikatze asmoz etorriko dira Porco Bravoko musikariak. Barakaldoko taldea oso indartsu dabil azken urteetan, eta *Pulpo* taldekidea hil izanaren kolpetik aurrera eginez gogor datoz berriro.

Arrasate Musikaleko Bandak kontzertua eskainiko du Vianan

Vianako eta Arrasate Musikaleko bandek elkartruke musikala antolatu dute ikasturte honetarako. Vianakoak irailaren 30ean izan ziren Arrasaten, eta San Frantzisko elizan eskaini zuten kontzertua. Urriaren 21ean, zapatu honetan, berriz, Arrasate Musikaleko Bandak Vianan eskainiko du emanaldia.

Emanaldi horretan, gainera, Arrasateko gaiteroek ere parte hartuko dute. Hala, kontzertu horren errepertorioa Arrasaten jo zuten bera izango da, baina oraingoan, bi pieza gehiago joko dituzte, Arrasateko gaiteroekin batera. Kontzertua Vianako plazan izango da, arratsaldeko ordu batean.



Herriko hainbat guraso eta neska-mutiko Herriko Plazan ekimenaren berri jakiteko gogotsu. MIRARI ALTUBE

Gurasoek euskaraz jarduteko konpromisoa

Euskararen egoerarekin kezkatuta, herriko guraso taldetxo batek 'e! guraso' ekimena jarri du abian Loramendiren eta Udalaren laguntzarekin; kale erabilerak gora egiteko helburuarekin, astebetzez euskaraz bakarrik jarduteko konpromisoa eskatu dute

Mirari Altube ARETXABALETA

Euskararen kale erabileraren Aretxabaletako azken datuek zer pentsatua eman diete hainbat herritarri, gurasoak guztiak, eta, hortik abiatuta, *e! guraso* ekimena jarri dute abian. Horren berri emateko, herriko gainerako gurasoei egin diete dei, eta astelehenean mordotxo bat elkartu ziren Herriko Plazan.

Azaroaren 6tik abenduaren 1era

Gurasoen artean eta gurasoak haurrekin egon ohi diren eremuetan euskara gehiago erabiltzea du helburu ekimenak, eta, bide batez, seme-alabendako eredu izatea: "Nor bere hizkuntza ohiturez kontzientzia hartzea

eta guraso guztiei euskaraz bitzeko baliabideak eskaintzea ere gurako genuke", adierazi dute Iurgi Etxebarriak eta Goretti Aiastuik, ekimenaren sus-tatzaileetako bik.

Gurasoei eskatu diete astebetzez euskaraz bakarrik berba egiteko konpromisoa: "Erronka horretan parte hartuko dutenei arropan jartzeko txapak banatuko dizkiegu: berdea, euskaraz hitz egiteko konpromisoa hartzen dutenei; eta horia, euskaraz hitz egiteko gai ez izan arren berarekin euskaraz hitz egin dezaten nahi dutenei".

Azaroaren 6an jarriko dute abian ekimena. Izena emandakoak lau taldetan banatuko dituzte orduan,

eta, abenduaren 1a bitartean, aste bakoitzean, guraso talde bat izango da konprometitua: "Astea bukatutakoan, gura izanez gero beste guztietan ere eronkarekin jarraitu, aurrera".

Izen-ematea zabalik

Dagoeneko zabaldu dute izena emateko epea. Ikastetxeen bitartez egin daiteke hori, Loramendira jota edo mezu bat bidalita helbide honetara: eguraso@gmail.com. Ondoren, antolatzaileek adieraziko diote zein aste egokitu zaion bakoitzari. "Kezkak batu gaitu eta ilusio handiarekin gabiltza lanean. Eraiki dezagun guztion artean Aretxabaleta euskaldun bat; anima zaitzete!".

Gurasoen ekimen berria zertarako?



IURGI ETXEBARRIA
GURASOA

"Aretxabaletarron %40k egiten dutela euskaraz diote ikerketek; gutxitxo iruditu zaigu. Jakin dugu hainbat herritan egin dutela esperientzia: astebetzez euskaraz bakarrik jardutea. Eta horri heltzea erabaki dugu geuk ere abenduaren 3a bitartean".



GORETTI AIASTUI
GURASOA

"Gurasoak euskaraz jarduteko konpromisoa hartzea gonbidatu ditugu. Euskaraz berba egiteko gai ez direnek ere har dezakete parte, eta ea guztiok batera eraginda, gurasoen artean, eta orokorrean kalean, euskara gehiago entzuten den".



NIRE USTEZ

XABIER
OTXOA

Kontzertu ekonomikoa

Kontzertu ekonomikoa. Baliteke bi hitz hauek, bakoitza bere aldetik, maiz entzunak izatea, baina benetako esanahia, jatorria eta historian zehar eduki duen garapenaren berri aditza ez da hain ohikoa. Batzuentzako ezezaguna edota anbigua izan daitekeen arren, euskal gizartearen garapenerako eta ongizaterako funtsezkoa dela uste dut.

Baina zer da kontzertu ekonomikoa? Hitz gutxi batzuetan, esan daiteke foru sistema tradizional bat dela, Euskadiren eta Estatuaren artean zerga erlazioa arautzen duena. Sistema foral honen inguruan badaude datu adierazgarri pare bat hemen azpimarratu nahiko nituzkeenak. Gaur egun euskaldunontzat onuragarria den kontzertu ekonomikoa ez zen gure aurretiko belaunaldiak borondatez lortutako ezer izan, 1878an ezarritako inposizio bat baizik. Aipatu beharra dago, zati handi batean, egungo gizarte zerbitzuen kalitatea, errepideak, heziketa, osasuna, eta abar, kontzertu ekonomikoari eta euskal gizartearen lanari eta konpromisoari zor dizkiogula. Batzuetan ez dugu aintzat hartzen guregan daukan eragina eta garrantzia, esamoldeak dioen bezala, ez dugu daukaguna baloratzen galtzen dugun arte.

HARIRA

GOIENA TELEBISTA, DENBORALDI BERRIA

URRIAREN 24AN, MARTITZENEAN, 21:00ETAN

GONBIDATUA: UNAI ELKORO, ARETXABALETAKO ALKATEA
ENEKO AZKARATEK AURKEZTUTA

BIDALI GALDERA:

POSTA ELEKTRONIKOA: BERRIAK@GOIENA.EUS

WHATSAPP: 688 69 00 07

TELEGRAM: 688 69 00 07

goiena
Zu hemen zaude.



Gaba Baltza: arimen festa berreskuratzen

Halloween gaua aretxabaletartu egin du Loramendi elkarteak, jaiaren euskal izaera berreskuratze aldera. Horren bueltan, ipuin kontaketa izango da martitzenean eta hitzaldia egunean; ekitaldi nagusia, oster, urriaren 31n egingo dute

Mirari Altube ARETXABALETA

Urriaren 31 badator eta munduko txoko askotan ospatuko dute Halloween. Baita Aretxabaletan ere azken urteotan; aurten, oster, Gaba Baltza izango da. Eta hori girotzeko, egitarau txukuna antolatu dute Loramendi elkarteko kideek.

Hitzaldia bi antropologorekin

"Umeen artean Halloween indarra hartzen zebilela konturatu ginen iaz, eta geure jaiak berreskuratzearen aldeko apustua egitea erabaki genuen", jakinarazi du Martin Berrizbeitiak, Loramendiko teknikariak. Bertako jaien gaineko hitzaldiak egin dituzte urte osoan –Aratus-teak, San Juan bezpera...–, eta orain, arimak kalera aterako diren gau horri helduko diote.

Gaba Baltza girotzen hasteko, Jaime Altuna (Amasa-Villabona, 1973) eta Josu Ozaita (Baliarrain, 1980) antropologoak gonbidatu dituzte datorren egunerako, urriak 26, udaletxe zaharrera (19:00). *Itzalitako gaba beltza berpizten* hitzaldia eskainiko dute horiek, eta Halloween edo Animen Gauak Euskal Herrian izan duen bilakaeraren berri emango diete elkartutakoei. Hain zuzen, jai horren gaineko ikerketa-lana egiteko, Juan San



Pertsona bat mozorrotuta, Gaba Beltza ospatzeko gertu. EKAITZ ZILARMENDI

Martin beka jaso zuten 2015ean, eta sasoi batean jai hori ospatzen zutenen esperientziak eta bizi-penak jasotzen jardun dute.

Heriotzaren gaineko ipuinak

Hitzaldiaren aurretik, urriaren 24an, martitzena, ipuin kontaketa saioa izango da *Ameli, ipuinen jostuna*-ren eskutik –Amaia Elizagoien–. "Heriotzaren gaineko ipuin sortarekin egingo digu bisita, eta musikarekin girotutako kontaketa izango da", azaldu du Berrizbeitiak. Bi saio egingo ditu: bata umeendako,

17:00etan, eta bestea helduendako, 19:30ean.

Gaba Baltza ospakizuna

Urriaren 31 iluntzeko jaiaren umeendako zein helduendako gertatu dute. Ludotekan elkartu (18:30) eta Mitarte kalean hasita (19:00), kantu eskean joango dira Herriko Plazaraino. Han egingo dute ekitaldi nagusia (19:45): "Ezusteak beteta egongo da, eta bakarrik aurreratuko dugu dantza taldeak ere hartuko duela parte", dio Loramendiko teknikariak.

Mozorroa eta kantua

Gaba Beltzak derrigor behar du mozorroa, eta horrek zelakoa izan behar duen zehaztu dute antolatzaileek: alkandora zahar bat eta praka ilunak, abarkak oinetan eta lastozko kapela buruan. Aurpegia, oster, izara zuriarekin estalita, eta begi zuloak eta ahoa beltzez margotuta –goiko argazkian agertzen den lez–. Hori gertatzeko, mozorro tailerra

egingo dute eguaztenean, urriaren 25ean, Algara ludotekan (17:00-19:00).

Kantua ere asmatu diote Gaba Baltza ospakizunari. Loramendiren bueltako lagunek idatzi dute letra eta Aitor Ziardegi musikari aretxabaletarrak doinuak.

Ikastetxeetan kantuaren berri eman dute –baita Youtuben ere–, neska-mutikoak ikasten

joan daitezten, eta urriaren 31n, hori kantuan eginda joango dira eskean Mitarte kaletik Herriko Plazaraino, han ekitaldi nagusiarekin bat egiteko.

Hona hemen kantua: *Oilarrak kukurruku ta astuek arrantza, zerbaittek aztoratute jaiki die antza! Arima txuriz bete da gure gaba baltza, hilddekuak eta bizixak, dantza eta dantza!*

"Ekoizleen eta kontsumitzaileen beharrak ezagutu gura ditud"

ZURIÑE PERALES NEKAZARI-INGENIARIA

Aretxabaletako elikagaien gaineko diagnostikoa egiten dabil eta herritarrekin bilera deitu du eguaztenerako

M.A. ARETXABALETA

Bertako elikagaien kontsumoaren gaineko diagnostikoa egiten dabil, Aretxabaletan, Zuriñe Perales iruindarra, eta, horretarako, herritarren parte-hartzea gura du. Datorren eguaztenerako, urriaren 25rako, dei egin die herritarrei; udaletxeko ganbaran egingo du bilera (18:00) eta aurretik izena eman behar da: atxabaltaelikatuz@gmail.com.

Agroekologiaren gaineko masterraren barruan egingo duzu diagnostiko hori; zer da agroekologia?

Kontsumitzeko eta ekoizteko eredu iraunkorra du oinarri eta hiru hanka dauzka: ekonomikoa –ingurumenari egindako kalteak, adibidez–; soziala, gizartean gertatutakoak norbanakoan eragina duelako; eta politikoa, antolamendu aldaketa dakarrelako.

Herritarren parte-hartzea eskatu duzu; zer jakin gura duzu?

Batetik, kontsumitzaileek dituzten arazoak edo beharrak kontsumitzeko orduan; bestetik, bertako baserritarren arazoak, zalantza, nahiak...; eta hirugarrenik, erdian dauden saltzaile txikiekin ere egon gura dut, euren egoera zein den jakiteko.

Lehen sektoreak pisu handia du Aretxabaletan?

Bailara industrializatua da hau eta lehenengo sektorean jende gutxi dabil lanean. Askok diote oso diru gutxi jasotzen dutela egindako esfortzurako; hortaz, egoera prekarioa izan daiteke.



Zuriñe Perales. MIRARI ALTUBE

Baina garrantzitsua da herri batek lehenengo sektoreari eustea. **Eguaztenerako antolatu duzun tailerra zeinendako da?**

Edonorendako. Elkartutakoei hausnarketa-lan bat egingo dute eta errealitatearen gaineko kontzientzia hartu, gero, dituzten ohituretan aldaketak eragiteko. Asmoa da ekoizleak, kontsumitzaileak eta saltzaileak elkartzea, eta bata bestearen lekuan jartzea. Oso dinamikoa izango da eta guztiek izango dute ahotsa.

Zein ondorio dakar bertan ekoiztutako elikagaiak jan beharrean kanpotik ekarritakoak kontsumitzeak?

Ondorio asko daude, baina bi aipatuko nituzke: ingurumenari kalte handia, kilometro asko egin behar dituztelako hona ekartzeko; eta eredu jasangaitza izatea. Baliabide asko hartzen dira naturatik eta ez zaio denborarik ematen berritzeko. Hurrengo belaunaldi-takoen baliabideak xahutzen gabilta.

Jou Díaz
Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mobiliario
ARENZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



Galizia etxeko ordezkariak olagarroa gertatzen iazko jaialdian. GOIENA

Gura beste jateko eta edateko etzi, plazan

21. Gastronomía eta Folklore Jaia egingo dute domekan, eta, beste behin, Galizia, Extremadura, Gaztela eta Leon, Errioxa eta Euskal Autonomia Erkidegoa ordezkatu dituzten postuak izango dira Herriko Plazan, baita kantu eta dantza emanaldiak ere

Mirari Altube ARETXABAETA

Arrakasta handiarekin ospatzen den urteroko jaiaren hitzordua 21.ez iritsi da. Gastronomía eta Folklore Jaia bueltan elkartuko dira domekan (10:00-14:30) hainbat jateko eta edateko eskainiko dituzten bost autonomia erkidegotako taldeak; eta zelan ez, horiek dastatzeko gertu izango diren herritarrek zein bisitariak.

Olagarroa, txorizoa eta ardoa

"Aparteko nobedaderik ez dago aurtengo ospakizunean; betiko lez, jai giro bikaina izango dugu. Eta ez dago euriaren beldurrik, Herriko Plazako aterpeak babestuko gaitu eta", adierazi du Martin Garai antolatzaileak.

Errioxako ordezkariak txorizoa, urdaiazpikoa, beste hainbat hestebete eta ardoa ekarriko dituzte. Eta Voces del Ebro taldekoek kantu saioa eskainiko diete elkartutakoiei. Donostiatik etorriko diren Galizia etxeko ordezkariak olagarroa gertatu-

23. Patxaran lehiaketa

Patxaranek ere izango dute lekua Herriko Plazan. Norberak egingakoa izan beharko du, horrek eta kristalezko edo beira gardenezko botilan aurkeztu, bakoitzak gehienez bi; botilaren originaltasuna ere kontuan hartuko du epaimahaiak. Botila horiek domekan bertan 11:00etatik 14:00etara bitartean eramango dituzte Herriko Plazan jarritako mahaira. Irabazleen berri 17:30ean emango dute; hiru onenek jasoko dute garaikurra eta diru saria. Hiru botila horiek, gainera, enkantean jarriko dituzte, gero herritarrek eros ditzaten.

ko dute, urtero lez, eta herritarrek horren zain izango dira. Horrez gain, gaita doinuekin girotuko dituzte plaza inguruko bazterrak.

Gaztela eta Leongo ordezkariak ere ekarriko dute jatekoa eta edatekoa, pastak eta gailetak, adibidez, eta Laudioko San Fernando taldekoek dantza erakustaldia egingo dute. Eta Arrasateko Corazon de Encina kultur elkarteak extremadurarrak ere ez dute hutsik egingo.

Aratz eta Basotxo

Euskal Autonomia Erkidegoa ordezkatu dute Aratzek eta Basotxoko kantu taldeak. Adimen urritasuna duten elkarteak kideek bertako produktuekin egingako mokadutxo eskainiko dute edatekoarekin batera. Basotxoko kantu taldekoek, ostera, abesten jardungo dute eguerdi partean. Herriko kantariarekin eskualdeko beste hainbat erretiratu elkartetako kideek egingo dute bat.

Opariak bezeroendako

Gaur, egubakoitza, hasi eta hilaren 29a bitartean bi tamainatako poltsak –*Bizi, erosi Atxabaltan*– oparituko dizkiete bezeroei Aretxarteko 54 komertzio eta tabernetan. Horrez gain, hainbat zozketatan parte hartu ahal izango dute. Hain zuzen ere, Aretxarten erabiltzeko bonuak zozketatuko dituzte: 200 euroko bi, 100 euroko bat eta 20 euroko hamalau.



M.A.

Odol ateratzeak egiten dituen autobusa dator urriaren 24an eta 30ean

Odola emateko dei egin dute, beste behin, eta Arabako odol bankuko kideak etorriko dira datozen bi egunotan: urriak 24 eta 30. Autobusa Durana kalean izango da 16:45etik 20:00etara bitartean –Herriko Plaza barrenean–. Ohiko odol emaleez gain berriak animatu gura dituzte odola ematera, 18 urtetik gorako edonork eman dezake eta.

Goiena telebistako 'Harira' saioan izango da Unai Elkoro alkatea

Harira elkarrizketa saioko urriaren 24ko gonbidatua Aretxabaleako alkate Unai Elkoro izango da. Herritarrek ere egin ahal izango dizkiote galderak; hona hemen bideak: berriak@goiena.eus helbide elektronikoa eta 688 69 00 07 zenbakia Whatsapp edo Telegram bidez. Horretarako azkeneko eguna urriaren 23a izango da.

Ping-pong txapelketa antolatu dute Ibarra kiroldegian

Urriaren 25etik abenduaren 20ra bitartean jokatu den ping-pong txapelketa antolatu du Ibarra kiroldegiak. 16 urtetik gorakodako da eta izena emateko epea zabalik daukate gaur arte, urriak 20; kiroldegiko harrerara jo behar dute horretarako interesatuek (943-03 98 42). Partiduen egutegia eta ordutegia parte-hartzaileek zehaztuko dute.

Kalebarreneko jaiak ospatuko dituzte gaur eta bihar

Toño Barberok botatako txupinarekin hasiko dituzte jaiak gaur (18:00) Kalebarrenean, eta bihar gauera bitartean ekitaldi mordoak izango dira; besteak beste, buruhandien kalejira eta auzo afaria gaur, eta bihar, artisau lanen merkatua, auto klasikoaren erakustaldia eta patata-tortilla, mus eta pijama txapelketak.

UDAko talde guztiei argazkiak aterako dizkiete gaur, Ibarra

Aretxabalea kirol elkarteak 2017-2018 denboraldiko argazki ofizialak aterako dizkie kirolariei gaur, urriak 20. Ibarra futbol zelaian elkartuko dira (17:00), eta, futbol eskolako neska-mutikoekin hasita, sail guztietako taldeak jasoko dituzte erretratuak. Eurria eginez gero harmailetan elkartuko direla iragarri dute.

'In perpetuum mobile' antzezlanaren bihar Alanbike Teatroarekin

Alanbike Teatroak Leonardo da Vinci ekarriko du bihar, zapatua, Arkupeko aretoa, *In perpetuum mobile* lanarekin (22:00). Artista italiar handia *Azken afaria* lanaren sorkuntzaren bueltan izango da oholza gainean, eta musikak, pinturak eta gastronomiak bat egingo dute entzulearen zentzumenak horren bueltan piztuta.



Iaz, Ezkurtxorekin jolasen aritu ziren Jose Aranako txikienak eta ondoren talde argazkia atera zuten Huhezín. IMANOL BELOKI

Bolibar auzora etorriko da aurten Ezkurtxo

Zapatuan, Jose Arana ikastola aurrean autobusa egongo da Bolibar auzora joateko, arratsaldeko hiru eta erdietan. Han, besteak beste, umeentzako ipuin kontaketa, antzinako jolasak eta txokolate-jana izango dira

Imanol Beloki ESKORIATZA

Udazkenari ongietorria egiteko, Ezkurtxo eguna ospatuko da zapatuan Bolibar auzoan. Duela hogeitaz hamar urte hasitako egitasmoak bi urtez hutsunea izan du, eta aurten, 19. edizioan, Bolibar auzoa ezagutzeko aukera izango dute herriko neska-mutikoei. Hala, hainbat ekintza eta jolas izango dituzte han, eta, urtero moduan, Ezkurtxo ere izango dute lagun.

Eskoriatzako zazpi elizateak ezagutzeko ekimena izateaz batera, euskara eta irakurzaletasuna sustatzeko, familia eta lagun artean egun ona pasatzeko eta antzinako jolasak ezagutzeko helburuarekin antolatutako jaia da. Hala, zapatuan, arratsaldeko hiru eta erdietan, autobusa izango da Bolibarrera igotzeko, Arizmendiko Jose Arana ikastola aurrean, eta autoz ez joateko dei egin dute antolatzaileek, Bolibar auzoan apartatzeko arazoak egon daitezkeelako.

Maskarak, abestia eta jolasak

Ezkurtxo egunerako maskarak egin ohi dituzte Jose Arana guneko haurrek, eta aurten ere ez dira faltako. Bestalde, *Ezkurtxo* abestia ere ikasten izan dira egunotan, eta zapatuan kantatzen arituko dira bertaratzen diren txikienak. Hala, hainbat haurrek ikastolatik eramango dituzte maskarak, eta abestia ikasita, baina egunean bertan abestia ikasi eta maskarak egiteko aukera izango du nahi duenak.

Honela dio abestiak: *Ezkur bat, ezkur bi; Udazkena etorri; Ezkur bat, ezkur bi; Saltoka zuta ni; Aurtengo neguan; Edurra ugari; Ezkur bat, ezkur bi; Zuhaitzetik erori.*

AURTEN ERE, ANTZINAKO JOLASEN ALDEKO APUSTUA EGINGO DUTE ANTOLATZAILEEK

Antzinako jolasak

Zapatuan, Bolibar auzoan egingo dituzten ekintzen barruan, antzinako jolasak eskainiko dituzte: goitibeherak, tiragomak, bolak –ekintza horrekin, Bolibar auzoan dagoen bolatokia berreskuratu nahi izan dute antolatzaileek–, haurrek marraztutako txapak egitea eta piramidearen jolasa.

Kontu zaharrak eta ipuina

Jolas horiez gain, Bolibarko auzotar baten eskutik aspaldiko kontu zaharrak entzuteko aukera izango dute gaztetxoek, eta ikastolako guraso baten eskutik ipuin kontaketa egongo da, urtero egin ohi duten moduan. Egunari amaiera emateko, berriz, bertaratzen diren guztientzako, momentuan egingo dako txokolate-jana izango da, bizkotxoarekin.

Arratsaldea Bolibar elizatean pasatu ostean, herrira bueltatzeko autobusa 19:15 inguruan izango da.

Iñaki Perurena, *Harria, maitasun istorioa* saioan. ANBUNE

Iñaki Perurena harri-jasotzailea Eskoriatzan izango da gaur

Leitzarrak eskainiko duen 'Harria, maitasun istorioa' kontakizuna Zaldibar antzokian izango da, 19:00etan

I.B ESKORIATZA

Iñaki Perurena harri-jasotzailea herriz herri ari da egiten *Harria, maitasun istorioa* hitzaldia, eta gaur Eskoriatzan ikusteko aukera izango dute herritarrek. Emanaldia 19:00etan izango da, Zaldibar antzokian, eta sarrera doakoa izango da.

Harri-jasotzaile leitzarrak harriaren inguruan izan duen hartu-eman modu berezian azalduko du, zerbait sakonagoa eta zabalagoa eskainiz bertaratzen direnei. Ordubete inguru irauten duen emankizun poetiko horretan, bakarrizketaren bidez, Iñaki Perurenak harriari buruzko bere pentsamendu, go-goeta eta sentimenduak helaraziko dizkie entzuleei, bertsoz eta jasoaldiz hornitutako saioan.

Hain zuzen ere, harriarekin zer-nolako harremana izan duen azalduko du Perurenak: harriak zer eman dion, nola bizi duen

harriarekiko harremana, eta abar. Poesiatik asko duen go-goeta egingo du, harria metafora bihurtuta.

Etapari berri batean

Bere bizitzako etapa berri batean dagoela adierazi du Iñaki Perurenak, betiere, harriaren inguruan jarraituta: "Denon bizitzetan etapak izaten dira, eta nirean ere bai. 41 urtez harriarekin nolabait aritu naiz lehia-tzen, erakustaldiak egiten... Etapa hura pasatu zen, eta oraingo beste etapa baten, nik nire harriarekin jarraitu nahi dut, eta buruari buelta asko eman ondoren lantxo bat prestatu dut, eta uste dut hau dela orain harriaren inguruan jarraitzeko modu bat. Harri mordoxka bat eramaten ditut eta harri horiekin hausnarketak eta burutzioak eta azalpenak ematen saiatzen naiz".

Haur masaje ikastaroa, Luis Ezeiza eskolaren eskutik

Luis Ezeiza herri eskolak ikastaroa antolatu du ume txikiak dituzten familientzako. Gurasoak euren haur txikiarekin batera hazkunde goxoa bideratzen duen esperientzia sustatzeko asmoz, haur masaje ikastaroa antolatu dute, beste urte batez, haurrei masajeak nola eman irakasteko asmoz. Antolatzaileek azaldu

dutenez, hilabete eta sei hilabete arteko haurrentzako gomendatuta dago ikastaroa. Hala, urriaren 23an, 25ean, 30ean eta azaroaren 2an eskainiko dute ikastaroa, 17:30ean, Luis Ezeiza herri eskolako Haur Hezkuntzako eraikinean. Hala, interesatuek 943 71 49 38 telefonora deitu beharko dute.

Parte hartzaileek saioetara jantzi erosoak eta eskuoihalak eramantzen dituztela gomendatu dute antolatzaileek.



Ander Lipus eta Patricia Urrutia aktoreak oholtzan, *Hozkailua* antzezlanean. ARTEDRAMAMA

'Hozkailua', formatu txikiko lana, oholtzara

Arte eszenikoen Artedrama plataformak ekoiztuta eta Huts Teatroak aurkeztuta, adiskidetasunaren gaineko obra teatrala ikusteko aukera izango da domeka honetan, 19:00etan, Zaldibarren. Sarrerak lau eurotan izango dira salgai

Imanol Beloki ESKORIATZA

Ander Lipusek eta Patricia Urrutiak antzeztutako *Hozkailua* obra ikusteko aukera izango da domekan, Zaldibar antzokian. Unai Iturriagak idatzi du testua, eta, Manex Fuchs-ek zuzendua, umore beltzez betetako lana taularatuko dute.

Maite, Carlos eta Jimmy punkak izan ziren, eta Londresera joan ziren bizi izatera. Carlos Euskal Herrira bueltatu zen, eta, 22 urtera, Jimmyren heriotzak batu egingo ditu. Hozkailu batean ekarriko du Maitek Jimmyren gorpua Euskal Herrira, eta non ehortzi asmatzen saiatu beharko du Carlosekin batera. Izan ere, ez dakite Jimmy nongoa zen, eta haren herria bilatzen arituko dira.

Lagun arteko erlazioa oinarri

Hozkailua obrako Ander Lipus aktoreak hauxe adierazi du: "Aspaldiko lagunak dira Maite eta Carlos, eta beraien arteko road movie bezalako zerbait da.

Ibiltzen doan pelikula bat balitz bezala da. Leku bat bilatzen ari dira, eta bidean zehar gertatzen den pelikula bat bezala da".

Egoera teatralan, absurdoa, umore beltzeko ukituekin, eta tragedia baten barruan kontatutako antzezlan da, kontatze-modu ironikoa izanik, istorio mamitsuak helarazita.

Ikusleak identifikatuta

Musikak protagonismoa hartzen du obran; izan ere, 80ko hamarkadara salto egingo dute. Gogoko zituzten Rip, Eskorbuto, Hertzainak, The Clash eta halako taldeen kantak abestuko dituzte.

Hala ere, gaur egun duten egoeraz mintzatuko dira, atzera

EGOERA TEATRALEAN, ABSURDOA, UMORE BELTZEKO UKITUEKIN ETA TRAGEDIA BATEN BARRUAN KONTATUTA

begiratu barik, eta, belaunaldi hartako ikusleak identifikatuta sentitu arren, gazte eta helduak direnei zuzendutako obra ere bada. "Ez dugu belaunaldi batez soilik hitz egiten, erreferentzia batzuk ematen ditugu, baina adiskidetasunaz, kolega izate horretaz mintzatuko gara. Aitatasunaz, hipotekaz... Bi lagun minek izan ditzaketen egoera txar eta onekin...".

Formatu txikian, harrera ona

2017an, Pazko astean, Artedramak Aulestin antolatutako topaketan estreinatu zuten *Hozkailua* lana, eta harrera ona izan du ordutik hona. Ander Lipus aktoreak hauxe dio: "Eskoriatzako Zaldibar antzokira goazen lehenengo aldia da. Gainera, formatu txikiko lana da, baina ekipa zabalak antolatuta. Beste emanaldi batzuekin iristen ez garen plaza horietara iristeko prestatutako lana da. Hala, jendea animatu nahi dugu antzezlan ikustera".



Gazteen Ohorezko Mailakoak. ESKORIATZA KE

Bikain hasi dute denboraldia Gazteen Ohorezko Mailakoek

Eskoriatza areto futbol taldeak hirugarren jardunaldia Asturiasen jokatuko du, zapatuan, 16:45ean

I.B ESKORIATZA

Areto futboleko, Gazteen Ohorezko Mailan ari den Eskoriatzak denboraldia hasi berri du, eta zapatu honetan hirugarren jardunaldia Asturiasen jokatuko du La Isla del Siero taldearen aurka, etxetik kanpora, 16:45ean.

Lehenengo jardunaldian, 4-4 berdindu zuen Larderoren aurka, pasa den astean 8-5 irabazi zion Otxartabe taldeari eta hirugarren jardunaldia ere hiru puntuak lortzera joango dira eskoriatzarrek.

Bestalde, senior mailako emakumezkoen Gipuzkoako Liga

hasiko da asteburuan. Edozelan ere, Eskoriatzak atsedendia izango du lehenengo jardunaldian.

Lehen taldeak, derbia

Euskal Ligan lehiatzen ari den Eskoriatzako areto futboleko lehen taldeak Mondrateren aurkako derbia jokatuko du zapatuan, 17:30ean, Musakolako kiroldegian. Arrasatearrek eta eskoriatzarrek jokatzen duten lehenengo partidua izango da, eta harmailak beteta egotea espero dute taldekideek -informazio gehiago 38. orrialdean-.



IMANOL SORIANO

Seniorren lehen garaipena

Eskoriatza, emakumezkoen senior mailara igo berritan, 55-47 gailendu zitzaion Bilintx taldeari, pasa den astean jokatutako partiduan. Taldean sei senior daude soilik, eta, junior mailako jokalar askorekin jokatzer behartuta egon arren, maila ona erakutsi zuten. Lehen garaipena lortuta, hurrengo jardunaldian etxetik kanpora jokatuko dute, Ostadarren aurka.

Jasan taldea, Banden Lehia irabazteko gogoz

Azkue Fundazioak antolatutako Banden Lehian ari da parte hartzen Jasan Eskoriatzako musika taldea. Aurtengoa bederatzigarren edizioa da, eta domeka honetan bukatzen da musika talde gustukoenerari Internet bidez botoa emateko epea

Imanol Beloki ESKORIATZA

Banden Lehia Azkue Fundazioak sortutako lehiaketa da, eta eskal musika sustatu eta talde berriei hauspoa emateko helburua du. Aurten, bederatzigarren edizioa da, eta, guztira, hamar talde ari dira lehian; horietako bat Eskoriatzako Jasan taldea da, hain zuzen ere.

2015eko abuztuan Eskoriatzan sorturiko rock-metal taldea da Jasan. Taldearen sortzaileak Ixak Sarasua, Garikoitz Barandiaran eta Asier Mongelos izan ziren, eta 2016ko urrian Jokin Uribetxebarria baxu-jolea gehitu zitzaion taldeari. Lehenengo kontzertua 2015eko abenduaren 30ean eman zuten Oñatiko gaztelekuan; ordutik, beste hainbat kontzertu eman dituzte tabernetan, txosnetan, eta abarretan.

Lehen diskoa atera berri

2017ko uztailean lehen lana grabatu zuten, ... *soloik solo...* izeneko maketa. Bertan, beraien hiru kantaz gain, Itoiz taldearen *Ezekielen prophezia* kantaren bertsioa ere grabatu zuten. Honela azaldu du Gari Barandiaranek, taldeko bateria-joleak: "Lau abestirekin osatutako maketa atera berritan, Banden Lehiaketa erakusleihu ederra izan zitekeela pentsatu genuen. Gure musika zabaltzeko modu berri eta ezberdina da, eta gure asmoa finalera heltzea da. Hala ere, irabazten badugu, sari bikaina izango litzateke...".

Aretxabaletako musika eskolan grabatu zuten maketa, estudio batetik ekarritako materialarekin, eta, hasiberriak diren arren, Banden Lehiaketatik esperientzia bikaina aterako duten esperantzarekin daude.

Maila handiko taldeak

Barandiaranek zera dio: "Aurretik esperientzia handirik ez dugun taldea gara, eta lehiaketa honetan dauden beste taldeak



Jasan musika taldea. EKAITZ ZILARMENDI

JASAN, UZTAILEAN GRABATUTAKO LEHENENGO MAKETAREKIN LEHIATZEKO ASMOZ

gu baino nagusiagoak dira, ibilbide luzeagokoak. Hala ere, jendeari webgunera sartzeko, gure musika entzuteko eta gustuko badute bozkatzeko eskatu nahi diogu...".

Bi fase dituen lehiaketa

Lehiaketak bi fase ditu: lehena, Internet bidez burutzen den sailkapena da. Taldeek izena ematen dute *Bandenlehia.eus* webgunean, eta atari horretan talde bakoitzak bere musika argitaratuko du. Ondoren, taldearen jarraitzaileek eta publikoak Internet bidez bozkaturiko ahal izango dute, eta boto gehien lortzen duen taldea finalerako sailkatuko da automatikoki.

Epaimahaiak beste hiru talde aukeratuko ditu eta lau talde finalistak zuzeneko ekitaldian arituko dira finalaren egunean. Bigarren fasean, zuzeneko fina-

la izango da, bederatzigarren edizio honetan, Bilborocken izango dena, azaroaren 24an. Hala, bertan, emanaldi hori ikusten, publikoa eta epaimahaiakideak izango dira, eta irabazleak hainbat sari jasoko ditu.

Sari itzelak

2017ko Banden Lehiako irabazleak sari hauek guztiak jasoko ditu: Baga-Biga diskoetxearekin disko bat ekoiztea, 2018ko Bilbao BBK Live jaialdian jotzeko aukera izango du, zuzeneko emanaldian, 2018ko Bartzelonako Euskal Herria Sona jaialdian joko du, eta Banden Lehiaketako 2017eko edizioako disko bilduma oroigarria jasoko du; Azkue Fundazioak lau finalistentzako disko bilduma oroigarria ekoiztuko du. Antolatzaileek ekoiztuko duten lehiaketako bildumako diskoaren hamar ale jasoko ditu taldekide bakoitzak.

Beste hiru talde finalistek, berriz, Azkue Fundazioak Banden Lehiaketarako talde finalistentzako disko bildumaren disko oroigarriaren hamar ale jasoko dituzte, eta banda bakoitzeko kide bakoitzak disko oroigarri horren hamar ale jasoko ditu.

LEINTZ GATZAGA 21

"Emakumeek paketatze lana egiten genuen; bestea, gizonek"

EUGENI KEREJETA GATZ PAKETATZAILE OHIA

Lau urtez paketatzaile aritu zen lanean

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Domekan, Gatzaren Eguna izango da, eta hainbat ekintza egingo dituzte; horietako bat gatz lantegiko langile eta garraiolarri izandakoei omenaldia egitea izango da. Hainbat gazkin omenduko dituzte, eta horietako bat da Eugeni Kerejeta gatzagarra. **Zein lan egiten zenuen gatz lantegian?**

Nik paketatzea egiten nuen. Mahaian jarri, batek poltsatxo bat betetzen zuen, eta besteak kartoieta sartzen zuen. Gero, gizonak egurrezko kaxetan sartzen zituen josita, estaziora eramateko.

Noiz izan zen hori? Ba, egin kalkulak... gaur egun, 88 urte ditut, eta 28 urte nituenean hasi nintzen bertan lanean, 32 urte nituenean ezkondu nintzen arte. **Zenbat langile izan zineten garai hartan?**

Dozena bat lagun ginen. Bost edo sei emakume eta beste horrenbeste gizon. Emakumeak paketatzen izaten ginen eta gizonenak gatzak egiten. Ezkontzean, lanetik irteten joan ginen. Rosarito Arana izan zen urte gehien eman zituena, zortzi egin zituela uste dut, hura izan zen azkena.

Zein zen gatzaren prozesua?

Uretatik gatzak hartzen zuten gizonak, eta hodi batetik irteten zen behera, emakumeak geunden lekura. Han gizon batek su egiten zuen eta gatzak sikatzen genuen paketatu aurretik. Sikatu eta bero-beroa egiten zen...



Eugeni Kerejeta. GOIENA

Lana gogorra zen?

Ez. Eserita egiten genuen lan, baina, astean behin, bati zutik egitea lan egokitzen zitzaion, poltsatxoak betetzen. Gizonak ere oso lasai ibiltzen ziren lanean... Hala ere, guk astelehenerik zapatuta egiten genuen lan, goiz eta arratsalde, eta garai hartan, gainera, ez zeuden gaur egun dauden zubiak...

Garai zailak ziren?

Eguneko zortzi pezeta irabazten genituen, eta, behintzat, heltzen zitzaigun dirua zerbaitetarako. Horrekin konpondu behar genuen. Hala ere, garai hartan, gauzak merkeago zeuden gaur egun baino...

Domekan omenaldia; zer espero duzu?

Gaur egun zer egiten duten ikustea da nire asmoa, orain nola egiten duten... eta horrekin konforme.

Lehentasunak eta erronkak identifikatu dituzte hirugarrenean

Iragana, gatzak eta etorkizuna proiektuaren hirugarren lana egin dute gatzagarrek, Aztiker soziologia ikerguneko teknikarien laguntzarekin.

Eguaztenean kultura etxean batu ziren, eta, azken lan-bilera horrekin, amaiera eman diote gatz iturburuaren proiektua ezagutarazteko hausnarketa herritarrari.

Hala, hirugarren saio horretan, etorkizuneko erronka nagusiak eta lehentasunak identifikatu zituzten.

Herriaren etorkizuna eta herriaren garapen sozial eta ekonomikoa lantzeko, Leintz Gatzagako Udalak ezinbestekotzat du herritar eta eremu ezberdinen arteko elkarlana eta harremanak garatzea, eta saioak arrakastatsua izan direla adierazi dute udal ordezkariak, herritarrek izan duten konpromiso maila handiagatik.



Ciel Brooijmans hezitzaile soziala memoria tailer bat eskaintzen, Idiazabalen. FLICKR

Hainbat saio, zahartzaro osasuntsua izateko

Alaiak Jubilatuen Elkarteak memoria tailerra antolatu du aurtengo ikasterterako; Ciel Brooijmans hezitzaile sozial herbeheretarrak eskainiko ditu saioak, gaztelaniaz, eta jendea animatu guran dabilta, gutxienez 15 pertsona behar dira-eta taldea osatzeko

Eneko Azurmendi ARAMAIO

"Adinean aurrera goazenontzat ezinbestekoa da gure burua zaintzea, bai fisikoki, baita mentalki eta emozionalki ere. Horregatik, memoria tailer hau antolatu dugu, gure ongizatea hobetuko duelako", adierazi du Cristina Etxenausiak, Alaiak Jubilatuen Elkarteak kidea.

Hamar saiotan banatuko da tailerra eta hainbat ariketa egingo dituzte: kontzentrazio eta arreta ariketak, komunikazio teknikak lantzekoak, behaketa teknikak lantzekoak, pentsamenduen egituraketa lantzekoak, oroitzapena ondo erabili eta mantentzeko ariketak, eta abar.

Ciel Brooijmans

Saio horiek Ciel Brooijmans hezitzaile sozial herbeheretarrak eskainiko ditu. "Zahartzaroarekiko nire ikuspegi propioa garatu nuen, baita teknika lantzeko nire teknika propioa ere, eta hori ari naiz lantzen azken bost urteetan, tailerren eta hitzaldien

bidez. Arte-terapia eta psikodrama bezalako teknikak erabiltzen ditut, bakoitzak aukeratu dezan bide egokiena bere zahartzaroa ahalik eta pozgarriena izateko", azaldu du.

Gaztelaraz izango da tailerra, *Cuidar la memoria* izenpean. "Tailer hauetan, memoria ez dugu modu isolatuan lantzen, baizik eta testuinguru oso baten barnean –fisikoa, mentala eta emozionala-. Izan ere, memoria ona izateko, garrantzitsua da osasuntsu jatea, gorputza mugitzea, estresa saihestea, zahartzen ari garela onartzea, gure ongizatea zaintzea, eta abar", azaldu du hezitzaileak.

Hala, espezifikoki memoria-erendako diren aspektu batzuk

"MEMORIA EZ DUGU MODU ISOLATUAN LANTZEN, TESTUINGURU BATEN BARNEAN BAIZIK"

lantzeaz gain, zahartzaro aktibo eta osasuntsua izateko "ezinbestekoak" diren aspektu batzuk ere landuko dira saioetan.

Herbeheretarrak azpimarratu du zahartzaroan aldatu egiten direla bizitzarekiko interesak eta jarrerak. "Denbora luzeagoa dugu eta beste erritmo batean bizi gara".

Taldea osatu guran

Gutxienez 15 lagun behar dituzte taldea osatzeko, eta, oraingoz, hamar lagunek eman dute izena.

Hori dela eta, Jubilatuen Elkarteak herritarrek animatu nahi izan ditu saio horietan parte hartzeko.

Behin taldea osatutakoan jarriko dute hasiera eguna, eta hamar saio izango dira guztira. Martitzenero izango dira, 10:00etatik 12:00etara, erretiratuaren lokalean. Izena emateko, telefono hauetako batera deitu behar da: 605 72 05 31 edo 675 00 88 21. Izen-emateak 40 euro balio du.

Nerabeei zuzendutako topaketa urriaren 28an, Dulantzin

Gorbeialdeko Kuadrillako Prebentzio teknikariek *Nerabeen burmuina eta alkohol kontsumoa* topaketa antolatu dute. Vicente Fernandezek hitzaldia egingo du Dulantziko kultura etxean, 10:15ean. Izena emateko, epmaraba@yahoo.es helbidera idatzi edo 650 47 17 18ra deitu behar da, urriaren 23a baino lehen. Plaza mugatuak izango dira.

Telefonicarekin hiru hitzarmen sinatu ditu Aramaioko Udalak

Telefonica enpresarekin hiru hitzarmen sinatu berri ditu Aramaioko Udalak, azpiegitura eginda dagoen Zalgo, Errotabarrri, Arriola eta Eguzkierripa auzuneetan, euren lineak lurperatzeko. Bestalde, aurten egin diren Gureiako obren ondoren, Telefonicari eskaera egin dio Udalak, han ere euren zerbitzuak lurperatzeko.

Udal bideen inbentarioaren lehen fasea aurkeztuko dute

Datorren martitzenean –urriak 24– izango da aurkezpenean, udal-letxean, 19:00etan. Lehen fase horretan jasotzen dira aparteko arazorik sortzen ez duten ohiko bideak, asfaltozkoak, zementuzkoak, eta abar. Martitzenean, nahi duenari aurkeztuko dio Udalak eta egunean osoko bilkuratik pasako da, lehen onarpena emateko.

'Gure artien euskaraz' kanpaina jarriko dute martxan gaur

Gaur egingo dute aurkezpen argazkia, plazan, 19:00etan. Kanpainan herriko ordezkariak zabala izan nahi da: Txirritolako bazkideak, herriko tabernari eta merkatariak, herriko kultur eta kirol taldeak, eta, horretaz gain, gonbidatuta dago euskararen erabilera bultzatzeko konpromisoa hartzeko prest dagoen beste edozein ere.



NIRE USTEZ

MARIA IZAGA

Ume kontuak

Hurrengo geltokia, Legebiltzarra. Bi umek beste bati: "Zure arazoa da iraintzen bazaituzte, guk ez zaitugu lagunduko". Arratsaldeko bostak dira eta tranbia beteta dago. Bi emakume doaz beraiekin, eta hori entzutean: "Ume kontuak, badakizu". Ba, begira, nik ez, nik ez dakit. Txikitan negartia nintzen, bueno, txikitan, gaztetan eta heldutan. *No problem.* "Berezia" ere banintzen eta herri txikikoa. Negarti+berezi+herri txikiaren batuketa sinplea da: burlen jomuga. Ez nabil nire burua biktimizatzen, ez nazazue gaizki ulertu, gertaera objektibo bat nabil azaltzen. Askotan entzun izan nuen nola helduek *ume kontuak* zirela esaten zuten, eta, egia esan, ez dut kontzeptu hori inoiz ulertu, gazteak ere ikusi izan ditudalako *ume kontuak* egiten eta "berezia" seinalatzen. Helduak ikusi ditut desberdina zauritzen, baina oraindik ez diot jokoari grazia aurkitu. Tranbiako umeak larritzen nau, hor egon naizelako. Emakumeek larritzen naute, baina nik zer dakit? *Ume kontua* izango da. *Hurrengo geltokia, Honduras.*

Bixente Goikoetxearen oroigarri plaka berritzen ari da Udala

Bixente Goikoetxea musikaria hil zenean, 2016an, hura jaio zen etxean oroigarri plaka jarri zuen Udalak, eta orain, berritzen ari dira plaka hori. Horregatik, aldamio batez inguratutik dago. Lan horrek 3.800 euroko aurrekontua dauka, eta, Udalaren esanetan, "horrela, musikari horren presentzia txukun gertatuko da udalerrian".

"Ezusteanean izendatu ninduten herriko alkate"

JULIAN UNZUETA ALKATE OHIA ETA HERRIKO SEME KUTUNA

Domekan omenaldia egingo diote Unzuetari; udaletxeko osoko bilkura aretoan izango da hori, 13:00etan, eta udal ordezkariak, herriko taldeak eta familiakoak egongo dira

Eneko Azurmendi ARAMAIO

Unzuetak zortzi urte egin zituen alkatetzan, 1971tik 1979ra, eta ondoren, Arabako diputatu izan zen, 1979tik 1983ra arte.

Nola heldu zinen alkate izatera?

Baserri bateko gorabeherak zirela eta, Arabako diputatu zen ingeniari bat ezagutu nuen, eta oso harreman ona egin nuen harekin. Alkate izateko moduko gizona nintzela ikusi zuen, eta, niri ezer esan gabe, Diputazioko presidentea konbentzitu zuen ni alkate izateko. Hilabete geroago, gutun bat iritsi zitzaidan Gobernu Zibilera joateko, eta han esan zidaten Aramaioko alkate berria nintzela.

Ezusteanean, beraz?

Erabat harrituta gelditu nintzen eta hasieran ez nuen alkate izan nahi. Aurrez, Antonio Pol zen alkate eta hark eskatuta zeukan Aramaiotik Gipuzkoako mugarrainoko bidea zabaltzeko proiektua. Alkate sartu eta lau egunera, Diputazioko gutun bat jaso nuen esanez obra hori garestiegia zela eta ez zela egingo. Beraz, aukera aprobeztatu nuen eta presidenteari –Manuel Lejarreta– esan nion obra ez bazen egiten, ez nintzela alkate izango. Horrekin alkatetzatik libratuko nintzela uste nuen, baina justu kontrakoa gertatu zen. Onartu egin zidan tratua, eta errepedea zabaltzeko lanak hasi zituzten. Ez nintzen libratu, eta pixkanaka beste hainbat lan egin nituen.

Ikastola ere jarri zenuen herrian. Familia euskalduna zuten ume asko kalean gaztelaniaz berba egiten entzuten nituen. Frankismoa oraindik nahiko bizirik zegoen, eta euskaraz irakatsiko zen ikastetxe bat egitea pentsatu nuen. Beraz, Lejarretari laguntza eskatu nion, lokal batzuk prestatzeko, eta 1973-1974 ikasturterako, bi ikasgela zituen ikastolak. Andereno bat aramaiarra zen. Lehenengo ikasturtean, ia 40 ume egon ziren,



Julian Unzueta, etxeko atarian. ENEKO AZURMENDI

"LEGEZTATU ETA HURRENGO EGUNEAN UDALETXEKO BALKOIAN JARRI NUEN IKURRINA"

eta 1979-1980 ikasturtera arte egon zen zabalik.

Zein zailtasuni egin behar izan zenuen aurre alkate zinela?

Eskuin muturraren partetik mehatxu asko jasan behar izan nituen; batez ere, Guardia Zibilaren partetik. Horrez gain, ikastolaren aurkako jende askoren komentarioak entzun behar izan nituen; hezkuntza suntsitzen ari nintzela, eta abar.

Ikurrinak ere zeresana eman zuen zure alkate garaian, ezta?

Hala da. Bergarako Alkateen Mugimenduan nengoen. Arabako alkate bakarra nintzen. Batzar batean erabaki genuen garai hartan Espainiako presidenten Adolfo Suarezekin biltzeko eta ikurrina legeztatzeko eskatzeko. Jose Antonio Altuna *Txatillo* –Arrasateko alkatea–, Jose Luis Elkoro –Bergarako– eta Imanol Murua –Zarauzkoa– bil-

du ziren Suarezekin, eta 1977ko urtarrilaren 18an ikurrina legeztatu zuen hark. Hurrengo egunean Aramaioko balkoian jarri nuen; beraz, imaginatu batzuk nola jarri ziren. Frankista asko zegoen oraindik herrian, eta, gezurra badirudi ere, okerrak emakumeak ziren, gizonetako ez zuten hainbeste azaleratzen haserre hori.

Ikurrinarekin lotutako anekdota polit bat baduzu.

3 urte nituela, 1931n, nire aitona alkate zegoen. Errepublikan ezarri zenean, ikurrina kendu zuten udaletxetik eta bandera errepublikanoa jarri zuten. Horrek asko haserrarazi zuen nire aitona eta amari esan zion ni izango nintzela bere oinordekoa. Hala izan zen. Izan ere, 46 urte geroago, ni izan nintzen hurrena udaletxean ikurrina jartzen.

Alkate izan ostean, diputatu. 1979an Zuiako Kuadrilla sortu zen, sei udalek osatuta, eta, hauteskundeak iritsi zirenean, Kuadrillako diputatua atera behar zuten diputatu izateko. Seitik bost boto eskuratu nituen Mendi, Nekazaritza eta Abeltzaintza alorrean egin nuen lan. Oso gustura aritu nintzen diputatu.

Indarkeria matxistaren aurkako protokoloa jarriko da Kuadrillan

Irailaren 26an aurkeztu zituzten diagnosiaren emaitzak, eta orain, beste urrats bat gitea da helburua

E.A. ARAMAIO

Gorbeialdeko Kuadrillako Berdintasun Sailak Zuian aurkeztu zituen Gorbeialdeko Kuadrillako indarkeria matxistaren diagnosiaren emaitzak. Hain zuzen ere, hainbat ondorio atera zituzten diagnosi hartan.

Azken lau urteetan, bikotekideak edota bikotekide ohiak egindako erasoengatik Ertzaintzak jaso dituen salaketei dagokienez, 2013an zortzi izan ziren, 2014an zazpi, 2015ean bost eta iaz, 2016an, bost.

Tratu txarren inguruko ondorioekin jarraituz, salatzen duten bost emakumeetatik bik duela hamar urtez edo gehiago bizi izan dute indarkeria. Beste alde batetik, laguntza eskatu baino lehen, emakumeek tratu txarrak jasaten denbora luzea igarotzen dute.

Beste ondorio nagusi bat honako hau izan da: 2013 eta 2015 artean, 31 emakume izan dira indarkeria matxista jasan dutenak –zerbitzu publikoren batera laguntza eskatzen joan direnak– eta horietatik ia erdiak –%48– baino ez du Ertzaintzaren gana jo. Heren batek –%35– salaketarik ez jartzea erabaki badu ere, gehiengoaren kasuan, arreta psikologikorako zerbitzuak erabili ditu, eta, salaketa jarri edo ez, arreta hori jaso duten emakumeen herenak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik pasatu dira aurrez.

Emaitza horiek kontuan hartuta, Gorbeialdeko Kuadrillako

Berdintasun Sailak zera azpimarratu nahi izan du txosten baten bitartez: "Kontzientziazteko, sentibilizatzeko, formazioa emateko eta indarkeria matxista forma leunenak antzemateko eta lantzeko beharra daukagu: hitzezkakoak, emozionalak, ekonomikoak... Izan ere, indarkeria hauek emakume talde desberdinetan era ezberdinetan jazotzen dira; adibidez, emakume gazteengan, nagusiengan, migra-tuetan, eta abarretan".

Emaitzak hobetzeko helburuarekin, Gorbeialdeko Kuadrillako indarkeria matxistaren biktimen arretarako protokoloa lantzen ari da egun, eta laster emango ditu protokolo horren gaineko xehetasun gehiago.

Berdintasun Foroa

Gorbeialdeko Kuadrillako Berdintasun Foroa sortzeaz da. Kontsultarako, aholkularitzarako eta partaidetzako organoa litzateke, udal administrazioak herri mailan berdintasuneko politikak aurrera eramanez ahal izateko. Emakume eta mugimendu asoziatibo eta feministaren beharrak ezagutzea izango da helburua, pertsonen parte-hartze zuzena sustatuz, generoaren arloko programa edota jarduerak desberdinetan proposamenak eginez, udalekin lankidetzan.

Bide horri hasiera emateko, astelehenean egingo dute lehenengo bilera, Zigoitiko Zentro Soziokulturalean, arratsaldeko seieta.

Zarzuclara joateko izen-ematea zabalik, urriaren 26ra arte

Arrasateko zarzuclaren laugarren saiora joateko autobusa eta sarrera eskainiko du aurten ere Alaiak Jubilatuen Elkarteak. Interesa duenak 20 euro sartu beharko ditu elkartearen kontuan –bazkide ez denak 22 euro–, urriaren 26a baino lehen. Azaroaren 25ean izango da emanaldia, Amaia antzokian, Jesus Guridiren *El Caserio*.

Orri markagailu lehiaketa zabalik, azaroaren 25era arte

Gorbeialdeko Kuadrillak XII. orri markagailu lehiaketa antolatuko du. Edozeinek hartu dezake parte eta lanak aurkezteko epea azaroaren 30era arte egongo da zabalik. Gehienez hiru lan aurkeztu ditzake parte-hartzaile bakoitzak. Sei kategoria ezberdin izango ditu lehiaketak. Oinarri guztiak Udalaren webgunean daude ikusgai.

Miguel Altuna: irudi berria prest, egoitza gertuago

Miguel Altunaren egoitza berria bukatzeko azken data 2018ko maiatzaren 20rako zehaztu dute, eta, beste atzerapenik ez badago, espero dute 2018-2019 ikasturtea han abiatzea; egoitza berriak 9.719 metro koadro izango ditu, guztira, gaur egungoaren ia bikoitza

Jokin Bereziartua BERGARA

"Obrak atzeratzen joan dira, lanak hiru hilabetez gelditu egon ziren lurrak arazoak zituelako. Geldialdi horrekin 2017ko abendua jarri ziguten data moduan eta gutxira esan ziguten 2018ko martxorako amaituko zirela. Azken data, baina, maiatzaren 20a da". Halaxe azaldu ditu Miguel Altuna Institututuko zuzendari Josune Irabazalek eraikin berriko obren gorabeherak.

Lanak 2018ko maiatzaren 20rako amaituko balira, Irabazalek espero du 2018-2019 ikasturtea egoitza berrian abiatzea: "Ez bada gehiago atzeratzen mugan egongo ginatke. Bigarren mailako ikasleak 2018ko martxoan praktikak egitera joaten direnean egoitza zaharra berrantolatu eta gauza batzuk husten joan gura dugu; ea enpresa eraikitzaileak baimena ematen digun bi eraikitako batera behintzat sartzeko. Hori posible izango da, maiatzaren 20ko data ez bada atzeratzen".

Bi eraikin, 9.719 metro koadro

Egoitza berriak, bi eraikinetan banatuta, 9.719 metro koadro izango ditu, egungo eraikinaren ia bikoitza. Aurrealdeko eraikinak 3.329 metro koadro ditu: erdisotoan, 200 pertsonarenda-



Miguel Altuna berriko lanak airetik ikusita, irailean ateratako argazkian. MIGUEL ALTUNA

ko lekua izango duen aretoa eta jantokia –ikasleentzat zein irakasleentzat– izango dira; 0 solairuan, zerbitzu orokorrak, irakasleen gela eta bilera gelak joango dira; eta lehen solairua, azkenik, administrarritza alorreko heziketa zikloetarako baliatuko dute. Atzealdeko eraikinak, aldiz, 6.335 metro koadro izango ditu, bi zatitan banatuta: tekniko eta tailerrak. Alde teknikoak gelaz betetako lau pisutan banatzen da. Horiek berriazko ekipamendu tekniko hornitua eta erronketan oina-

rritutako metodologia garatzeko prestatuta egongo dira. Era berean, azaldu dutenez, Industria 4.0 sistemaren oinarritutako teknologia eskainiko duen gela berezia ere bertan joango da; gela horretan diziplinarteko erabilpenerako ekintzak sustatu nahi dira eta ziklo ezberdinetako ikasleek erabiltzeko modukoa izango da. Hala, diotenez, industrian erabiltzen diren antolakuntza ereduak txertatu ahal izango dira ikastetxean. Bestalde, tailerrei errepertuz, ziklo ezberdinetako

Izena aldatu arren, izaerari eutsi

2018an 90 urte beteko ditu Miguel Altuna Institututak. 1928an sortu zen Lanbide eta Ehungintza Eskola eta 1936ra bitartean, gerra aurreko garaian, Bergaran finkatzen joan zen. 1936tik 1944ra etenaldia egon zen eta 1944ko urriaren 16an Lanbide Eskolak ateak ireki zituen berriro ere.

Hurrengo data aipagarria 1955ekoa da, aldatetaz jositako garaieran hasiera: Bergarako Industria Maisutza Eskola. 15 urte geroago, 1970ean, Lanbide Heziketako Ikastetxe Nazionala izatera pasatu zen. 1990ean, berriz, Miguel Altuna Lanbide Heziketako Institutua deitzera pasatu zen eta zortzi urte geroago Goi Mailako Berriazko Lanbide Heziketako Miguel Altuna Institutua izena hartu zuen. Amaitzeko, 2015a ezkerko Lanbide Heziketako Miguel Altuna Ikastetxe Integratua izan da; eraikin berria "aukera iturri bihurtzea" gura dute.



Egoitza zaharra. MIGUEL ALTUNA

tailer guztiak zona komun zabal baten kokatuko dira; 2.062 metro koadroko espazioan horma bakar bat egongo da.

Eta Miguel Altuna berria erdigunetik urrunduko den arren, enpresa, elkarte, ikasle, langile, erakunde, ekintzaile eta, oro har, gizarteari ateak zabalik dituen erakunde izaten jarraituko duela azpimarratu dute: "Gure bezeroekiko gertutasuna zaintzen jarraituko dugu".

Zubia eta "zubi-lana" mantendu

Atzo, *Agur Elemental*, kaixo Miguel Altuna kanpaina aurkeztu zuten, Elemental zaharretik "aukeraz betetako" prozesu batera salto egiteko. Gogorazi zuten 2018an 90 urte egingo dituela Miguel Altunak: "Kanpaina hau etorkizuna eta iragana lotzeko zubia izango da". Hain justu, *Zure zubia* aukeratu dute

etorkizunerako lelo: "Lagatzen dugun Elemental zaharrenean ikurra izan da, eraikin berrian ere mantenduko duguna, gure zubia. Ikasleentzat ibilbide profesionaletarako zubia, DBHtik eta batxilergotik lan mundurako zubia, langileentzat etengabeko formaziorako zubia, ekintzaileentzat enpresa berriak sortzeko zubia...".

Horrez gain, irudi korporatibo berria ere aurkeztu zuten atzo: "Irudi indartsua eta gogoangarria; koloreari dagokionez, bergararren mahoi urdina darama, gure erroen adierazgarri".

TAILER GUZTIAK GUNE KOMUN BATEN JARRIKO DIRA, HORMA BAKARRA 2.062 METRO KOADROTAN

Sobietar Iraultzak 100 urte bete dituela eta, egitarau berezia

Urriaren 24an hasi eta azaroaren 3ra arte, gaztetxean ospatuko dute Errusiako Iraultzaren mendeurrena

J.B. BERGARA

1917ko urriaren Errusian izan zen Sobietar Iraultzak 100 urte bete dituela eta, Bergarako Sobietar deritzon taldeak zenbait ekintza antolatu ditu. Mendeurrena ospatzea eta iraultza hark izan

zuen "garrantzia" gogora ekartzea izango dira antolatu duten egitarauaren helburu nagusiak. "Mendeurrena aurtun ospatzen denez, ideologia ezberdineko norbanakoak elkartu ginen zerbitzuetan egiteko. Guretzat garrantzi

handia izan zuen urriko iraultzak, eta, horregatik, Bergaran ere urria gorria eta iraultzailea izango da", adierazi dute.

Urriaren 24an emango diote hasiera egitarauari, kalean egingo duten sorpresa batekin (18:00). Urriaren 25ean, *Octubre* filma ikusi ahal da gaztetxean (21:00); Serguei Eisenstein zuzendari duen 1928ko pelikula mutua da, iraultzaren hasiera islatzen duena. Urriaren 28an, K-17 kolektiboak hitzaldia emango du gaztetxean (19:00): *Iraultza so-*

biarraren garrantzia eta gaurkotetasuna 100.urteurrenean. Hitzaldiaren ostean jatekoa egongo da. Eta egitaraua amaitzeko, azaroaren 3an *La joven guardia* liburua aurkeztuko du Migel Usabiagak kartzela zaharrean (19:00). Liburuan, egileak bere aita Marcelo Usabiagaren bizitza kontatzen du; 1934an espetxeratu izan zen Asturiasko iraultzan egon zen jendeari ihes egiten laguntzearren. 36ko gerran borrokatu eta gerra galdu ondoren kartzelatu izan zen.

Berrerabilpena eta artisautza sustatzeko azoka domekan (11:00)

San Martin plaza Domeka Azokaren lekuko izango da, beste behin, etzi. 11:00etan hasi eta 14:30ak arte egongo da zabalik eta herritarrek aukera izango dute askotariko produktuak erosteko. Izan ere, elkartrukea, berrerabilpena eta artisautza sustatzeko sortu zen azoka duela urte batzuk; bi hilean behin egiten da.

Biziaren etorkizunera bidaiatzeko gonbidapena

Herritarrei "krisian dagoen" biodibertsitatearen gaia lantzerako gonbidatzeko, gaur irekiko den aldi bateko erakusketa eta askotariko ekintzak antolatu dira Laboratorium museoa; azaroaren 4rako itsas hegaztiak eta zetazeoak ikusteko irteera antolatu dute, esaterako

Jokin Bereziartua BERGARA

Gaur hasi eta abenduaren 10era arte, ekintzak izango dira Laboratorium museoa "krisian dagoen" biodibertsitatearen bueltan. Ekintza guztiak gaur irekiko den aldi baterako erakusketa dute oinarri eta museoa bertan garatuko dira, azaroaren 4an Kantauri itsasora itsas hegaztiak eta zetazeoak ikusteko irteera izan ezik.

Erakusketa bisitatzeko saio gidatuak antolatu dira: euskarazko saioak azaroaren 18an eta abenduaren 3an izango dira eta gaztelaniazkoak, berriz, azaroaren 19an eta abenduaren 2an. Bisita gidatu guztiak 11:30ean

izango dira eta ez dago alde aurretik izena eman beharrik. Hurrengo ekintza urriaren 21ean izango da, sugeak eta sugegorriak ezagutzeko tailerra (11:30). Aranzadi zientzia elkarteak gidatutako tailerra da, euskaraz, eta familiei zuzenduta; alde aurretik izena eman behar da.

Itsas hegaztiak eta zetazeoak

Urriaren 28an eta 29an marrazketa botanikoa deritzon tailerra emango dute, gaztelaniaz, Carles Puche eta Vega Asensio ilustratzaileek Beart-ekin elkarlanean; zapatuan goiz eta arratsalde izango da eta domekan, berriz, goizez bakarrik. Plaza mugatuak

izango dira eta prezioa 20 euro da. Bestalde, Bermeoko portutik abiatuta itsas hegaztiak eta zetazeoak ikusteko egingo den irteerarako, hitzaldi bat egingo da egun bat lehenago, azaroaren 3an. Prezioa 70 euro da, autobusa eta itsas irteera barne.

Abenduaren 1ean Herritarren Zientzia programa aurkeztuko dute; animatzen direnek, museoak gidatuta, espezie jakin batzuei jarraipena egingo diete. Bestalde, abenduaren 8rako eta 10erako (11:30) ipuin kontalariekin bisita gidatuak antolatu dira umeendako. Azkenik, kontserbazio biologikoaren gaineko hitzaldia egongo da, abenduan.

Auzoko ekimenean izena emateko dei egin du Jardun elkarteak

Euskaratik urruti bizi diren herritarrek euskarara hurbiltzea helburu duen Auzoko ekimenean 2017-2018 ikasturtea martxan dago. Hiru talde daude: emakumeen integrazioa lantzeko taldea -eguztenero elkartzen dira-, egubakoitz goizetako taldea eta egubakoitz arratsaldeetako. Taldeetako batera batzeko dei egin du Jardunek: 605 71 24 69.

Organo erromantikoaren zikloa ixteko kontzertua bihar Santa Marinan

Organo Erromantikoaren Nazioarteko Zikloaren 18. edizioak Bergaran utziko dituen kontzertuak amaitzeko, Ainhoa Zubillaga mezoak eta Loreto Fernandez organo-joleak emanaldia eskainiko dute bihar Santa Marina elizan, 20:00etan hasita. Azkoitian eta Azpeitian ere izango dira kontzertuak; azkena urriaren 28an izango da.

Bizikleta Festa antolatu du Lokatzak urriaren 29rako, seminarioan

Lokatza Ziklismo Eskolak beste urtebetez antolatu du Bizikleta Festa, Udalaren laguntzarekin; urriaren 29an izango da, seminarioan (11:00). Ohiko zirkuituaz gain, bigarren eskuko azoka ere egongo da. Azokarako materiala seminarioan batuko dute, honako egun hauetan: egubakoitzean 17:30etik 19:30era eta zapatuan 09:00etatik 11:00etara.

Oparitu Zuhaitz Bat ekimenaren inguruko beste saio bat egunean

Josu Garitaonandiak gidatzen duen Oparitu Zuhaitz Bat egitasmoaren barruan, beste saio bat egingo dute urriaren 26an kultura etxean (19:30). Honako gai hauek landuko dira egunean: kutsadura elektromagnetikoa, Fiare banku etikoaren jarduerak, kooperatiba energetikoak eta Oparitu Zuhaitz Bat ekimena, hain zuzen ere.

Bidebarri

LANERATZE ENPRESA

20 urte vending zerbitzua eskaintzen

"Eskaintza bereziak bidezko merkataritzako kafe eta txokolatean enpresa txiki eta ertainentzat"

Eskatu aurrekontua inolako konpromisorik gabe:
Tel. 943 716 479 • Mug. 617 677 913 • bidebarri@terra.com

merkatu
Soziala

FAIRTRADE
INTERNATIONAL



www.bidebarri.org



Bihar gaueko moda desfilean parte hartuko duten herritar batzuk frontoiairen atarian, eguazten iluntzean. XABI URZELAI

Dena prest herria oinarri duen moda desfilerako

Udalaren eta Bedelkarren Bergara Bizi ekimenaren barruan, moda erakustaldia izango da bihar, zapatua, Udal Pilotalekuan; ordu eta erdi inguru iraungo duen ikuskizunean, ia 100 herritarrek modelo lanak egingo dituzte, eta sorpresarik zein umorerik ez da faltako

Jokin Bereziartua BERGARA

Udal Pilotalekua bete egingo da Udalak eta Bedelkarrek elkarlanean antolatu duten desfileaz gozatzeko. Bihar izango da, zapatua, 22:00etan hasita. Martitzenean 890 sarrera jarri ziren salgai, bost eurotan, eta sarrera eskuratu dutenek gutxi gorabehera ordu eta erdiko ikuskizunaz gozatzeko

aukera izango dute. "Azken orduan izaten diren arazotxoek harago, prestaketak oso ondo doaz. Denda bakoitzak prest ditu bere modeloak, pozik eta gogotsu gaude. Ea dena ondo irteten den", adierazi du Bedelkarko Ainhoa Garitanok. Aurten, zuzenean edo zeharka, 27 dendak hartuko dute parte eta denda bakoitzak lau

modelo aterako ditu; ume zein heldu, emakumezko zein gizonezko. "Denda bakoitzaren lau modeloztat hiru minutu kalkulatu ditugu, uste dugu nahikoa dela erakusteko". Modeloak herriaren aurrean desfilatzera animatzea ez da eginkizun zailena izan, Garitanoren arabera: "Lotsak badaude, baina askoz errazagoa

izaten da dagoeneko irten dena konbentzitzea. Behin egin dutenek ez dute errepikatzeko arazorik izaten, zailena da lehenengo aldiz irtengo den hori konbentzitzea".

Nobedadeak eta sorpresak

Nobedadeak izango dira. Pasarela karratua izango da aurten eta erdian ez du zulorik izango; neurriari dagokionez, 12x10 metrokoa izango da. "Aldaketa handiagoak genituen buruan, baina frontoiak ez du aldaketarako marjina handirik eskaintzen. Luzeran, kantxak ematen duena ematen du, ezin daiteke apenas ezer aldatu. Lehen desfilea plazan egin genuen, eta beti da politagoa kanpoan egitea, aukera gehiago ematen ditu. Baina euria egiten badu, ezin daiteke ezer egin...". Gainera, sorpresak izango dira; esaterako, atrezozan, garai bateko jostunek eta

egungo diseinatzaileek presentzia izango dute eta ukitu bergarar nabarmena duen umorerik ez da faltako.

Esandako moduan, zuzenean edo zeharka, 27 dendak hartuko dute parte ikuskizunean: Alga, Amparo, Amua, Anezka, Annika, AJ, Black 3 Bordatuak, Embalan3, Galarreta, Igaro, Igarza, Izarra, Joka, Jolas, KB Photoestudio, La Barata, Lilura, Lonbide, Maka, Manso, Ninika, Mujika Sastreria, Subijai, Xamartin, Xarma, Xuxu eta Zubikua. Alfabetikoki irtengo dira, atzekoz aurrera.

PASARELA KARRATUA, ERDIAN ZULORIK GABEKOA, ETA BESTE HAINBAT SORPRESA IZANGO DIRA AURTEN



NIRE USTEZ

SAIOA GARITANO

Zubigintza

Errigoraren ikasturte honetako erronkak zubiak gurutzatzen jarraitzea eta zubi berriak marraztea dira; horregatik, *Zubigintza* urtea izango da. Zubi berriak eraiki nahi dira, dendarien, jantoki kontsumo-taldeen, eta abarren artean.

Egunen baten kanpainetatik harago merkaturatze bide berriak zabaltzeko ametsa egia bihurtu dadin. Proiektu honek Nafarroa hegoaldeko produktuei Euskal Herri guztian bidea ematea eta bertako euskalgintzari

bultzada ekonomikoa ematea du helburu eta etekin ekonomikoaren zati bat zona horretako euskalgintzari bideratzea.

Hau guztia, herrigintzan, auzolanean... Lan kolektiboan oinarrituz ekarpen txiki bat egitea, ekoizleentzat zein kontsumitzaileentzat egokia den prezioan.

Kalitatezko jakiak eskuratzeko, ingurumena zaintzeko eta nekazarien eta ekoizleen ogibidea babesteko.

Errigoraren ibilbidean zubiak eraiki dituzte, lurra eta euskara, auzolana eta

elikadura, nekazariak eta euskaltzaleak. Uzta biltzea, orburuak erostea, Vianako ikastolari diru-ekarpena egitea...

Ekintza txiki bakoitza guztia osatzeko ezinbesteko bihurtu da.

Udazkenean, Nafarroa hegoaldeko uzta euskarari puzka izango dugu eta udaberrian Nafarroa hegoaldeko uzta eskutik eskura.

Amesteari uzten ez zaion bitartean, zubigintzan jarraituko da, bertan jarraitzea nahi da.

Programazio berria aurkeztuko du etzi Txapa Irratiak

Txapa Irratiak domekan aurkeztuko du programazio berria -FM, 97.20-, kartzela zaharrean, 18:00etan hasita. "Eta ez dugu edonola aurkeztuko! Irratia bera irratsaio ezberdinen batuketara baino askoz gehiago izanik, deon artean Txapa gala izeneko ekimena prestatu dugu. Irratsaio bakoitzak, bere erara, musika instrumentu, ahots, teknologia zein beste edozein tresna eta gonbidatu ekarritara, aurkezpen berezi bat gertatu dugu", diote. Galaren ostean Baztango Kaskezur taldeak *Azpisugeak* diskoa aurkeztuko du zuzenean: "Riff kitzikagarriek bustitako doinuak, melodia bikainak eta jarrera aparta". Luntxa ere egongo da.

OHARRAK

1933an jaiotakoak

Azaroaren 12an Zumelaga jatetxean bazkalduko dute. Mezara joan ondoren, 14:30ean bazkalduko dute. Izena eman behar da Intxorta tabernan, aldeztu aurretik sei euroko aurrerakina ordainduta.

1959an jaiotakoak

Urriaren 28an Tartufo jatetxean afalduko dute. Santa Marinako geltokian hartuko dute autobusa, 21:30ean. Parte hartzeko, dirua sartu behar da Laboral Kutxako kontu korronte zenbaki honetan: 30350009170090099702. Prezioa 56 euro da; afaria eta autobusa sartzen dira prezioaren barruan.

Bergara, zientziaren eta berrikuntzaren epizentro

Bergarako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Jardunaldiak azaroaren 2tik 12ra izango dira eta hamar egun horietan egunero egongo da saio interesgarriren bat herrian; hitzaldiak, mahai-inguruak, azokak eta lehiaketak izango dira, besteak beste

Jokin Bereziartua BERGARA

Azaroaren 2tik 12ra, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Jardunaldiak egingo dira Bergaran. Udaleko, Laboratorium museo-ko eta Jakiundeko ordezkariak eguaztenean aurkeztu zuten hirugarren edizioa, Donostia International Physics Centerren. Jakiundeko eta DIPCKo presidente Jesus Ugaldere esanetan, "ohorea" izan da aurtengo jardunaldiak Donostian aurkeztu ahal izatea: "Gustu handiz hartuko dugu parte, zientziaren dibulgaziorako oso lan garrantzitsuak egiten ari direlako".

"Oso programa aberatsa"

Bestalde, Elena Lete alkateak gogora ekarri duenez, jardunaldion hasierako helburua zen Bergarako, Antzuolako eta Elgetako enpresen artean berrikuntza teknologikoari buruzko ezagutza zabaltzea: "Programak eta parte-hartzaileak handitzen joan dira, eta espezializazioak biderkatzen. Oso egitarau aberatsa du, oso gai zabalekin, eta askotariko diziplinak lantzen ditu. Urtez urte herritarren erantzuna are eta handiagoa da; eta gero eta erakunde eta eragile gehiago daude". Alkateak gaineratu zuen, "apaltasunez baina harrotasunez", emaitzak ikusgarriak direla, eta "zinez eskertzeak" direla ahalegin horretan bidelagun dituzten eragileak.

Hamar egunetan, hamaika saio Berrikuntza ardatz hartuta, formazioa eta dibulgazioa esparru ezberdinetan landuko dira, askotariko publikoari zuzenduta. Azaroaren 2an aurkeztuko dira jardunaldiak, Aroztegi aretoan (19:00), eta ondoren, Jesus Ugaldere *Berrikuntza: begirada kritiko bat* izeneko hitzaldia emango du; egun berean, baina 09:00etatik 17:00etara, ziber-segurtasuna hizpide duen barnetegi teknologikoa egingo dute Zabala jate-



Donostia International Physics Centerren aurkeztu zituzten jardunaldiak. UDALA

SAIOEN INGURUKO XEHETASUNETARAKO EDOTA IZENA EMATEKO: 'WWW.ZTBERGARA.EUS'

txean, Jesus Lizarragaren eta Miguel Fernandezek eskutik.

Azaroaren 3an eta 9an, Joxe Mari Rubio eta Felipe Uriarte asmatzaile bergarrek *Juaneloren asmazioa* erakusteko saio bana egingo dute ikastetxeetan.

Azaroaren 4tik 5era, bigarren urtez, Wolfram Encounter deritzon bideo-jokoen lehiaketa egingo da Aranzadi ikastolako gimnasioan. Azaroaren 4an 10:00etan hasiko da eta azaroaren 5ean amaituko da, 14:00etan; tartean, hiru hitzaldi izango dira. Azaroaren 4rako energia azoka antolatu dute seminarioko karpan (10:30-14:30) eta azaroaren 6an, berriz, Vicky Valdiviesoren hitzaldia izango da Laboratoriumean (14:00): *Desarrolla tus habilidades de comunicación e influencia con técnicas de programación neurolingüística*. Azaroaren 7an, Osakide-

tzako Larrialdietako Daniel Alonsok *Salvar una vida está en tus manos* hitzaldia emango du Aroztegin (19:00). Azaroaren 8rako, bestalde, *Non dago emakumea ingurune digitalean?* izenburua duen mahai inguru antolatu du PuntuEUS fundazioak Emakunderekin batera; Edurne Larrazak, Lore Martinez Axpek eta Eli Garciak egingo dute bera San Martin plazatik irtengo den autobus ibiltarian (18:00). Hilaren 9an, Elhuyar fundazioaren eskutik, Wolfram deuna ospatuko dute Zabalotegin (19:30) eta hilaren 10ean Jakiundeko Nora Alonsok *Berrikuntza nekazaritzan. On egin!* hitzaldia emango du Aroztegin (19:00).

Azaroaren 11n bi ekitaldi izango dira: lurrun-lokomotorraren aurkezpena Aroztegin (12:00) eta *Nanozientzian eta nanoteknologiaren murgiltzen* izeneko tailerra bigarren hezkuntzako ikasleei zuzenduta, Laboratoriumean (11:00). Amaitzeko, azaroaren 12an, robotikaren inguruko tailerra egingo dute 9 eta 12 urte artekoendako, Laboratoriumean. Argibide gehiago jasotzeko eta aurrez izena emateko: www.ztbergara.eus.



JOKIN BEREZIARTUA

San Joxepekoen 21. Kulturaldia

Jarrera positiboa ardatz hartuta, martitzenean abiatu zuten San Joxepe erretiratu elkarteak 21. Kulturaldia. Lehen ekintzan, Donostiako Oroimenak antzerki taldearen *El moderno* obraz gozatzeko aukera izan zuten Zabalotegira hurbildu ziren erretiratuek. Urriaren 28ra bitartean, irteerak, hitzaldiak, lehiaketak eta musika emanaldiak izango dituzte, besteak beste.

'Adin adin' ekimena urriaren 26an helduko da Mizpirualdera

Adin adin izeneko zaharren egoitzetan bertso saioak antolatzeko ekimena aurrera doa Gipuzkoan zehar eta urriaren 26an helduko da Bergarako Mizpirualde egoitzara. Bertan, Maider Arregi oñatiarrak eta Jexux Mari Irazu larrauldarrak abestuko dute (17:30). Metodologia bereziarekin lantzen dira bertso saio horiek; aurrez, zaharren

egoitzetako dinamizatzaileek eta animatzaileek lanketa berezi bat egiten dute bertso zahar eta kantu herrikoien inguruan egotzilarrekin. Hala, bertsolariak doazenerako parte-hartzea aktibatzea lortzen da. Egoitza bakoitzera bi bertsolari joaten dira; ahal bada, eskualdekoak -Maider Arregiren kasua-, ezagutzagatik, bi belaunaldi ezberdinetakoak, eta gizonezko bat eta emakumezko bat izatea ahalbidetzen da. Azken saioa Aramaion izango da, azaroaren 25ean.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, unxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA



Ibarzabal, Barrenetxea, Ugarteburu, Azkondo eta Alberdi, urriaren 28ko elkartasun kontzertua iragartzeko agerraldian. M. TXINTXURRETA.

Siriatic ihesi doazenen alde, elkartasun doinuak

Salgai daude dagoeneko urriaren 28an Udal Pilotalekuan (20:30) egingo den kontzertu solidariorako sarrerak, Kutxabanken eta frontoiko leihatilan; dirua errefuxiatuen alde lan egiten duen El Sistema Greece gobernu kanpoko erakundearentzat izango da

Jokin Bereziartua BERGARA

Siriako egoerak bultzatuta Europara ihes egin duten milaka eta milaka errefuxiatuek bizi duten egoera salatzen, herritarren sentsibilizazio bultzatzeko eta pasabide seguruen eskubidea aldarrikatzeko, kontzertu solidarioa egingo dute Bergaran urriaren 28an (20:30). "2017ko iraila baino lehenagorako 17.337 errefuxiatu hartzeko konpromisoa hartuta zuen Espainiako Gobernuak eta konpromiso horren %11 bakarrik bete du, 1.980 errefuxiatu bakarrik hartu ditu. Horrez gain, UNHCR (ACNUR) agentziaren arabera, aurten bakarrik 2.765 pertsona hil edo desagertu dira Mediterraneoko itsasoan", dio SOS Arrazakeriaren Debagoieneko arduradun Nora Ugarteburuk.

Bergarako Orkestra Sinfonikoak eta Gipuzkoako SOS Arrazakeriak antolatuta dute frontoian izango den kontzertua, Udalaren eta Kutxa Fundazioaren laguntzarekin. Bertan, pieza ugari joko

dituzte; tartean, Suad Bushnag siriarrak jatorriko konpositore kanadarrak idatzitako *Ghadan* izenekoa, euskaraz *bihar* esan gura duena. Eta egilea bera ere izango da Bergaran. "Partiturak pozarren bidali dizkigu. Gainera, Suad Bergarara etorriko da; urriaren 25ean helduko da eta gurekin egongo da entsegu orokorrerako. Oso une hunkigarria izango da", uste du Bergarako Orkestra Sinfonikoko Leire Ibarzabalek. Eta, orkestrarekin batera, Ugaitz Alegria eta Maitena Salinas aktoreak ere igoko dira agertokira. "Jose Mari Karrera-ren testuekin bidaia baten murgilduko gaituzte, Lesbosen errefuxiatuen egoera gertutik bizi izan duen Javi Julio argazkila-

SIRIARR JATORRIKO SUAD BUSHNAG KONPOSITORE KANADARRAK JOKO DU KONTZERTUAN

riaren argazkiek lagunduta", aurreratu du SOS Arrazakeria Debagoieneko Aitziber Azkondok. Sarrerak Kutxabanken eta frontoiko leihatilan eros daitezke, hamar eurotan, eta 0 lerrorako sarrerak ere jarriko dituzte salgai, bost eurotan. Jasotako dirua errefuxiatuen alde lan egiten duen El Sistema Greece gobernu kanpoko erakundearentzat izango da. Sarrerez gain, Siriako gailetak jarri zituzten salgai atzo Iralan, hiru eurotan. Hurrengo egunean ere salduko dituzte, 18:00etatik 21:00etara. Gailetak Gamarra Ostalaritza Eskolako ikasleek egin dituzte, Maite Muñoz bergararraren gidaritzapean.

'Zurumurrurik ez!' tailerrak Kontzertuaz gain, *Zurumurrurik ez!* jardunaldien barruan tailerrak antolatu dira; urriaren 19an, 23an eta 26an izango dira, Irizarren, 17:30etik 20:00etara. "Zurumurruetan oinarritutako aurreiritziak ez baditugu ulertzen, gure jokaera baldintzatuko dute".



Benidormeko Oceanman proban parte hartu zuten bederatzigarriak. M. MUJIKAK

Herriko igerilariak lan ederra egin dute Oceanman proban

Bederatzigarri izan dira Benidormeko proba ezagunean: "Primerakoa izan da, errepikatzen gogoz gelditu gara"

J.B. BERGARA

Bergarako bederatzigarri igerilari lan ederra egin zuten joan den asteburuan Benidormen jokatu-tako Oceanman proban. Ur-irekietako zirkuitu bat da, munduko leku ezberdinetan antolatzen diren zazpi probaz osatua. Finala Benidormen izaten da, eta aurreko probetan sailkatu diren kategoria bakoitzeko lehen hamarrek dute aukera parte hartzeko. Hala ere, paraleloan, sailkatzeko probetara joaterik izan ez dutenek ere parte hartzeko aukera dute. Horiek, baina, ez dira finaleko kideekin nahasten. Bergaratik joandako bederatzigarri igerilarietatik Xabier Labaka izan zen finalerako sailkatutako bakarra; bosgarren helmugaratu zen elite mailan. Gainerakoan artean, hamar kilometroko distantzian, Oier Erañak, Xabier Jauregik, Mikel Mujikak eta Alejandro Altunak

oso lan txukuna egin zuten eta bost kilometroko distantzian -Half Oceanman- Josu Morras, Unai Belategi, Unai Egaña eta Irati Mendia aritu ziren lehian; Mendia azkarrena izan zen bere kategorian. "Lasterketa primerakoa izan da. Datorren urtean errepikatzen gogoz gelditu gara guztiok", dio Mikel Mujikak.

Entrenatzaile aldaketa taldean

Nerea Anduagarekin batera hasi ondoren, Mujika bera izan da azken urteotan Bergara Igeri Elkarteko entrenatzailea. "Gauzak ahalik eta ondoen egiten saiatu naiz eta uste dut emaitza politak lortu direla igerilekuko probetan zein zeharkaldietan; horrez gain, oso giro ona izan dugu taldean. Hain zuzen, igerilariarekin izandako tratua da urte hauetako onena". Xabier Labakak hartuko du, orain, Mujikaren lekukoa.

Kirol argazkien sariak, gaur

Arizondo Argazkizale Elkartek eta Udalak antolatutako Kirol Argazkien Lehiaketako 27. edizioko sariak gaur banatuko dira. Zortzi sari dira guztira: lau zuri-beltzean eta beste lau koloretan. Koloretan, bigarren saria Aritz Gordo arrasatearrak irabazi du *Argiak gailurrean* izenburu duen ondoko argazkiari esker. Lanak urriaren 29ra arte egongo dira ikusgai Aroztegi aretoan.



ARITZ GORDO

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otorala lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Arte kale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behe / 943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

ALBERDI MIREIA

Bergara / Masterreka kalea 11, behe
943 76 33 99 / 646 43 34 58

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO – FONALIA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

FISIOTERAPIA

IGONE MORRAS

Arrasate / Otorala Lizentziaduna 18, solairuartea esk.
685701796

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

SADHANA YOGA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 19, 8 ZM
690 79 21 55

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

Zer jaten den jakiteko, etiketak irakurri beharra

Produktuen etiketak ulertzen jakiteko tailerrak harrera aparta izan du. Kontsumobide elkarteko Esther Arguesok azaldu zuen etiketak irakurtzea "guztion betebeharra" dela, erosten dena zer den eta nondik datorren argi eta garbi izateko

Maidar Arregi ANTZUOLA

Zer dago erosten diren produktuen atzean? Elikagaien industriak dioena egia da?

Gakoa produktuen etiketak irakurtzean dagoela dio Kontsumobideko Esther Arguesok. Baina nolako informazioa da? Kontrolik badago? "Etiketa baten atzean azaltzen dena kontrolpean dago. Eusko Jaurlaritzak neuritzen du oso ondo Kontsumobide elkartearen bitartez. Hala, etiketak oso argia eta zehatza izan behar du. Eta kontsumitzaile gisa, gure eskubidea da etiketa eskatzea", argitu du Kontsumobideko teknikariak.

Kontsumitzaile gisa, baina, betebeharrak ere badira, eta horietako bat da etiketak irakurtzearena. "Ohiturak aldatzea oso zaila da, baina erosten duguna nondik datorren eta zer den jakiteko ezinbestekoa da elikagaien etiketak irakurtzea. Ohitura hartu behar dugu. Kontsumitzaileok daukagun bete-




Olaran etxea beteta Kontsumobideren tailerlean parte hartzeko. MAIDER ARREGI

beharra da etiketak irakurtzearena. Ohitura pixkana hartzen joan behar dugu. Saltokian produktu guzti-guztien etiketak ezin baditugu irakurri, pare bat irakurri ditzakegu eta gero, etxean, lasaiago, gainontzekoe-

na irakurtzen joan gaitzeko. Esaterako, ohitura gaude dilistatze jakin bat erostera eta uste dugu Espainian eginak direla; baina ez, etiketa irakurtzen badugu, ikusiko dugu dilista horiek Txinatik datozela", argitu du.

Herritarren zalantzak argitzeko



PILAR ARANGUREN
HERRITARRA

"Zer erosten dugun edo zer jaten dugun jakiteko oso ikastaro garrantzitsua izan da. Izan ere, enpresen interesaren arabera eta publizitatearen ondorioz bultzatutako produktuak erostera jotzen dugu. Elikagaien etiketak irakurtzeko ohitura hartu beharko dugu orain".



JUAN MIGUEL PAGALDAI
HERRITARRA

"Zalantza asko izaten ditugu: nondik dator, zer dauka? Ez dakigu benetan zer den. Orain arte, baserrian geuk ereindako produktuekin elikatu izan gara, baina supermerkatu batera zoazenean ez dakizu zer nolako elikagaia den eta zer erosten duzun. Zalantzak beharko dituzte".

Osasuna vs gertukoa

Baina produktu osasuntsu baten bila ibiliz gero, Kontsumobideko Esther Arguesok garbi dauka: sasoikoa eta gertukoa; bitaminak eta mineralak garbi mantentzen dituen elikagaien aldeko apustua egitea, alegia. "Tbilbide laburragoa duten produktuak dira gomendagarrienak, gatz mineralak bere horretan mantentzen dituzte eta".

Beste muturrean daude, ordea, aurrez prestatutako elikagaiak. Egun bizi dugun gizarterako propio eginak dira, eta, kalte-

garriak ez diren arren, kontrolatu beharrekoak direla dio: "Berez, azukrea ez da kaltegarria, baina produktu gehienek gehiegizko azukrea dute erantsita; baita kaltegarriak ez diren substantzia kimikoak ere. Kontrolatu beharrekoak dira horiek".

ELIKAGAIRIK OSASUNTSUENA GERTUKOA ETA SASOIKOA DA; BITAMINA GUZTIEKIN

Dantzari Txikik 200 haur dantzari batuko ditu domekan

Gipuzkoako zazpi dantza talde etorriko dira urriaren 22an, domeka, Haur Dantzarien Eguna ospatzera

M. A. ANTZUOLA

Ikurrin dantza, gorulari, arinarina eta fandangoa, makil dantza... dantzaz jantziko dira Antzuolako kaleak domekan ospatuko den Haur Dantzarien Egunean.

Goizeko hamarretan, herriko txistularien kalejirak lagunduta, haur dantzari harrera egingo zaie. 11:15 aldera, taldeen kalejirak egingo dira herrian barrera eta 12:45ean, Herriko Plazan eguerdiko saio nagusia egingo da. 13:30ean, berriz, haurrak etxeetan banatuko dituzte.



Oinarineko gaztetxoak, Oñatin. M.A.

Askotariko dantzak

Aurten ere 200 haur dantzari inguru etortzea espero da. Urrats-Soraluze-, Txikitxu eta Lore Gazteak -Arrasate-, Leizarra -Aretxabaleta-, Oñatz-Oñati-, Korosti -Legazpi- eta Irrintzi -Urretxu-Zumarraga- izango dira etorriko diren taldeak. "Guztira, 175-200 haur inguru etorriko direla aurreikusten dugu. Oinarinen, egun, 150 bat haur daukagu. Aurtengo irailean 1. eta 2. mailakoak hasi dira eta domekan goizean egingo dute dantza", azaldu du Oinarineko kide Maialen Guridik.

Arratsaldeko saioa 17:30ean hasiko da. Bertan, talde bakoitzak dantza berezi bat egingo du Herriko Plazan. "Oinarinek 12ko igitai dantza egingo du herritarren aurrean", gaineratu du Guridik.

Aiherra-Antzuola senidetzea Miarritzen ospatuko da

Iparraldeko laborantzaren Lurrama azoka bertatik bertara ezagutzeko aukera izango da aurten

M.A. ANTZUOLA

Aurten senidetze eguna ez da Aiherran ospatuko, Miarritzen baizik. Han egiten den Iparraldeko laborantzaren azoka ezagutzeko aukera izango da azaroaren 11n: Lurrama. Hara joateko izen-ematea zabalik dago jada: udaletxean, telefonoz (943 76 62 46) edo posta elektronikoz (kultura@antzuola.eus). Azken eguna: azaroak 3.

Aurreko urte batzuetan ere Antzuolako edo Aiherrako mugetatik irten, eta bakoitzaren herrian edo inguruan dagoen

toki, inguru eta berezitasunak ezagutzeko aukera izan dute parte-hartzaileek. Aurten, Miarritzen ospatzen den Iparraldeko laborantzaren Lurrama azoka ezagutzeko aukera izango da, aipatu bezala.

Egun osoan hamaika jardura izango dira han: ardiei ilea mozte, gazta egitea, artzain-txakurrak, ezti ateratzea, behiak jeztea, umeentzako ikuskizun eta puzgarriak, lehiaketak...

Antzuolatik 08:15ean irten, eta bueltako autobusa 18:30ean abiatuko da Miarritzetik.

Bailarako marmitako goxoena, Antzuolakoa

Donostian jokatu berri da Gipuzkoako Erretiratu eta Pentsionisten Elkarteak urtero antolatzen duen gastronomia lehiaketa. Landatxope elkarteko Juanita Zabalo eta Pilar Aranguren bikote antzuolarra bertan izan da Debagoiena ordezkatzan

Maidar Arregi ANTZUOLA

"Oso pozik eta egun zoragarria pasa ostean itzuli gara. Ez dugu Gipuzkoako gastronomia lehiaketa irabazi, baina sekulako esperientzia izan da", kontatu du Juanita Zabalo. Izan ere, Gipuzkoako marmitako onena egin izanaren ohorea Pasaiako bikoteak eskuratu du. "Ez dugu marmitako onena probatzeko aukerarik izan, baina egun ederra izan zen. Guztiendako osagaiak berdinak izan dira eta gakoak norberaren neurrian eta eskuan egon da". Baina nola egiten da marmitako on bat? "Tipula, baratxuria, piper gorriak eta berdeak goxatuz lehenengo, eta gero, patata eta atunarekin nahastuz; patatari goxotasuna eman behar zaio, berduen sustantzia har dezan. Ez dago aparteko sekreturik, maitasunez egitea gauzak soilik".

Gipuzkoako Erretiratu eta Pentsionisten Elkarteak 20 urte inguru daramatza gastronomia lehiaketa antolatzen. "Antzuolarrek irabazi izan dute. Lehen, beste aukera batzuk egoten ziren; esaterako, okela gisatua prestatzekoa. Orain, patata jartzen dute oinarri eta marmitakoa edo errioxar erara egindako patatak prestatzen dira lehiaketan; kar-kar", azaldu du.



Zabalo eta Aranguren, Arrasaten jokatu zen Debagoieneko txapelketan. A.T.

Debagoiengan, bai

Baina bailarako marmitako goxoena antzuolarra da eta Juanita Zabalo eta Pilar Arangurenak dakite ondoen egiten. "Donostian jokatu den Gipuzkoako txapelketara joan aurretik, baina, bailarakoa jokatu genuen Arrasaten, Uribarri elkartearen. Antzuolako ordezkaria orain arte Florentino Lamariano izan da, baina aurten ez da animatu. Hala, jarraipena emateko eta ekimen hau eten ez dadin, bailarako txapelketan parte hartzea erabakia genuen".

Lehiaketa hutsetik harago

Zabalo dio mota horretako ekimenak harremanak sendotzeko bide direla. "Zazpi bailaretako ordezkariak batu ginen, eta, giro zoragarrian, egun-pasa ederra eginda itzuli ginen. Pasaiak irabazi zuen eta bigarren saria, berriz, Mendarora joan zen. Baina, esan bezala, lehiaketa baino gehiago dira horrelako ekintzak eta merezi du horri eustea eta jarraipena ematea. Debagoiena ere Gipuzkoan ordezkatuta egon dadin", argitu gura izan du Zabalo.

Esperientzia paregabea

"Pasaiako irabazleekin, elkarrekin joan ginen bazkaltzera emaitza jakin aurretik. Arratsaldean eman ziguten emaitzen berri eta ez zen inolako konpetentziarik egon. Oso bikote naturala eta jatorra zen". Zabalo dio ez zuela aukerarik izan irabazleena probatzeko; izan ere, jandako marmitakoa norena zen jakin gabe, denen artean jan zuten.



Gipuzkoako txapeldunekin bazkaltzen. JUANITA ZABALO

Emakume baseritarren bizipenak gertutik, gaur

Lehen sektorean diharduten herriko emakumeen testigantzak izango dira protagonista Orlanen

Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolako emakumeek baserrian eta lehen sektorean duten paperaz eta egoeraz jardungo dute gaur, Orlanen, 18:00etan hasiko den *Baserría afizio-afizio* izeneko jardunaldian.

Besteak beste, Bidaurreko Kontxi Izagirrek, Ibarreko Pilar Belastegik, Egurrebaiko Matilde Ortuetak, Lapatzako Maje Gorritxok eta Pikunietako Josebe Blancok euren bizipenak kontatuko dituzte. "Zergatik egin ziren baserritar, euren oroitza-penak, pasarteak... Ondoren,

herrian gazteak lehen sektorerara batzeko zein baldintza egon beharko lirakeen eztabaidatuko dugu, eta, nola ez, baserriaren jarraikortasunari buruz ere jardungo dugu", azaldu du Landa Garapeneko teknikari Miren Oiangurennek.

Emakume Nekazarien Estatu-tuari ere helduko dio Maite Aristegik. "Emakumeen esku-bide profesional, sozial eta fiskalak landuko ditugu".

Onintza Enbeita eta Maidar Arregi bertsoariak borobilduko dute saioa.

Barnekotasuna sakontzeko saioak

Urriaren 31n abiatuta eta apirilera arte, herritar ororendako, barnekotasuna sakontzeko Nigan saioak bueltan dira Jesus Mari Mataren eskutik. Eremu psiko-emozionala, arreta eta meditazioa landuko dira, besteak beste, saioetan. "Saioari esker, zure burua beste modu batean ikusiko duzu, hobeto ulertuz. Besteak ere hobeto ulertuko dituzu.

Zure bizitza gehiago gozatzeko lagunduko dizuten tresnak ikasiko dituzu erabiltzen. Aita zein ama bezala hobeto lagunduko dituzu zure seme-alabak. Askeago sentituko zara", azaldu du Matak.

Orlanan, hileko azken martitzenetan, 18:30etik 20:00etara izango dira saioak. Doan da eta interesa dutenek 669 13 29 00 deitu edo *nigan@yahoo.com* helbidera mezua idatzi dezakete. Aurten, gehiago sakontzeko taldea ere osatuko da, gainera.



MAITE TXINTXURRETA

Pausoka elkarteari babesa

Pausokak, behar bereziak dituzten umeen gurasoen elkarteak, Pausoka Eguna ospatu zuen zapatuan Urnietan. Bada, horren aurretik, Gipuzkoako itzulia egin zuten zenbait korrikalariren laguntzarekin. Etapatako bat, hain justu ere, Antzuolan izan zen, eta antzuolarrek eta Udalak babesa erakutsi diote elkarteari.



Saioei hasiera emateko Elgetako berbalagunek aurreko eguaztenean egindako topaketa. ELGETAN BERBETAN

Euskara zabaltzen jarraitzeko gertu

Lau taldetan banatuta, asteon ekin diote ikasturte berriari Elgetako mintzalagunek. Oraingo, hamalau dira eta asteen behin elkartuko dira euskaraz jarduteko. Gustura hartuko lituzkete kide gehiago eta zabalik dute izen-ematea

Larraitx Zeberio ELGETA

Mahaiaren bueltan elkartu ziren hilaren 11n Elgetako zenbait berbalagun. Mendi Mendian elkartean egin zuten lehenengo topaketa eta zazpi lagun elkartu ziren. Kide berriei ongietorria egiteko eta ikasturte hasiera honetan osatu diren taldeen aurkezpena egiteko saioa izan

zen. Pare bat jolas ere egin zituzten, hasierako hartu-emana errazteko. Programako koordinatzaile Geaxi Ezpeleta gustura azaldu da topaketak emanda-koarekin.

Azaldu du ikasturte berrira begira, oraingo, lau talde eta hamalau lagun ari direla mintzapraktika saioetan, eta aste

honetan hasi direla elkartzen. Aurrerantzean, asteen ordubete saioak egingo dituzte, modu horretan euskaraz jarduteko espazioak sortuz. Taldeetako bi martitzenetan elkartuko dira: bata 09:30ean eta bestea 17:15ean. Hirugarren taldeak eguaztenean egingo ditu saioak, 16:30ean. Eta laugarrenak eguaztenean, 10:00etan.



Uztailean egindako Hitez Pitz saioa. L.Z.

Literatura solasaldi irekiak

Elgetako berbalagunendako sortu ziren Hitez Pitz saioak eta jarraipena izango dute, baina ikasturte honetan berbalagun ez diren herritarrek ere parte hartzeko aukera izango dute. Funtsean, irakurketa taldeen funtzionamendua du ekimenak: liburuzainak bizpahiru irakurketa proposatzen ditu eta iritzi trukaketa egiten dute solasaldian parte-hartzaileek.

Aurreko ikasturtean bi saio egin zituzten eta honako honetan zazpi egitea aurreikusten dute. Karmele Jaio idazlearen bi testu eta Jasone Osororen beste hiru izan zituzten aztergai uda aurretik. Hitez Pitz ekimenak urriaren 26an izango du hirugarren saioa. Oraingo honetan, Jon Arretxeren *Sustrai beltzak* ipuin sortako hiru idatzi aukeratu dituzte. Testuak eskuragarri daude liburutegian eta ekimena irekita dago interesa duen edonorendako.

Izen-emateak, dena den, zabalik jarraitzen du, elgetanberbetan@gmail.com helbide elektronikoa.

Hirugarren urtea da Elgetan Berbetan programa martxan dela, eta eskualde mailako egituraren integratuta dago. Hala,

eskualde mailako hainbat irteera egingo dituzte. Lehenengoa urriaren 29rako, domeka, antolatuko dute. Arrasateko Lezetxiki indusketa-gunera egingo dute eta Debagoieneko mintzalagun guztiak daude gonbidatuta.

"Bizitzan oso garrantzitsua da burua ere aktibo mantentzea"

LOREA ERREKALDE DINAMIZATZAILEA

Oroimena lantzeko tailerra gidatzen dihardu berriz ere

L.Z. ELGETA

Eguaztenean egin zuten lehenengo saioa. Udaberriean egindako tailerrak harrera ona izan zuen, eta oraingoan ere dozena bat lagunek eman dute izena.

Zer lantzen duzue tailer horretan? Oroimena bakarrik ez, funtzio kognitibo guztiak lantzen ditugu: atentzioa, oroimena, lengoia, kalkulua... Denek dute zerikusia oroimenarekin.

Saio praktikoa izango dira honako honetan ere?

Bai. Bi motatako ariketak egiten ditugu: taldekako ahozko arike-

tak eta bakarkako fitxak. Niri, taldekako ariketak gehiago gustatzen zaizkit, harremanak sortzen direlako, giro polita egoten delako...

Eta zein motatako ariketak dira?

Asko daude. Kalkulua lantzeko, adibidez, erosketa faltsuak egiten ditugu, batuketak... Irudiekin ere jolas egiten dugu. Esaterako, hainbat ipintzen dizkiet eta denbora bat ematen diet. Gero, erretiratu egiten ditut eta guztiak gogoratzen saiatzen gara. **Zergatik da garrantzitsua oroimena lantzea?**



Lorea Errekalde. L.Z.

Sasoian egoteko gorputzarekin gimnasia egiten dugun moduan, burua ere aktibo mantendu behar da. Erabiltzen ez duguna, azkenean, galdu egiten da. Eta prebentziorako, edozein adinetan da gomendagarria.

Konponketak Azula eta Beizu baserrietarako bidean

Mendrakortarako bidean eta San Antonio inguruan ere egokitze lanak egitea aurreikusten du Elgetako Udalak

L.Z. ELGETA

"Egurra ateratzean egindako zuloak konpondu ditugu. Lanon aurrekontua 4.500 eurokoa izan da, eta Foru Aldundiak %60 ipini du", adierazi du baserriaren batzordeko buru Sebastian Arantzabalek. Urtero bezala bide horretako bazterrak auzolanean garbitzeko dei egingo dutela gaineratu du. "Azaro aldera izango da eta Udalak makineriaren kostua hartuko du bere gain". Aurrera begira Mendrakorta baserri bidearen eta San Antonio baserri inguruko

konponketak egin gura dituztela esan du Arantzabalek.

Urte hasiera ezker hainbat baserri-bide konpondu dituzte Elgetan. Urtarrilean Txulokua eta Egoetxeaga inguruetan egin zituzten lanak, maiatzean Iturbe-Etxebarri baserri bidean asfaltatu zuten eta ekainean Asentzioko bidea egokitu zuten. Foru Aldundiak diruz lagundutako lanak izan dira eta Udalak 7.800 euro bideratu dituela adierazi du Arantzabalek. Hainbat bide-bazter garbitzen, berriz, 5.500 euro inbertitu ditu Udalak.

Martitzenetik aurrera Bibliotxiki gunea zabalik

Liburutegien Nazioarteko Eguna dela-eta hainbat ekintza iragarri ditu Udal Liburutegi zerbitzuak. Gaur, neska-mutikoendako ipuin saio berezia egingo dute, eta martitzenean kale ikuskizuna izango da Bibliotxiki gune berriaren irekierarekin batera

L.Z. ELGETA

Orain arte KZgunea hartu duen gelak Bibliotxiki izeneko zerbitzua izango du aurrerantzean, eta KZgunea musika gelaren parera eramango dute. "Liburutegi gehienetan dago gune berezitu bat haurrentzako. Gaur dugun lekua ez da txarra, baina Bibliotxikin umeez lurrean jarrita egoteko aukera izango dute, ipuinak eskurago izango dituzte eta gurasoekin batera egoteko eremu lasaiago bat izango dute erabilgarri", azaldu du liburutegiko arduradun Geaxi Ezpeletak.

Zerbitzua martitzenetik aurrera izango da erabilgarri eta arduradunak argitu du liburutegiko parte izanik ordutegi eta arau berak izango dituela. "0-6 urteko umeendako txokoa da eta haurrek lagunduta egon beharko dute. Isilik egon behar da, ezin da jan eta liburuak zaindu egin behar dira. Jende gehiegi pilatuko balitz, hogeita minutuko txandak egingo genituzke".

Espazioa margotu eta atondu berria dute, eta oinetako barik egoteko moduan prestatu dute. "Liburutegian 0-4 urte bitarteko umeendako ditugun ipuinak eramango ditugu bertara, baita 5 urtetik aurrerakoendako albumak ere. Liburu berriak ero-



Janire Lazkano -Kultura zinegotzia- eta Geaxi Ezpeleta -liburuzaina- Bibliotxikin. L.Z.

si ditugu, eta bertan ipiniko ditugu eskuragarri".

Ipuin saioak eta ikuskizunak

Martitzena Liburutegien Nazioarteko Eguna dela-eta gaur, barikua, Ipuinen Ordu berezia egingo dute. Egitasmoa 2014an abiarazi zuen boluntario talde batek, eta 50. saioa izango da gaurkoa. Dozena bat lagunek kontatzen dituzte ipuinak, txandaka, eta gaurko saioa 17:25etik 18:00etara izango da. Sorpresak ere egongo direla aurreratu du Ezpeletak.

Literatura ginkana ere martxan da berriz. Martitzenera bitartean hiru proba puntuagarri kalera-tuko ditu Ezpeletak, eta partehartzaileek Ana Mari liburu dendarako 60 euroko erosketabonua irabazteko aukera izango dute.

Zuzeneko ikuskizunak ere izango dira egunotan Elgetan. Martitzenean, kale antzerkia egingo du Malas Compañías zirkutaldea, eta hilaren 27an *Kontu eta kantu* saioa egingo du Fernando Anbustegik 3-9 urte bitarteko entzuleendako.

Gutunen bidaia ikuskizun bihurtuta

Martitzenean, hilak 24, *Letter, eskutitz baten bidaia* ikuskizuna egingo dute Malas Compañías zirkutaldekideek, 17:30ean. Publiko guztiendako saioa da. Eguraldi ona bada plazan egingo dute eta txarra bada, Espaloia kafe antzokian. "Gure ahotik irten diren hitzak esateko balio dute gutunak, eta zain gauden hitzen oihartzuna dakarte", aurreratu dute.



Letter, eskutitz baten bidaia ikuskizuna. MALAS COMPAÑÍAS ZIRKU TALDEA



ALIZIA GARTZIA

Egoarbitza ingurua garbitzen

Azken urteetan moduan, Elgetako Udalak auzolanerako dei egin zuen urriaren 12rako. Zazpi lagun elkartu ziren eta Egoarbitza Udalaren jabetzakoak diren lursailak garbitzeko lanetan ibili ziren. Eguraldia lagun, goiz-pasa egin zuten ingurua txukuntzen. Hamarretakoa eta lanerako tresneria Udalak ipini zituen.

Guggenheim museora egingo dute irteera, bihar, gaztelekukoek

Goiena komunitatea

Gaztelekua / ELGETA

Museoaren 20. urteurrenoko ekitaldiak direla-eta egun osoko txangoa egingo dute bihar, zapatua, gaztelekuko erabiltzaileek. "Ate irekiak direla baliatuta, erakusketa iraunkorra ikusi eta eskultura artean ibiliko gara. Eguraldia lagun bada, bertako parkean jolas egiteko aukera

ere izango dugu. Jarraian, eta eguraldiaren arabera, Doña Kasildako parkera edo Alhondigako gunera egingo dugu", esan du Nerea Villa dinamizatzaileak. Gazteleku zerbitzuak ikasturte honetan herritik kanpora egiten duen lehenengo irteera da honako hau. Asmoa zen Oñatiko Txokolateixara joatea, baina Guggenheim museoaren urteurrena baliatuko dute eta Oñatirako txangoa beste baterako utziko dute. "Bi hilean behin irteera bat egitea da asmoa".

OHARRAK

Jeltzaleen loteria

Eskaerak Maria Jesus Leteri edo Begoña Ardanazari egin behar zaizkie. Azken eguna: azaroak 19.

Loteria: Ozkarbi

Azken egunak dira Ozkarbi elkarteko Gabonetako loteria eskuratzeko.

Erretiratuak

Hilaren 30ean Gernikako azokara joateko izen-ematea domekan, hilaren 22an, 11:00etan, Ozkarbin.

Kantsatzeke

Domeka honetan Ganboara egitekoa zen irteera astebete atzeratu dute, eta hilaren 29an egingo dute.

PILOTA TXAPELKETA

PARTIDUAK

GAUR, BARIKUA, 18:30EAN

1. J.M. Zubiaurre-G. Bolinaga / I. Ugarteburu-M. Elkoro
2. O. Erostarbe-G. Arizmendiarieta / J. Mañarikua-B. Arabaolaza
3. E. Maguregi-E. Garate / D. Cantabrana-T. De Vega
4. I. Untzetabarrenetxea-M. Beretinaga / E. Ormaetxea-A. Valle

Herri mailako 4 t'erdiko binakako pilota txapelketa berriz martxan

Gaur, barikua, emango diote hasiera herri mailako pilota txapelketari. Lehenengo jardunaldian gizonezkoak ariko dira nor baino nor gehiago, eta lau norgehiagoka daude iragarrita. Antolatzaileek aurreratu dute, bestalde, emakumezkoen txapelketa ere izango dela aurtan. Hain zuzen ere, lau bikotek eman dute izena. Finalak Urtezahar egunean jokatuko dira.



Martitzenean egon zen Oñatiko alkatea Harira saioan. O.E.

"Autobus lineak kentzea murrizketa izan da"

Goiena telebistako 'Harira' saioan egon da Mikel Biain alkatea eta autobus lineetan egondako aldaketekin haserre daudela adierazi zuen: "Aldundiari eskatu diogu, gutxienez, lehengo egoerara bueltatzea garraio publikoari dagokionez"

Oihana Elortza OÑATI

Kale Zaharreko bizilagunen kezen inguruko galderek tarte luzea hartu zuten Goiena telebistako *Harira* saioan. Izan ere, kale horretako hainbat herritarrek galdera asko bidali zituzten Mikel Biain alkateari egiteko. Tabernen ordutegiarekin eta udal ordenantzarekin lotura zuten galdera gehienek. "Daukagun ordenantza 1993koa da. 2008an egin zitzaizkion azken aldaketak, eta, zaharra den arren, aplikatzen dugu. Joko eta ikuskizunei buruzko legea ari da lantzen Jaurlaritza eta hilabete batzuk barru jasoko dugu dekretu hori. Horrek ordenantzak aldatzera behartuko ditu udal guztiak. Dekretu hori jaso arte ez dugu asmorik gure ordenantzan aldaketa gehiago egiteko, baina ahalik eta modu zorrotzenez aplikatzen jarraituko dugu. Agintaldi honetan lau taberna izan dira zigortuak. Beste bik zabalik dute espedientea eta epe laburrean zigor proposamena

jasoko dute. Eta zigor eredu-garriak izango dira. Zorritzarrez, oraingoan, zigorraren bidea da irtenbidea", adierazi zuen alkateak, herritarren kexei erantzunez. "Aparkalekuekin eta kale-ra sartzen diren auto kopuruekin ere ke-xatu dira inguru horretan, eta, poliki, baina ari gara erantzunak ematen arazo horiei", gaineratu zuen Biainek.

Errotazioa

Ibilgailuen aparkatze arautuari buruz, errotazio sistema polemikoa izan arren balorazioa positiboa dela esan zuen alkateak. "Ordubete gutxi izan daiteke batzuetan, baina, oraingoan, ez dugu aldaketarik egingo ordutegiari lotuta. Gune batzuk ordu

HIRI ANTOLAMENDUA ETA KIROLDEGIA DIRA ESKU ARTEAN DITUZTEN BI PROIEKTU ESANGURATSU

jakin batzuetan nahiko hutsik egoten dira, eta egoera hori aztertuko dugu".

Udal Gobernuak esku artean dituen proiektu esanguratsuen artean bi aipatu zituen alkateak *Harira* saioan: zapatuan abiaraziko duten Hiri Antolamenduaren Plan Orokorra (HAPO) eta kiroldegia berritzea. "Taldea autonomo bat egon da kiroldegia aurreproiektua lantzen eta hilabete honen amaieran jakingo ditugu konklusioak. Beste proiektua, berriz, etorkizuneko Oñati marraztea izango da. Zumitz batzuk badaude, industria, hezkuntza, turismoa, komertzioa... eta horiek ahalik eta egokien lotu eta hortik abiatu beharko da marrazketa", aipatu zuen Biainek.

Musika eskolarendako kokapen zehatzik ez dutela adierazi zuen alkateak, nahiz eta "lehentasuna duten gaien artean" egon. Oinezkoen eta bizikleten arteko elkarbizitza hobetzeko ordenantza egitea ere aipatu zuen.

"Interesa duenak aurrez eman beharko du izena"

KATIA REIMBERG AHOLKULARIA

Atzeritarren ikasketak homologatzeko zerbitzua

Iker Oñate OÑATI

Atzerrian egindako ikasketak homologatzeko zerbitzua jarri du martxan Oñatiko Udalak. Gabonak bitartean, hileko hirugarren martitzenean egongo da Bidez Bide elkarteko teknikaria Oñatin, ikasketak baliozkotu edo homologatu gura dituenari baldintzen eta bestelako inguruko aholkuak emateko.

Nork erabili dezake zerbitzua?

Atzerriko ikasketak baliozkotu edo homologatu gura duen orok; betiere, DBHko 4. mailatik gorako tituluak baditu -atzerrian Lehen Hezkuntza dena-. Hor daude DBHko 4. maila bera, profesionalen edo teknikarien formazioak eta unibertsitateko tituluak.

Aurrez eman behar da izena?

Bai. Zerbitzua erabili gura duenak aurrez eman beharko du izena. Oraingoan, hilean hiru pertsona jasoko ditugu; eta jada beteta ditugu lehen bi hilabeteetarako antolatuta ditugun hitzorduak.

Eta, behin hitzordua finkatuta, zer?

Dituen ikasketak-tituluen eta beharren arabera dokumentazioa aurkeztu beharko du



Katia Reimberg aholkularia. MIREIA BIKUÑA

zerbitzuaren erabilzaile bakoitzak. Gero, aukerak aztertuko ditugu, tramiteekin hasi aurretik. Osteko prozesuaren jarraipena ere egingo dugu.

Homologazio aukera ezberdinak izango dira, ezta?

Hala da. Kasuak kasu, ikasketak guztiak biltzen dituen homologazioa egin beharko dugu batzuetan. Beste batzuetan, soilik ikasgai batzuk balioztatu beharko dira; halakoetan, atzeritarrek hemen amaituko lituzkete ikasketak. Espediente aldaketa ere izan daiteke, bestetik.

Bertakoen guneetan aparkatzeko txartelak eskatu daitezke

Bertakoen guneetan ibilgailuak aparkatzeko txartelak eskatzeko epea urriaren 31ra arte egongo da zabalik; horrez gain, txartel zaharrari baja emateko aukera egongo da. Berria bada, autoaren zirkulazio baimenaren kopia aurkeztu beharko da. Bestetik, aparkatzeko txartela automatikoki berrituko zaie inolako tramiterik egiten ez dutenei: datoren urtean -otsailean edo martxoan- kobratuko zaie 2018ari dagokion tasa. Bide horretan, eskaera egin gura duenak udal-letxeko bulegoan entregatu beharko ditu orriak beteta. Osetera osatuko da onartuen eta baztertuen zerrenda, egin beharreko egiaztapenak eginda.

Jada egin daitezke aurrekontuetarako proposamenak

Datorren urterako aurrekontu orokorrak lantzeari ekin dio Udalak; eta, herritarren ekarpenak jasotzeko epea zabaldu du -azaroaren 6ra bitartean egin daitezke proposamenak-. Bide horretan, interesa duenak herriko hainbat egoitzatara buzoietara -udaletxea, kultura etxea eta kiroldegia, besteak beste- eta partaidetza@oinati.eus posta elektronikoko helbidera bidera ditzake iradokizunak. Aipaturikoaz gain, bestetik, bestelako iturriak erabiliko ditu Udalak aurrekontu orokorrak osatzeko; hor daude legegintzaldi plana, udal teknikarien eta langileen proposamenak eta alderdi politikoek ekarpenak.



Egun Morean egindako manifestazioa iaz. GOIENA

Aldarrikapen feminista plazaratzeko eguna

Bihar, zapatua, ospatuko dute Egun Morea, egun osoko egitarauarekin; antolakuntza taldeak adierazi du "aldarrikapen feministarekin bat egiten duen eta egun polita igarotzeko prest dagoen edonor" dagoela gonbidatuta biharko festarekin bat egitera

Eneko Azurmendi OÑATI

Dagoeneko bere lekua egiten ari da Egun Morea Oñatin. Izan ere, aurten zortzigarrenez egingo dute aldarrikapen feminista duen festa hori.

Antolakuntzako kide Arantza-zu Sagarzazuk adierazi duenez, "ondo pasatzeko eta disfrutatze" eguna izaten da Egun Morea, "festa giro feminista" igarotzeko eta "aldarrikapen feministak azaleratzeko".

Egitarauari dagokionez, azken urteetan egin izan duten *Frontefeminista* frontenis txapelketarekin hasiko dute eguna-10:00etan-. Bikote mistoek edo emakumeek osatutako bikoteek hartzen dute parte, eta kiroldegiko pilotalekuan izango da. "Arrakasta handia izan du orain arte, kanpotik ere etorri izan da jendea parte hartzera, eta aurten ere hala izango da", azaldu du Sagarzazuk.

Horrekin batera, eta ordu berean, Neskak eskalada txapelketa egingo dute, berrikuntza

modura. "*Frontefeminista* txapelketaren arrakasta ikusita, aurten beste apustutxo bat egin nahi izan dugu eta Neskak txapelketa antolatu dugu", dio Sagarzazuk. Hori kiroldegiko gimnasioan izango da, eta hamar parte-hartzaile inguru dira boulderrean.

Bukatzean, poteoa egingo dute, kiroldegiko tabernan hasita, eta 14:30ean bazkaria egingo dute gaztetxean. Bazkalostean, *Atzoko ogixa* umore ikuskizuna egongo da, Sagarzazuren beraren eta Maite Aizpurua zumaiarren eskutik, eta gauean kontzertuak izango dira. DJ Bolloren emanaldiarekin emango diote amaiera egunari. Arrano tabernan izango da hori, 01:00etan.

NESKALADA TXAPELKETA EGINGO DUTE KIROLDEGIAN, BERRIKUNTZA MODURA

Egun Morea, egitaraua

10:00

- Frontefeminista eta Neskak txapelketak.

13:00

- Poteoa, kiroldegiko tabernatik hasita.

14:30

- Bazkaria gaztetxean. Gero, *Atzoko ogixa* ikuskizuna.

22:00

- Kontzertuak gaztetxean: Las Tipex eta Perlata.

1:00

- DJ Bolloren emanaldia Arrano tabernan.

'Adi, lagun!' proiektua lantzen ari dira Elkar Hezin

Biolentziaren aurkako heziketa bultzatzea da helburua, artearen eta sormenaren bitartez

E.A. OÑATI

Pasa den astean jarri zuten mar txan *Adi, lagun!* proiektua Elkar Hezi ikastetxean. Egitasmoaren helburua da Elkar Heziko izara eta balioak islatuko dituzten lau horma-irudi sortzea. *Biolentzia 0, 0 urtetik* da proiektuaren ardatza, eta helburu hori artearen eta sormenaren bitartez lortu gura dute.

Bereziki, Lehen Hezkuntzako ikasleak eta familiak izango dira protagonista eta eragile.

Eider Eibar artistak gidatuta, tailerrak abiapuntu harturik, pertsonaiak sortu eta haien arteko harremanetan sakondu dute hiru saiotan, egunerokotasunean gertatzen diren gora-beherak aztertuta eta egoera gatazkatsuen ebazpen dialogiko eta baketsuak bilatuta.

Orain, berriz, hausnarketa prozesuan daude eta umeek egoera konkretu batzuekiko egiten dituzten interpretazioak baloratuko dituzte.

Hausnarketa horretatik ateratako ondorioetan oinarriturik, aipaturiko lau horma-irudiak sortuko dituzte, behin betikoak izango direnak eta ikastetxeko hormetan jarriko dituztenak.

Azaroko bigarren astean emango zaio bukaera proiektuari.

Eztabako espetxearen historiari buruzko hitzaldia gaur

1934tik 1945era bitartean espetxea izan zen Iruñeko Ezkaba mendiko San Kristobal eraikina, eta orduko historia kontatuko du gaur, 19:00etan, kultura etxean, memoria historikoa berreskuratze lanetan diharduen Txinparta taldeko Koldo Pla ikerlariak. Milaka lagun egon ziren han preso urte haietan; adibidez, sei oñatiar.



NIRE USTEZ

MIEL GURIDI

Zorionak, 'Zakilixut'!

Aste honetan, urriaren 18an ospatu den *Zakilixut*-en omenezko ekitaldiaren berri ematen zuen mezua jaso dudanean, derrepentean, zaharrago sentitu naiz.

1977ko San Miel egunean agertu zen lehen aldiz *Zakilixut*, *Egin* egunkarian. Argitalpen horretan 11 urte egin ondoren *Egunkaria*-ra salto egin zuen, eta han jarraitu zuen, hura bortxaz itxi zuten arte. Harrezkero, *Berria*-n azaltzen zaigu egunero, astelehenetan izan ezik, noski!

Goizero ispiluan ikusten dugun aurpegia bezala, badirudi *Zakilixut*-ek ez duela itxura aldatu.

Baina hasierako tira hailetako batzuk ikusiko bagenitu, gure argazki zaharrak ikusten ditugun bezala, *Zakilixut* ere aldatu dela konturatuko ginatke. Hasierako gaztetxo hari kokotxa luzatu zaio, ez du txirrik erretzen, tripotxa ere atera zaio... Hala ere, beti bezala, hitz-joko zorrotzekin, sexu-kontuekin eta batzuetan ulertzea lortzen ez duan kontuekin jarraitzen du.

A! Genero berdintasunaren ikuspegitik beste hizkuntza batzuk baino orekatuagoa den euskarari hika forma neutrala eskaini diola ere ahaztu barik.

40 urte! Harrapazank! Tumaxta hi!

Munduari bira nola eman dion kontatuko du Alvaro Neilek

Munduari bira eman dio bizikletan Alvaro Neil asturiarrak, hamahiru urtetan-2004-2017-. 114 herrialde ezberdin ezagutu ditu. Azaroaren 19an iritsiko da sorterrira, Oviedora, baina aurrez Oñatin geldialdia egingo du bere bizipenak kontatzeko. Hitzaldia urriaren 24an izango da, martitzena, Santa Ana antzokian, 19:00etan.



Arantzazu Ibarrodo, literatura solasaldien kartela jartzen Udal Liburutegian. O.E.

Literatura topaketak datoz, hirugarrenez

Antzerkia izango da aurten landuko duten generoa, eta, ume zein nagusiendako antzezlanaz gain, literaturaren eta antzerkiaren gainean berba egiteko tertulia saioak ere egongo dira datorren astean Udal Liburutegian eta zinema aretoan

Oihana Elortza OÑATI

Antzerkia izango da aurtengo literatura jardunaldien generoa. Aurreko bi edizioetan poesia landu dute, eta antolatzaileak, Udal Liburutegiko langileak, pozik daude izandako erantzunarekin, baina aldatzea erabaki dute: zerbait berria egin gura dutelako eta eskaerak ere jaso dituztelako. "Liburutegiko erabiltzaile batzuk oso antzerkizaleak dira. Sarri joaten dira formatu txikiko antzezlanak ikustera, adibidez, eta euren proposamena gustatu eta horrela hasi ginen jardunaldi hauek antolatzen", dio Arantzazu Ibarrodo, liburutegiko arduradunak.

Tertuliak

Ume zein nagusiendako obrak egongo dira datorren astean Oñatin. "Urriaren 24an 3 urte bitarteko umeendako antzezlanak egongo dute haur liburutegian. *Glu-glu* du izena obra horrek. Urari buruzkoa da eta apenas

du testurik. Hurrengo egunean Gasteizko Colectivo Mostrenko taldea etorriko da nagusiendako *El falso paraguayo* antzezlanak egitera. Umerezkoa da", azaldu du Ibarrodo. Umeena 18:00etan hasiko da eta nagusia, 19:00etan. Zinema aretoan egingo dute antzezlan hori eta amaieran Ivan Repilak gidatuko duen mahai ingurua egingo dute literaturaz eta antzerkiaren hitz egiteko. Gaztekeraz izango da tertulia hori. Euskarazkoa 24an egingo dute, 19:00etan. Yurre Ugarte eta Danele Sarriugarte irakurle gisan izandako esperientziez mintzatuko dira. Repila eta Ugarte izango dira ikasurte honetako Tertulixan taldeak gidatuko dituztenak.

UMEENDAKO ANTZEZLANA MARTITZENEAN DA ETA NAGUSIENA, EGUAZTENEAN

Egonkortu

Aurreko bi alditan gertatu zaien bezala, literatura jardunaldien antolatzaileak urduri daude aurtengoak izango duen harrearen aurrean, baina, arriskuak arrisku, helburu jakin batekin antolatu dute aurtengoa ere, Ibarrodo azaldu duenez: "Gura duguna da literatura solasaldien aste hau oñatiarren agendan txertatzea, lekua hartzea. Ingarumen Astea bezala, herritarrek kontuan hartzea urrian Literatura Astea egiten dela liburutegian. Badakigu hori lortzea kosta egingo zaigula, ez dela hain erraza, baina gu lanean jarraitzeko prest gaude".

Sarajevo

1992an, Balkanetako gerran, Sarajevoko liburutegia erre zuten, eta hura gogorarazteko erabaki zuten, 1997an, urriaren 24a Biblioteka Eguna izatea. "Ez zuten papera bakarrik erre, kultura bat erre zuten", adierazi du Arantzazu Ibarrodo.



Musikalaren estreinaldia, Oñatin. IMANOL SORIANO

Kursaalera egingo du jauzi 'Pinotxo' musikalak

Ganbara Txikiko neska-mutikoen egitasmoak eten barik dihardu. Hitzordu gehiago iragarri dituzte

I.O. OÑATI

Pinotxo, hariekin lotu gabe musikaleko protagonistek Donostiako Kursaalean jardungo dute bihar, zapatua, 18:00etan hasita. Jada eskuragarri daude sarrerak, Kutxabanken eta antzezlekuaren beraren webgunean; dena den, egunean bertan eskuratzeko aukera ere izango da. Bide horretan, emanaldi sorta berriari helduko diote Ganbara Txikiko neska-mutikoek; eta ostean, sona handiko beste hainbat antzezleku ere bisitatuko dituzte.

Bada, Kursaalean jarduteko "gogoz" da Aitor Biain zuzendaria. "Areto handiak ez ditugu sekula bisitatu; beraz, hemendik aurrerakoa erronka da guretzat. Hala ere, bidetara ekiteko gogoz gaude", azaldu du. Bestetik, aipatu du ikuskizunak zenbait berrikuntza izango dituela. "Hainbat hobekuntza egin ditugu dekoratuan; eta asto mozorro

berriak sortu ditugu, apar goma eta ilearekin, itxura erreala emateko asmoz", argitu du.

Bestalde, aipatu beharrekoda da musikalaren bueltako material berria jarriko dutela salgai Kursaalean: protagonisten posterak eta emanaldiaren ikusentzunezkoa. Oñatin eginiko estreinaldi emanaldia biltzen du DVDak, eta 12 eurotan eskura daiteke.

Emanaldi gehiago

Esan moduan, Ganbara Txikiko kideek beste hainbat hitzordu dituzte finkaturik. Zehatz esanda, Lazkaoko Areria aretoa dute hurrengo geraleku, azaroaren 18an. Horrez gain, Bilboko Euskalduna Jauregia –abenduaren 27an– eta Iruñeko Gayarren antzokia –urtarrilaren 3an– ere bisitatuko dituzte. Jada eskuragarri daude horietarako sarrerak, antzezlekuaren webgunetan.

Rock doinuak Pako tabernan, Kobrazulo taldearen eskutik

Kobrazulo musika talde antzularrak rock doinuak bustiko du gaur –hilak 20– Pako taberna; 22:00etarako finkatu dute hasiera ordua. 2016. urtean sorturiko taldeak rock indartsuaren bueltan dihardu, eta askotarikoak dira partaideek eredutzat dituzten taldeak. Tartean daude Daddy Long Legs, Guadalupe Plata eta ACD.

'Alizia lurralde miresgarrian', bihar, Santa Anan

Lewis Carroll idazle britainiarra idatzitako liburua oinarri harturik, *Alizia lurralde miresgarrian* haurrentzako antzezlan eskainiko du Glu Glu taldeak; biharko, urriaren 21erako, finkatu dute hitzordua. Interesa duenak Santa Ana aretoan izango du ikusgai, 17:00etan hasita. Sarrerak 3,5 euroren truke egongo dira eskuragai.

"Sekulako plazera da Zubikoa beteta ikustea"

MIKEL AGIRRE FAGOR INDUSTRIALEKO KAPITAINA

Hasiera ezin hobea eman dio Fagor Industrialek ligari. Orain artean, jokaturiko partidu guztiak irabazi dituzte oñatiarrek; sailkapeneko goiko postuetan dira, beraz

Iker Oñate OÑATI

Liga hasi besterik ez da egin Fagor Industrialeko mutilentzat; dena den, jada utzi dute denboraldiak eman dezakeenaren bueltako zantzurik. Hiru partidu jokatu dituzte, eta guztiak irabazi. Urteak urte diren arren, gaur-gaurkoz, aurreko urtekoa errepikatze bidean direla esan daiteke –igoera faserako sailkatu ziren–. Hori bai, argi dute liga hasi besterik ez dela egin, eta, amaierara bitartean, denetarik gerta daitekeela. Bada, besteak beste, txapelketak orain arte eman duenaz jardun du Mikel Agirrek (1991, Oñati), Fagor Industrialeko kapitainak. **Jokaturiko hiru partiduak irabazi dituzte. Garrantzitsua izan ohi da ondo hastea...**

Dinamika ona hartzea garrantzitsua izaten da beti; konfiantza ematen dio taldeari, eta hori nabari egiten da osteko partiduetan. Finean, galtzen hasiko bagina, ezberdina litzateke panorama, zaila baita halako egoerei buelta ematea. Beraz, pozik gaude orain arteko emaitzekin. Eginiko lan gogorraren isla da. **Beraz, lan gogorra darozue soinean?**

Hala da. Denboraldia ez da asteburuetako partiduetara mugatzen. Hiru entrenamendu izaten ditugu astean; eta denboraldi-aurreak ere izango du zeresanik oraingo egoeran. Hila bete egin genuen, korri eta korri, baloia ukitu gabe. Hori horrela, esan daiteke ordu askoko lana erakusten dugula partiduak irauten duen 60 minutu horietan.

Aurreko urtean igoera fasean jokatze txartela erdietsi zenuten. Esperientzia errepikatu guran zabilzate?

Gura bai, baina badakigu beti ez dela posible. Egoera horretan egotera heldu aurretik, 23 partidu gehiago jokatu behar ditugu; eta, ondo bidean, agian,



Mikel Agirre kapitaina, asteazkenean, entrenamenduan. IKER OÑATE

"ORDU ASKOKO LANA ERAKUSTEN DUGU PARTIDUAK IRAUTEN DITUEN 60 MINUTU HORIETAN"

igoera fase bat jokatu beharko genuke, behin betiko igoera faserako txartela lortzeko. Beraz, oraindik asko geratzen da, eta denetarik gerta daiteke txapelketaren bukaerara bitartean. Duda barik, gogoz jarraitu beharko dugu lanean zerbait handia egin gura badugu.

Zein da gakoa?

Kantxa barruan dena ematea; defentsan gogor, kontraerasoak egiteko ahaleginean eta baloia azkar mugitzen.

Taldeek berrikuntzak izaten dituzte urtetik urtera.

Aurtengoa ere ez da salbuespen izan. Josu Arenaza atezainak beste talde batekin dihardu; eta, jubenil mailan ziharduten zenbait etorri zaizkigu gurera. Azken horiek bigarren taldean dihardute, batez ere; baina jakin badakigu euren beharra dagoen unean jokatze prest ditugula.

Eta, oro har, txapelketan nabari da aldaketarik?

Ligaren zailtasun mailak gora egin duela esango nuke. Gainera, aurtengoan ez da horren erraza emaitzak aurreikustea. Adibidez, aurreko urtean sailkapeneko lehen postuan amaitu zuenak –Basauri– partidu bat galdu du, eta beste bat berdindu –hiru partidu jokatuta–. Aurreko urtean, ia txapelketa osoa behar izan zuen horretarako. Ez dago faborito nagusirik.

Zubikoako harmailak bete egiten dira sarri.

Sekulako plazera da bi astean behin harmailak hala ikustea; laguntza handikoa da guretzat. Bide horretan, orain arte moduan jarraitzea eskatzen diet zaleei, geuk ere dena emateko konpromiso jarraituko dugu eta.

Zapatuan duzue hurrengo partidua, Ereintzaren aurka.

Hala da. Planteamenduak orain arte moduan segitzen du, dena eman guran. Txapelketako partidu guztiak dira zailak; zapatuko ez da salbuespen. Gainera, jakin badakigu Ereintza izen handiko taldea dela eskubaloia munduan. Irabazteko gogoz etorriko dira, seguru.



Kili Kolo taldeko jokalariek, Super Kopa irabazi zuten egunean. ANTON SIERRA

Asteburuan hasiko du liga Herriko Futbol Txapelketak

Lau partidu jokatu dira asteburuan. Gainerako taldeek hurrengo astean dute hitzordua

I.O. OÑATI

Zazpiko futboleko San Migel txapelketa eta Super Kopa atzean utzita, ligari ekingo dio Herriko Futbol Txapelketak asteburuan. Bada, lau norgehiagoka jokatu dira Azkoagain futbol zelaian, zapatua eta domeka bitartean; datorren aste bukaeran jokatu dituzte jardunaldiko gainerako partiduak.

Esan moduan, bihar jokatu da lehen partidua, Shatoken eta Kili Kolo taldeen artekoa, 19:00etan hasita. Bestetik, Harripe Balonpie eta Zalaparta (14:00); Albok eta Dolly (18:30); eta Sasquatch eta Txuskos (20:00) domekan arituko dira nor baino nor gehiago.

Aurten ere hamabi taldek esku hartuko dute Herriko Futbol Txapelketan. Aldaketa bakarra egin da parte hartzaileen zerrendan: Joxely taldeak txapelketa utzi beharra izan du –jokalari

faltan–, eta Harripe Balonpie taldea sartu da haren ordez, hain zuzen ere.

Bestetik, aipatu beharrekoa da bere horretan jarraituko dutela joko sistemak eta arautegiak. Alegia, Ligako garailea zein den erabakiko duen finalaurrekoetarako txartela euren egingo dute txapelketako lehen lau sailkatuek; eta kopa jokatu dute gainontzekoek, kanporaketa formatuan.

Epaile gutxiago

Aurtengoan, epaile gutxiago izango ditu Herriko Futbol Txapelketak, Jabi Altubek eta Jabi Azpiatzuk epaile taldea utzi ostean. Bide horretan, bi epaile besterik ez da geratu aurtengo denboraldirako: Joseba Molineiro eta Mattin Ugarte. Gauzak horrela, futbol taldeetako ordezkariak bete beharko dituzte hutsuneak.

Garaipenaren biderei heldu gura dio saskibaloit taldeak

Aloña Mendi saskibaloit taldeak aurreko asteburuan eskuratu zuen denboraldiko lehen garaipena –Atletico San Sebastianen kontra–; eta bide berean jarraitu gura du. Horretarako, bada, gogoz jardun beharko dute hurrengo norgehiagokan. Zapatuan dute hitzordua, Zubikoan, Donosti Dolphins taldearen kontra; 18:00etan hasiko da partidua.

Aloña Mendik Zumaian jokatu du asteburuan

Aloña Mendi futbol taldeko mutilek Zumaian jokatu dute bihar, 17:00etan. Oñatiarrek pozik egoteko moduko emaitzak lortu dituzte azken jardunaldietan, eta euren egin dute txapelketako hirugarren postua. Aipatu beharrekoa da bi taldeak parean daudela sailkapenean, 10 punturekin. Beraz, zeresana izango du biharko emaitzak.



Mondrateko jokalariek. JOSU BILBAO



Eskoriatzako jokalariek. IMANOL BELOKI

Mondrate eta Eskoriatza lehen derbirako gertu

ESKUBALOIA Euskal Ligan lehen aldiz jokatuko dute elkarren aurka Arrasateko eta Eskoriatzako taldeek, bihar, 17:30ean, Musakolako kiroldegian. Mondratek oraindik ez du garaipenik eskuratu maila berrian; Eskoriatza porrot mingarria jasotzetik dator

Josu Bilbao ARRASATE

Areto futboleko Euskal Ligan lehenengo aldiz jokatuko dute Debagoieneko taldeek elkarren aurka. Mondratek iragan denboraldian lortu zuen mailaz igotzea, eta bihar, Musakolako kiroldegian -17:30ean-, Eskoriatza hartuko dute Antxon Isasiren mutilek.

Mondratek ez du irabazi oraindik maila berrian, eta bihar irabazteko aukera polita izango dute derbian. Pasa den aste bukaeran atsedean hartu zuten Arrasatekoek, eta bihar lehiaketara itzuliko dira Musakolako kiroldegian. Helburua argia da: garaipena lortzea sailkapeneko azken aurreko postutik gora

egiteko. Hala ere, oraindik lehen taldeko jokalariek ugari zigortuta daude pasa den denboralditik, eta bihar entrenatzaile lanetan ibiliko den Antxon Isasik bigarren taldeko jokalariek deituko ditu besteen lekua hartzeko: "Eguna heltzeko gogoz daude jokalariek, lehen derbia izango delako eta etxean jokatuko du-

gulako. Hala ere, zorritzarrez, lehen taldeko jokalariek asko oraindik zigortuta daude, eta bigarren taldeko askok jokatu beharko dute. Euren ilusioarekin irabaztea espero dugu".

Eskoriatzako jokalariek esperientzia nabarmendu du, gainera, Antxon Isasi teknikariak: "Oraindik ez ditugu nahi genituen emaitzak lortu, baina horretarako lanean gabiltza. Aurrean izango dugun taldearen esperientzia handiko jokalariek daude. Urte asko daramate batera jokatzen, eta hori erronka izango da gure jokalariek mailan debuta egin dutelako denboraldi honetan".

Eskoriatzak norgehiagoka bat irabazi eta beste bat galdu du, oraingoz. Pasa den zapatuan, porrot mingarria jaso zuten Iker Molinaren mutilek etxean, Ba-

tzarre taldearen kontra (3-4), eta, Arrasaten, neurrak horrek utzitako zapora txarra ahaztu nahi dute. "Egia esateko, pasa den aste bukaerako porrotak min egin du taldean. Beraz, animoak igotzeko oso garrantzitsua izango da derbia irabaztea", azaldu du Eskoriatzako entrenatzaile Ibon Molinak.

Mondrate, maila berrian, "lehiatzeko gogoz" ikusten du, bestalde, Molinak: "Mailaz igo dira eta lehiatzeko gogo handiz ikusten ditut nik. Horregatik, partidua oso parekatua izango da, eta detaile txikietan erabakiko da, ia ziur".

Aretxabaleta UDAk, Santurtzin Nazional Hirugarren Mailari dagokionez, Aretxabaleta UDAk San Jorge Santurtziren kontra jokatuko du bihar, 16:30ean, etxetik kanpora. Azkeneko jardunaldian garaipen garrantzitsua lortu zuten debagoiendarrek Kukuyagaren aurka (3-2), eta bolada onari eusteko asmoarekin joango dira Santurtzira. Sailkapenean, laugarren da Aretxabaleta 7 punturekin, bi partidu irabazi, bat berdindu eta beste bat galdu ondoren.

MONDRATEK MAILA BERRIAN LEHENENGO GARAIPENA ESKURATZEKO AUKERA IZANGO DU

Imanol Zeziagak indartuko du MU, Satchellen lesioaren ostean

SASKIBALOIA Bihar, 18:30ean, Valladolideko La Flecha hartuko dute arrasatearrek Iturripen, EBA mailan

J.B. ARRASATE

Imanol Zeziaga arrasatearra Mondragon Unibertsitatera itzuli da taldea indartzeko helburuarekin. Justin Satchell estatubatuarra, gainera, oinako bosgarren metatarsianoa hautsi zuen azken partiduan eta lau astez, gutxienez, ez du jokatuko.

MUK oraindik ez du partidarik irabazi denboraldi honetan EBA mailan, eta ez da erraza izango Justin Satchellen hutsunea betetzea taldean. Hala ere, Zeziaga jokatzeke prest egongo da bihar-tik aurrera.

Aukera ona Iturripen

Pasa den asteburuan jipoiak jaso zuten Mondragon Unibertsitateko gizonak Zornotzako Saskibaloiko talde indartsuaren kontra (131-97), baina bihar, sailkapeneko azken postutik irteteko aukera ona izango du Arrasateko taldeak, Valladolideko La Flecharen aurka -18:30ean, Iturripen-. MUK orain arte jokatutako hiru neurketak galdu ditu, eta laugarren jardunaldian denboraldiko lehen garaipena eskuratzeko aukera polita izango du, etxean, zaleen aurrean.

Horretarako, azkeneko neurketan jasotako puntu pila murriztu beharko ditu, defentsa indartuz -131 puntu egin zizkion Zornotzak-. Hala ere, aurkaria ez da erraza izango, dagoeneko hirutik bi partidu irabazi baititu La Flecha taldeak, eta sailkapeneko erdiko postuetan eroso daudelako Valladolidekoak.

Natra Oñati, bide onean

Seniorren Gipuzkoako Lehenengo Mailan, denboraldiko lehen garaipena lortu zuen Oñatiko taldeak pasa den aste bukaeran, Atletico San Sebastianen kontra (81-79), eta bihar, bigarrena eskuratzeko aukera izango du, Donosti Dolphins taldearen aurka. Partidua Zubikoa kiroldegian izango da, 18:00etan. Aloña Mendik gogor borrokatu beharko du Donostiako taldea gainditzeko.



DEBAGOIENENKO ESKALATZAILEAK

Espainiako Txapelketara

ESKALADA 2017ko Espainiako Eskalada Txapelketan parte hartuko dute, aste bukaera honetan, argazkian agertzen diren Haizea Oses eta Martzel Vicario arrasatearrek eta Ilija Uriarte oñatiarrak. Gainera, Ane Erostarbe oñatiarra eta Mikel Linazisoro bergararra ere Bartzelonako Climbat la Foixardan egingo diren probetan egongo dira.



Bergarako talde nagusia, Mutrikuren aurkako partiduan. IMANOL SORIANO

Bolada onari segida eman gura dio Bergarak

Txapelketa hasiera onari jarraipena eman gura diote Bergarako talde nagusiko mutilek. Bihar, zapatua, dute hurrengo hitzordua, Real Unionen kontra. Aretxabaletak eta Mondrak ere etxean jokatu dute aste bukaeran

Iker Oñate DEBAGOIENA

Orain arte, berri onak heldu zaizkio Bergarako futbol munduari; jokaturiko sei partiduetatik bost irabazi ditu talde nagusiak, eta bat berdindu. Bada, bigarren postuan dira bergararrak –hemezortzi talde daude–, hamasei punturekin. Ordizia dute aurretik, puntu kopuru bera batuta. Hori horrela, txapelketa hasiera onari jarraipena ematen saiatuko dira biharko partiduan; 16:00etan dute hitzordua, Agorrosinen, Real Union taldearen aurka.

Gauzak horrela, taldeko entrenatzaile Mikel Juaristi "pozik" da denboraldiak orain arte emana duenarekin: "Kontuan izan behar dugu aurreko urteko igoeraren ostean, maila berrian dihardugula. Halakoetan, zaila izaten da denboraldiari ongi ekitea. Beraz, pozik egoteko moduko emaitzak lortu ditugu, duda barik". Edozelan ere, azpimarratu du oraindik hasi besterik ez dela egin den-

boraldia, eta, hain zuzen ere, egoera edozein momentutan alda daitekeela.

Lehiakortasuna

Bestalde, denboraldi hasiera onaren gakoei dagokienez, taldearen "izaera lehiakorra" azpimarratu du Juaristik. "Lehiakorrak izatea da partiduro dugun helburua. Oraingoan, ondo doakiguru horrela", argitu du. Horrek ere badu eraginik taldearen joko-datuetan: hamahiru gol sartu dituzte, eta bi jaso. Beraz, bergararren planteamenduak orain arte bezala segituko duela esan daiteke.

Biharko partiduen bueltan, bestetik, Juaristik aitortu du talde "ona" izango dutela aurrean.

JOKATUTAKO SEI PARTIDUETATIK BOST IRABAZI DITU BERGARAKO TALDE NAGUSIAK

"Kalitate handiko jokalariek dituzte; min egin diezagukete bakarkako jokoan. Beraz, argi ibili beharko dugu", azaldu du.

Beste taldeek ere etxean

Bestetik, etxean jokatu dute Aretxabaletak eta Mondrak. Laugarren postuan dira aretxabaletarrak, hamahiru punturekin –galdu egin zuten aurreko asteburuan–. Hala, bolada onari berriro heltzen saiatuko dira etziko partiduan; 16:30ean dute hitzordua, Pasaiaren kontra. Eta arrasatearrek ere etxean jokatu dute asteburuan, Oiarzunen aurka. Bihar dute partidua, zapatua, 16:30ean.

Arizmendi Leintzek, etxean

Aste amaiera borobila atzean utzita –jokaturiko bi partidua irabazi zituzten–, asteburura begira jarriak dira Arizmendi Leintz taldeko neskek. Bihar jokatu dute, 13:30ean, Mojategi futbol zelaian. Goierri-Gorri taldea izango dute aurrean.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

EMAKUM. EUSKAL LIGA

Ariz. Leintz-Goierri G.

Zapatua. 13:30.

Mojategi.

OHOREZKO ERREGION.

Aretxabaleta-Pasaia

Domeka. 16:30.

Ibarra.

Mondra-Oiartzun

Zapatua. 16:30.

Mojategi.

Bergara-Real Union

Zapatua. 16:00.

Agorrosin.

ERREGIONAL PREFEN.

Antzuola-Elgoibar

Zapatua. 16:30.

Estala.

Soraluze-Aretxabaleta

Zapatua. 17:00.

Soraluze.

Beasain-Bergara

Domeka. 17:00.

Beasain.

Zumaia-Aloña Mendi

Zapatua. 17:00.

Zumaia.

ERREGIONAL MAILA

Arizmendi-Aloña

Zapatua. 18:00.

Ibarra.

OHOREZKO GAZTEAK

Lazkao-Mondra

Zapatua. 16:00.

Lazkao.

Aloña Mendi-Bergara

Domeka. 16:30.

Azkoagain.

Elgoibar-Aretxabaleta

Zapatua. 18:00.

Elgoibar

OHOREZKO KADETEAK

Aretxabaleta-Urki

Zapatua. 16:00.

Ibarra.

Bergara-Elgoibar

Domeka. 10:00.

Ipintza.

ARETO FUTBOLA

MAILA NAZIONALA

Santurtzi-Aretxabaleta

Zapatua. 16:30.

Santurtzi.

EUSKADIKO LIGA

Mondrate-Eskoriatza

Zapatua. 17:30.

Musakola.

ESKUBALOA

EMAKUM. EUSKAL LIGA

Aloña Mendi-Jarriller.

Zapatua. 16:30.

Zubikoa.

EUSKADIKO TXAPELK.

Fagor Indus.-Ereintza

Zapatua. 18:15.

Zubikoa.

Ford Mugarri-Berango

Domeka. 11:30.

Iturripe.

GIP. LEHEN MAILA

Egia-Aloña Mendi

Zapatua. 18:15.

Donostia.

Aritzbatalde-Soraluze

Zapatua. 16:00.

Zarautz.

GAZTE MUTILAK

Aloña Mendi-Pulpo

Domeka. 12:15.

Zubikoa.

Bergara-Bidasoa Irun

Zapatua. 17:00.

Labegarieta.

SASKIBALOA

JUNIORRAK EUSKADIK.

MU-La Flecha

Zapatua. 18:30.

Iturripe.

GIPUZK. SENIOR MAILA

Bosteko Irauli-MU

Zapatua. 20:00.

Donostia.

Aloña Mendi-Donosti

Zapatua. 18:00.

Zubikoa.

GIPUZK. BIG. MAILA

Añorga-Bergara Sora.

Zapatua. 18:00.

Donostia.

JUNIORRAK (PARTE-H.)

Iurre-Bergara Soraluze

Zapatua. 10:30.

Tolosa.

Aloña Mendi-Oarso

Zapatua. 16:00.

Zubikoa.

OHOREZKO KADETEAK

Aretxabaleta-Pasaia

Domeka. 16:30.

Ibarra.

Mondra-Oiartzun

Zapatua. 16:30.

Mojategi.

Ziklokroseko lasterkariak hasi dute denboraldia

Martxan da ziklokroseko denboraldia. Urriaren 7an egin zuten ikasturteko lehen proba, Urduñan; eta 2018ko urtarrilaren 8ra arte iraungo du denboraldiak. Tartean, Debagoieneko bi lasterketa egongo dira: Arrasaten –abendua 8an– eta Oñatin –abendua 17an–. Horiek iritsi aurretik, baina, beste proba batzuk izango dituzte lasterkariak; asteburu honetan, Beasainen. Bada, hainbat debagoiendar egongo dira lasterkarien artean, nor bere kategorian. Tartean izango dira Lokatzako Aitor Larrea eta Xabier Biteri; Aloña Mendiko Aritz Torres eta Unai Cueva; eta Eskola-Eroskiko Oihan Uroz.

Iban Altuberen omenezko VII. MTB martxa, domekan

Azken urteetako ohiturari jarraiki, Iban Altuberen omenezko mendi bizikleta martxa egongo dute domekan, Oñatin. 09:00etan hasiko da ekintza, Altube omentzeko ekitaldiarekin. Ostean emango diote hasiera bizikleta martxari; parte hartzaileak orduan murgilduko dira herriko parajeetan barrena. Egitasmoan esku hartu gura duenak egunean bertan eman dezake izena; 10 euro ordaindu beharko dute federatuek eta 15 euro, federatuta ez daudenek. Bi ibilbide jarri dituzte parte hartzaile nagusien eskura, 27 eta 36 kilometrokoak. Horiez gain, 7 kilometroko ibilbidea prestatu dute haurrentzat.

Hemengo eta atzerriko rap doinuak elkarrekin

'Gaztemaniak' musika programaren baitan, Argentinako Nathy Peluso eta Donostiako Nizuri Tazuneri bikotearen emanaldia izango da bihar, zapatua, 20:00etan, Amaia antzokian; sarrerak zazpi eurotan eros daitezke 'Arrasate.eus' atarian edo leihatilan

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE
Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Arrasateko, Azkoitiko, Hondarribiko, Irungo eta Zarauzko udalek sustatzen duten musika programa da *Gaztemaniak*. Eki-menaren helburua da eskaintza komertzialetik kanpo dauden korrante artistikoetako taldeen emanaldiak eskaintzea; bereziki, gazteei.

Orain dela 24 urte sortu zuten, eta ordutik da ekimeneko programatzailea *Forki*, eskarmentu handiko irrati esataria. "Kontzertu bereziak antolatzea izan da hasieratik asmoa; hemen entzuten ez ziren musikariak ekartzen saiatzen ginen. Gauzak asko aldatu dira; musika independentea entzuteko eskaintza handiagoa dago, baina helburu berarekin jarraitzen dugu gaur egun ere. Ez da samurra izaten eta proposamen berriek sarritan ez dute gura besteko erantzunik jasotzen. Gure erronka hori da, agertokian dagoena ezagutu barik ere, jendea kontzertuak ikustera joatea".

Argentinatik, rap kantaria

Dozena bat kontzertu antolatzen dituzte urtean. Herri bakoitzean bi; horietako bat Foru Aldundiak ordaintzen du eta bestea Udalak. Atzerriko taldeak ekartzeko in-



Nathy Peluso argentinarrak abestuko du Amaia antzokiko *hall*-ean. GAZTEMANIAK

guruan egiten dituzten birak aprobetxatzen dituzte. Hori horrela, Nathy Peluso gaur Bilbon izango zela-eta, eskaintza jaso zuten zapatuan Arrasatera eramateko. "Oso erreferentzia onak jaso ditugu. Hip hop berria, berezia, da. Eragin musikal bixiak ditu: jazza, soula, swinga...", dio programatzaileak.

Askotariko iturrietatik edaten duen musikaria da; bizitza oso nomada izan du, eta 22 urte besterik ez duen arren, musika aldizkari eta kritikari askoren gustuko da.

Gipuzkoako musikariei tokia

